

# Goienkaria

2008ko otsailaren 22a > Egubakoitza > VIII. urtea > 321. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

## G2a

Aramaioko 1561.  
urteko Biblia,  
ikusgai > 43-44

ARRASATE

Pedro Biteri zenaren bustoa egin ala  
ez erabakiko dute astelehenean > 19

BERGARA

Herriaren etorkizunerako asmoak  
azalduko ditu udal gobernuak > 24-25

ARETXABAleta

12 milioi euroko aurrekontua  
onartu du udalbatzak > 31

"Ezker  
abertzaleak  
ausarta izan  
behar du, eta  
aurrerapausoa  
eman"

Ainhoa Sagarribai  
PSE-EEko zinegotzia  
> 09



IRISGARRITASUNA > GIPUZKOAKO IBILBIDE NATURAL EGOKITUEN SAREA

## Ezinduendako ibilbide naturala egokituko du Aldundiak Aizkorri

**ARANTZAZUN** Santutegia eta  
Gomistegi lotuko ditu bide  
egokitukoak eta egiten hasita  
daude; 1.865 metro izango ditu

**ZAILTASUNAK** Ezberdintasun  
funtzionalak dituztenei ibilbide  
interesgarriean ibiltzeko  
aukera eman nahi die Aldundiak

**LEHENENGOA** Aizkorri parkekoa  
da Gipuzkoan egiten den lehena;  
gero Aiako Harrian, Pagoetan  
eta Aralarren egingo dute > 04

EHIZA > LEGE BERRIAK

## Ehiza mugatzeko legeari ez

Debagoineneko hiru  
ehiza elkartek  
autobusa antolatu  
dute Madrilen  
protesta egiteko > 05

### Markel Irizar eta Iban Velasco, motorren pare

"Inoiz baino gorputzaldi hobea  
gaude, motorren pare".  
Halaxe aitortu dute Markel  
Irizar eta Iban Velasco Euskaltel-Euskadi  
txirrindulariek denboraldia hasi berri  
daudela. Velascok Australian  
egin zuen debuta eta Irizar  
Valentzian hasiko da lehian,  
martitzenean.

Hala, eguztenean  
GOIENKARIAk gertutik  
jarraitu zuen Debagoineneko  
bi txirrindularien lan-saiaoren  
hasiera, Arrasatetik Ara-  
maioko Azkoaga auzora-  
erretratu- arteko, hain  
zuzen. Etapa bat irabaztea  
dute buruan eta dagoeneko  
10.000 kilometro egin dituzte  
azarotik hona. > 40-41



BAIKOR Urte gogorra izango dute aurrean, baina Irizar eta Velasco baikor daude, eta konfiantzaz; bistean da umorea ere ez dutela galdu.

XABIER URTZELAI

### AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08  
Elkarritzeta > 09  
Iritzia > 10-11  
Gutunak > 12  
Herriak > 15-39  
Kirola > 40-41  
Kultura > 45  
Eskelak > 46-47  
Sailkatuak > 48  
Gazteak > 50  
Komunikazioa > 51  
Telebista-Irratia > 52  
Non-zer > 54-55

### Botoa postaz bideratzeko informazioa

ARRASATEKO BATZOKIA  
943 79 63 69 / 943 79 07 90

ARETXABAleta  
616 75 85 99 / 620 68 62 19

ANTZUOLA  
943 76 60 61

ESKORIATZA  
626 26 48 98

ELGETA  
943 76 81 47

ONATIKO BATZOKIA  
943 78 01 17

BERGARAKO BATZOKIA  
943 76 47 00

Eskaeretarako  
azken eguna:  
OTSAILAK 28

EAJ  
PNV  
www.eaj-pnv.eu



ITSAS ENBALAJE eta AROTZERIA INDUSTRIALA, PALETAK, KAXAK eta  
ENBALAJERAKO MATERIALEN HORNIKUNTZA: FILMAK, ZINTA ITSASGARRIAK,  
PLASTIKOZKO PALETAK, eta abar...  
Tel.: 943 76 99 72

OSASUNA &gt; HAUR HIPERAKTIBOAK

# Hiperaktibitatea, oldarkortasuna eta arretarik eza batera nahasten direnean

**HIRU SINTOMA** Hiru sintoma horiek koadro klinikoa osatzen dute: Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitatearekiko Asaldura moduan ezagutzen den gaitza

**MIRIAN BITERI** > BERGARA Eskuekin edo oinekin etengabeko mugimenduak egitea; lasai jolasteko zailtasunak izatea; jokotan arreta mantentzeko zailtasunak edukitzea; eserita egon behar duenean eserlekutik jaikitzea; sarritan "motor bat izango balu bezala" funtzionatzea; edo larregi hitz egitea.

Horrelako sintomak dituzten seme-alabek adituengana erama-tea komenigarria da, ume hiperaktiboa izan daiteke-eta. Alegia, Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko Asaldura (AGHA) moduan ezagutzen den gaitza izan dezake.

Nahaste pneuro-psikiatrikoa da eta umeei eragiten die. Horrek ikasteko jarduera oztopatzearaz gain, umearren portaeran eragina du. Gema Climet pneuro-psikologoaren arabera, "hiperaktibitatea ez da zertan txarra izan. Oso mugituak diren ume asko dago gurean eta horrek ez du esan nahi guztiak hiperaktiboak direnik".

## ARAZOA, NOIZ?

Hortaz, gaineratu du arazoan dato-rela "hiperaktibitate hori este rila denean. Alegia, seme-alaba ez denean kapaz hori kontrolatzeko. Hori, gainera, arretarik ezaz eta oldarkortasunaz lagunduta doa gehienetan". Seme-alabaren eguneroko jardueran "nahaste edo disfuntzio garrantzitsua" eragiten du.

Esan bezala, nahaste horrek hiru sintoma nagusi ditu: arretaren eskasia, oldarkortasuna eta hiperaktibitatea. Baliteke horietako bat nagusitzea besten gainetik edo hirurak batera azaltzea.

Ameriketako Psikiatria Elkarrearen DMSN gidaliburuaren arabera, hori diagnostikatzeko beharrezko da, gutxienez, arreta eskasiaren, oldarkortasun-

naren eta hiperaktibitatearen gaineko sei sintoma azaltzea. Horiek, gainera, sei hilabete iraun behar dutela azpimarratzen du. Sintomek, gutxienez, bi egoeratan eman behar direla azaltzen du, hala nola etxean eta eskolan.

**ADINAK EZ DU ZERIKUSIRIK** Gaxotasun horretan adinak ez duela zerikusirik dio Ameriketako Psikiatria Elkartea, jaiztatik dator-eta. Adituek diotenez, amak haurdun dagoenean igartzen omen du fetuaren portaera urduria. Hiperaktibitatea duen haurra, gainera, bes-teek baino lehenago hasten da ibiltzen; bederatzi edo hamar hilabeteren, hain zuzen. Horrez gain, haurrak txikitatik

tasunaren arabera. Terapia konbinatua da emaitza one-nak ematen dituena: farmakologikoa eta psikologikoa zein hezkuntza-psikologikoa. Umearren adinaren eta ezau-garrien araberakoa izan behar du tratamendu horrek.

Zer-nolako ondorioak ekar diezkie umeei eta inguruko horrelako gaitzak? Umearren hezkuntzan eragin zuzena izan dezake, baita erlazioetan ere. Norberaren autoestima eta, beraz, pertsona bezala garatzeko oztropoa ere izan daiteke.

**Zein da tratamendurik era-ginkorrena?** Ume bakoitzari egokitu behar da hori, gaitzaren larri-

**TXIKITATIK** Sintomak, normalean, 7 urte bete aurretik azaltzen dira eta, kasu gehienetan, heldutasunean mantendu egingo da nahastea

**DEBAGOIENA** Arrasateko osasun mentaleko zentroan 70 eta 80 ume inguru tratatzen dituzte; erdiak baino gutxiagok sufritzen dute gaitz hori

**Gema Climet pneuro-psikologoaren ustez, "hiperaktibitatea ez da zertan txarra izan. Oso mugituak diren ume asko dago gurean eta horrek ez du esan nahi guztiak hiperaktiboak direnik"**

izaten du amarekiko aurkako jarrera. Sintomek, normalean, 7 urte bete aurretik agertu behar dutela aipatzen du gidaliburuak. Kasu gehienetan, gaitza gaztaroen eta heldutasunean mantenduko da.

Nahaste hori ohikoagoa da mutilegan neskengan baino. Lau mutiletatik bat neska da. Ikerketen arabera, eskolara joaten diren haurren %3tik %5era dute nahaste hori.

**NOLA JAKIN HIPERAKTIBOA DELA?** Seme-alaba hiperaktiboa den jakiteko nola jokatu behar dugun azaldu digu Gema Climetek. Lehenik eta behin, umearen sintomak aztertu behar direla dio eta jarraian, profesional baten



7 URTETIK BEHERA 7 urte bete aurretik azaltzen di-

## ADITUAREN IRITZIA

Gema Climet > Pneuro-psikologoa

## "Asko espektatibak eta ametsak betetzeko gai dira nagusitzean"

### M.B. > OÑATI

Gema Climet pneuro-psikologoa Oñatin izan zen joan zen astelehenean, umeen hiperaktibitatea eta arreta gabeziaren gainean hitz egiten.

Zer-nolako ondorioak ekar diezkie umeei eta inguruko horrelako gaitzak?

Umearren hezkuntzan eragin zuzena izan dezake, baita erlazioetan ere. Norberaren autoestima eta, beraz, pertsona bezala garatzeko oztropoa ere izan daiteke.

**Zein da tratamendurik era-ginkorrena?**

Ume bakoitzari egokitu behar da hori, gaitzaren larri-

tasunaren arabera. Terapia konbinatua da emaitza one-nak ematen dituena: farmakologikoa eta psikologikoa zein hezkuntza-psikologikoa. Umearren adinaren eta ezau-garrien araberakoa izan behar du tratamendu horrek.

**Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko Asaldura senda daiteke?**

Teorikoki, ez. Bada, mendera daiteke eta pertsona horrek bizitza normalizatua eramatea lor daiteke.

**Betidanik existitu den gaitza da hori?**

Hezkuntza tipo batzuek umeetan gehiegizko deskon-

trola eragin dute. Lehen, agian, horieez zen horren age-ria, hezkuntza zorrotzagoa zelako. Haurrek haur dira eta, beraz, kontrolatzeko ikasi behar dute. Ez dut esaten garai bateko hezkuntza hobea zenik. Baina ez dut uste gaur egun haurrek bikain hezten ari garenik. Heztekero modu hobreak egon behar dute.

**Ume guztiak dute gaitz hori izateko arriskua?**

Joera familiarrak eragiten duela ematen du, genetikak emanda.

**Zer arduratzen ditu Oñatiko gurasoak?**

Seme-alaben hezkuntza



Gema Climet pneuro-psikologoaren irudia.

MIREIA BIKUÑA

eta haiei botikak ematea ona edo txarra den galdeku zida-ten joan zen astelehenean. Azken horren harira, esku onetan dauden eta gaitzaga-tik sufrituko duten arduratu-daude. Horrez gain, helduak direnean, norberaren espek-tatibak eta ametsak betetze-ko gai izango diren galdeku zuten. Gaur egun, azken hori zilegi da kasu askotan.



ra sintomak. Irudian, gaitz horrekin zerikusirik ez duten umeak, jolasean.

M. B.

gana jo beharko dute gurasoek. "Gaitza duela suma dezakete umearen arreta eta hitz zein motor portaera ez dutenean menderatzen". Profesionalak gaixotasunaren diagnostikoa egingo du eta umeari tratamendu egokia jarriko dio.

#### GAITZA DEBAGOIENEAN

Ana Gomez psikologoak horretan dihardu Arrasateko osasun mentaleko zentroan. Arazo mentalak dituzten umeak tratatzentzu. Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta, Eskoriatza, Elgeta, Araujo eta Leintz Gatzagako haurrak ditu.

Gaur egun, zentro horretan "70 eta 80 haur artean tratatzentzu. Baina guztiak ez dira hiperaktiboak. Arazo mental ugari daude. Tratatzentzu ditudan umeen erdia baino gutxiago dira hiperaktiboak", jakinarazi du.

Gomezen arabera, gaitz hori "modan dagoen gaia da eta nire ustez, balio handiegia ematen zaio gaur egun". Horren harira, "batzuek gaitz hori ez dute. Hiperaktibitatea faltsuaz ari naiz. Alegia, sintomak dituzten arren eta ume hiperaktiboak direla ematen badu ere, beste arazo mental batzuk sufritzen dituzte. Testu inguruak garrantzi handia du guztio horretan".

Gainera, gaur egun, umeak larregi medikatzentzu. Salatu du Arrasateko osasun mentaleko psikologoak. Hala, horretan tratatzentzu diren haurren erdiak baino gutxiagok botikarik ez dutela hartzen azpimarratu du. "Badaude kasuak medikazioak ez dutena behar, bereziki ume txikienen kasuak. Gurasoekin eta irakaslekin elkarritzak izaten eta neurri batzuk jarraituz, saia gaitezke ume hori menderatzen. Jasotako

emaitzen arabera, haurra modu batean edo bestean tratatuko dugu ondoren".

Gomezek azpimarratu duenez, hiperaktibitatea diagnostiko "garbia" iristen zaionean, psikiatralengana bideratzen du umea. "Kasu horietan berak erabakitzentzu haurrak botikak hartu beharko dituen edo ez", adierazi du.

#### IKASTETXEETATIK ZENTRORA

Umeak toki askotak iristen dira Arrasateko zentroa, baina, bereziki, ikastetxeetak bideratzen dituztela jakinarazi du. Pediatriak, gizarte zerbitzuak edo neurologia zerbitzuak dira beste bide batzuk.

Arrasateko osasun mentaleko zentroa Ergin kalean dago orain. Toki hori behin-behineko da, ospitale berria eraikitzen denean, hara bideratuko dituztela osasun mentaleko kasuak.

**xarma**  
edertze zentroa

Astelehenean,  
otsailak 25  
zabalik

Ordutegia: Astelehena - Ostirala: 9:30 - 19:00 • Larunbata: 8:00 - 13:30

**Ileapaindegia**  
**SPA manikura eta pedikura**

Bihar,  
larunbata,  
otsailak 23  
inaugurazioa  
18:30etan

#### GAITZAREN SINTOMAK

##### > ARRETA FALTA:

- Xehetasunei arreta jartzeko ezintasuna edo egindako lanetan deskuiduz akatsak egitea.
- Jokoetan arreta mantentzeko zailtasunak izatea.
- Zuzenean hitz egiten zaionean ez du ematen kasu egiten duenik.
- Ez ditu jarraiak jarraitzen.
- Ahalegin mental jarraitua egitea eskatzen duten lanak egiteko gogorik ez izatea.
- Kanpoko estimuluen eraginez erraz galtzea.
- Eguneroko jardueretan ardura-gabea izatea.

##### > HIPERAKTIBITATEA:

- Eskuekin edo oinekin etengabeko mugimenduak egitea.

- "Motor batek eraginda moduan" jokatzea.

- Eserita egon behar duenean eserlekutik altxa eta alde egitea.
- Isilean jolasteko ezintasuna.
- Alde batetik bestera korrika ibiltzea, edo gauzen gainera igotzea, horrelakorik egin behar ez denean.
- Aisialdiko jarduerei ekiteko zailtasuna.

##### > OLDARKORTASUNA

- Galdera bukatu aurretik erantzutea. Erantzunak arindegia ematen ditu.
- Pentsatu aurretik jokatzen dute.
- Txanda gordetzeko zailtasunak izatea.
- Jarduerak eta elkarritzak eteten dituzte.
- Larregi hitz egitea.

**IRISGARRITASUNA > GIPUZKOAKO IBILBIDE NATURAL EGOKITUEN SAREA**

# Gipuzkoako lehenengo ibilbide natural egokitua Aizkorriko parkean egongo da

Arantzazutik  
Gomistegira doan bide  
egokitua hasi dute;  
1.865 metrokoa da

Ezberdintasun  
funtzionalak  
dituztenendako  
egokituta egongo da

**LEIRE KORTABARRIA > OÑATI**  
Gipuzkoako ibilbide natural ego-  
kituen sarea egingo du Foru  
Aldundiak, eta bide horietatik  
lehenengoa Oñatin egongo da:  
Arantzazuko Santutegia eta  
Gomistegi baserria batuko ditu  
bide horrek. Lanak dagoeneko  
hasita daude.

Ibilbide natural egokituen  
sarea atzo, eguna, aurkeztu  
zuten Gipuzkoako Foru Aldundi-  
ko Landa Ingurunearen Garapene-  
ko eta Mendietako eta Natura  
Inguruneko arduradunek,  
Oñatiko alkate Lourdes Idoia-  
gak eta La Caixako Gizarte pro-  
grametako arduradunek –izan  
ere, erakunde horrek finantza-  
tzen du Oñatiko bidea, zati baten.

**ZALTASUNAK DITUZTENENDAKO**  
Ibilbide natural egokituen sare-  
aren bidez, ezberdintasun fun-



IBILBIDEA Arantzazutik Gomistegira arteko bidea egokituko dute, irudiko lehen planoan ikus daitekeena, hain justu.

zabalera, maldia, ateak eta hesiak, informazio eta atsedenerako gunea, altzariak, segurtasuna, zerbitzuak eta argiak.

Irizpide horietan oinarrituta, lehen hautaketa baten, lau ibil-  
bide hartu dituzte Gipuzkoako  
parke naturaletan: Aizkorri, Ara-  
lar, Pagoeta eta Aiako Harria.  
Horietatik, Aizkorriko –Arant-  
zazutik Gomistegira doana-  
dagoeneko badabiltza egiten.  
Proiektu osoa egiteko, 1,5 milioi  
euro jarri ditu Aldundiak.

**"GARRANTZI HISTORIKO HANDIA"**  
Aizkorriko parke naturaleko ibil-  
bidea aspaldikoa da, eta, garai  
baten, maiz egiten ziren Gomiz-  
tegi eta Arantzazu arteko joan-  
etorriak, baina, gaur egun, gutxi  
erabiltzen da ibilbide hori.

Aldundiak dioenez, "garran-  
tzi historiko handiko ibilbidea  
da", eta erakargarritasun handi-  
ko bi leku batzen ditu. 1.865 metro  
luze da; horietatik 1.125 mendi-  
tik doaz, eta Artzain Eskolara  
daramaten 740 metroak dagoene-  
ko hormigoiz estalita daude.

Projektua aurrera eramatera-  
koan, Foru Aldundiko Landa  
Ingurunearen Garapeneko Sai-  
lak lankide izan ditu Oñatiko  
Udal eta La Caixa Gizarte Ekin-  
tza. Aurrekontua 910.000 eurotik  
gorakoa du; horietatik 100.000  
Oñatiko Udalak ipini ditu; 211.000  
euro, finantza erakundeak; eta  
gainerako 600.000 euroak, Gipuz-  
koako Foru Aldundiak.

tzionalak –modu bateko edo bes-  
teko mugak, ezintasunak– dituz-  
tenei ibilbide interesgarriean  
ibiltzeko aukera eman nahi die  
Aldundiak. Ezberdintasun mota  
asko hartu dituzte kontuan: fisi-

ko –gurpildun jesarlekuak edo  
makuluak darabiltzaten pertso-  
nak, adindunak, ume-kotxeak  
daramatzatenak, bizikletan dabil-  
tzan umeak...– ikusmenekoa,  
entzumenekoa edo intelektuala

–ulermen, orientazio edo eraba-  
kiak hartzeko maila txikiagoa  
dutena. Horien premieei erantz-  
teko, bideek baldintza batzuk  
betetzen dituzte, eta hauek ego-  
kituko dituzte: aparkalekuak,

**OGASUNA > IRUNGO OGASUNAREN USTEZKO IRUZURRA**

## "Iruzurraren muinera" iritsi nahi du LABek

Irungo Ogasunean egindako ustezko iruzurra  
salatzeko egin zuen agerraldia, martitzenean,  
Bergarako Ogasunaren bulego aurrealdean

**JASONE ZABALA > BERGARA**  
Joan den martitzenean, LAB sindikatuak prentsaurrekoak egin  
zuen Bergarako Ogasun bulegoaren aurrean, Irungo Ogasuneko  
ustezko iruzurra salatzeko. Bertan, besteak beste, Jon Garate  
eskualdeko LABeko arduraduna  
eta Jose Ramon Kortabarria  
Bergarako LABeko arduraduna  
egon ziren. LABen ustez, "erru-  
dun guztiak ez dira oraindik age-  
ri eta kaltetu asko dago". Jon Garate  
esanan, "Irungo Oga-

sunaren iruzurra posible izan  
da, finantza publikoak behar den  
bezala kudeatu eta zaindu behar  
dituzten arduradun politikoek  
ere pasibotasun eta permisibitate  
osoz jokatu dutelako".

**HERRI AKUSAZIO GISA**  
Horregatik guztiagatik, LAB  
herri akusazio gisa aurkeztu da  
Irungo auzian, eta Jon Garatek  
honen harira esan zuen: "Herri  
akusazioa aurkezearren 60.000  
euroko fidantza eskatu digute,



PRENTSAURREKO LAB sindikatuko kideak, martitzenean Bergarako Ogasun bulegoaren aurrean egindako agerraldian. J.Z..

baina aurrera jarraituko dugu".  
Lortu nahi dutena sei puntutan  
laburbil daiteke: zerga politika  
atzerakoi eta bidegabea dela sala-  
tzen jarraitzea; iruzurraren mu-  
ineraño iristea; Gipuzkoako  
gizartea gertatu den guztia jakie-

tea; gertatu denaren benetako  
errudunak zeintzuk diren argi-  
tzea; erantzukizun penalak dire-  
nak ez daitezela erantzukizun  
politiko bihurtu; eta gipuzkoarrei  
lapurtutakoa itzultzea. Iruzurra-  
ren parte sentitzen diren guztie,

zapatu honetan, otsailaren 23an,  
17:30ean Donostiarra Bulebarrean  
egingo duten manifestazioan  
parte hartzea deialdia egin die-  
te. Kaltetu guztiak hala nahi iza-  
nez gero, [iruzurra@labsindikatua.org](http://iruzurra@labsindikatua.org) helbidera idatz dezakete.

EGURALDIA > TEMPORAK

# Eguzkia nagusi udaberrian

Otsailaren 13an, 15ean eta 16an izan ziren urteko lehenengo temporak

Kontratenporen arabera, martxoaren 26tik aurrera eguraldi aldakorra edukiko dugu

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

"Udaberria eguzkitsua izango dela diote tenporek". Irakurketa hori egin digu eguraldi iragarle Joxe Landak pasa den astean izandako tenporen inguruan. Otsailaren 13an, 15ean eta 16an izan ziren urteko lehen temporak; hain zuzen, apirilerako, maiatzeko eta ekainerako eguraldia aurreratzen dute.

Hala, otsailaren 13a, eguztenea, egun haizetsua izan zenez, "apirila haizetsua izango da eta tenperatura epelein", esan zigun Joxe Landak. Otsailaren 15a eta 16a, egubakoitza eta zapatua, eguzkitsuak izan ziren; "hortaz, maiatz eta ekaina ezin hobeak izango dira". Aspalditik dugu euri falta eta tenporek diotena ikusita "lehorte arriskua" egongo dela uste du Joxe Landak.

ELURRA, UDAZKENETIK AURRERA

Azken egunotako giro epelarekin jarraituko dugu otsaila bukatu arte, "apenas egingo du euririk". Bainan neguan gaude eta elur garaia da. "Oraingo ez dut elur arriskurik ikusten; egingo du, bai, baina udazkenetik aurrera".

DATUA

4  
EGUN

Pello Zabalak emandako datuen arabera, azkeneko ilbetean lau egunean bakarrik egin du euria: urtarilaren 31n, otsailaren 1ean, 2an eta 3an. Lau egun haietan, guztira, 30 litro euri bildu ziren.



LORATUTA Eguraldi eguzkitsuarekin zuhaitzak loratuta daude.

M.B.

KONTRATENPORAK

Urteko lehen kontratenporak eguztenean bukatu ziren. Lainoa eta euria izan ziren nagusi eguztenean. Datu haien eskutan, Pello Zabalak zera dio: "Martxoan eguraldiak orain arte bez-

la jarraituko du, epel eta eguzkitsu. Bainan martxoaren 26tik aurrera dator aldaketa. Hortaz, apirila nahiko aldakorra izango da". Zabalaren ustez, gaur egun dugun eguraldia "normala" da garai honetarako.

EHIZA > LEGE BERRIAK

# Ehiza mugatzeko legearen aurkako manifestazioa

Ehiza Federazioak Madrilera joateko deialdia egin du, balarako ehiza elkarteen laguntzarekin

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Espaniako gobernuak ehiza mugatzeko esku artean dituen lege-proiektuen aurka protesta egiteko manifestazioa egingo da Madrilera, martxoaren 1ean. Beretara joateko deialdia egin du Gipuzkoako Ehiza Federazioak, eta autobusak antolatu ditu.

BAILARAKO HIRU ELKARTE

Debagoineneko ehiza elkartek bat egin dute federazioaren deialdiarekin. Hain zuzen, Oñatiako Pago-Uso, Bergarako Oilagorria eta Arrasateko Leintze elkartek manifestazioa joateko deialdia egin dute bazkideen artean. "Oraingo ez ditugu izen asko

jaso. Bainan domekara arte dago izena emateko aukera", esan zigun Pago Uso elkarteko ehiza arduradun Santi Arregik.

KONTRAPASA, DEBEKATUTA

PSOEko gobernuak esku artean dituen lege-proiektuek aurrera egiten badute, "ehiza asko murriztuko da", dio Ehiza Federazioak. Besteak beste, apeu-eper, kontrapasa eta untxi-ehiza debekatuko dituzte. "Une honetan, kos-

taldean kontrapasa garaia da, baina ehiztariek ezin dute ehizan egin, debekatuta dago", esan zigun Santi Arregik. Era berean, lege berriekin baserritarren lurra eta ehiza-esparruak administrazioaren esku geratuko liratene. "Hain asmoa da ehiza-esparruak zaintza erakundeentzat kudeatzea".

Gainera, ehiztarien ustez, "ehiza gaietan Europako legeriarik murriztaileena dugu; besteak beste, 17 ehiza arau ezberdin eta 17 debeku-agindu ditugu".

Edozelan ere, martxoaren 9an hauteskunde orokorrak daudela kontuan hartuta eta gobernuak aldatzen bada, "ez dakigu zer geratuko den PSOEren lege-proiektuekin".

> OSAKIDETZA

**%44,85eko  
jarraipena izan zuen  
grebak ospitalean**

ELA, LAB, CCOO, UGT, ESK eta SAEK sindikatuek atzoko deitutako grebak %44,85eko jarraipena izan zuen Debagoineneko ospitaleko langileen artean. Azken orduan, UTESE eta SATSE sindikatuek ez zuten bat egin deialdiarekin. Bestalde, balarako osasun zentroetan erizain eta mediku gehienek lan egin zuten. Hortaz, erabiltzaileengan eragin txikia izan zuen grebak.

Osakidetzak emandako datuen arabera, orokorrean, grebaren erantzuna %15,7 izan zen.

**AZKENeko PROPOSAMENA**

Atzoko greba deitu zuten sindikatuen ustez, "Osakidetzen azken proposamena berandu iritsi zen greba deialdia bertan behera uzteko". Osakidetzak eguztenean egindako agerraldian hauxe adierazi zuen: "Arazoari aurki emango diogu irtenbidea, guztion ahaleginarekin".

**R.ZABALA**

SAGARDOTEGIA



Garagartza baseria / ADUNA (Andoain eta Billabona artean)  
943 69 07 74

- Urtariletiak maiatz hasiera arte zabalik
- Ostiral, zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz
- Bertako janaria
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiaketetan, 2002an finalistak eta 2004an eta 2006an irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan
- "Tolare" sagardotegia



> DEIALDIA

**Bailaratik autobusa  
irtengo da EHeren  
manifestazioa**

Euskal Herrian Euskaraz elkartek martxoaren 1erako Ziburun (Lapurdi) deitu duen manifestazioa joateko autobusa irtengo da Debagoieneetik; hain zuzen, Arrasateko Garibai etorbideetik, 16:00etan. Manifestazioa joan gura dutenek ez dute izeña aldez aurretik eman behar.

*Herriz herri, Euskal Herri euskalduna eraiki lelopean "euskarra ofiziala eta lehenta-sunezkoa" izatea aldarrikatu gura dute. Era berean, herrietako bizi arlo guztiak euskaldundu behar direla uste du EHE elkartek.*

Gainera, euskara "beharrizko" dela diote, eta euskara teknikari postua "derrigorrezko" dela. Herriko aurrekontuetan %2 hizkuntza politikara bideratu behar dela aldarrikatuko dute Ziburun egingo den protesta ekitaldian.

kontsumoa



Produktuek egoera onean egon behar dute beti.

GOIENKARIA

## Kontsumitzaleak eskubideak ditu produktu bat erosterakoan

GOIENKARIA &gt; BERGARA

Kontsumitzaleak produktu bat erosio behar duenean produktu horren gaineko informazio osoa jakiteko eskubidea du, batez ere segurtasunari dagokionez. Horregatik, gomendagarria da kontsumitzaleak erosten duen produktu hori aztertzea: etiketa eta ontziratza ongi egina dagoen eta iraungipen data, egilearen datuak, prezioa... ego-kiak diren. Bide batez, kontsumitzaleak jakin behar du irregularatasunak dituen edozein ondasun higigarri konsidera daitekeela produktu akastun; hau da, bitxiak, altzariak, autoak, etxetresnak, tresna elektrikoak, janaria... Erosketa bat egitean kontsumitzaleak ikusten badu erositakoa ez dagoela egoera onean edo ez dituela aurrez aipatutakoak betetzen, produktu hori erositako dendan jakinarazi behar du, ondo dagoen beste produktu batengatik alda diezaiotenean; izan ere, denda behartuta dago gaizki dagoen produktu hori aldatzera.



### Etxebizitzaren zorraren igoera azken urteotako txikiiena da

Joan den urtean, Estatuko familien hipoteka-zorrak goia jo zuen eta 646.121 milioi euroa heldu zen. Hala eta guztiz ere, azken bost urteotako hazkundetik txikiiena izan da. Etxeko hipoteka-zorra 2003koan bikoiztu eta gainditu egin du. Orduan, 300.000 milioi euro zen. Horrela, familien zorraren hazkunde txikiak etxebizitzen prezioen jai-tsiera ekarri du. Etxebizitza askea 2007an %4,8 garestitu zen, 2.085,5 euro metro karratu bakoitzeko, azken urteotako txikiiena.



### Autoen batez besteko salneurriek %7 egin dute behera

Estatuan erositako auto bakoitzarengatik batez beste 20.255 euro gastatu ziren 2008ko urtarrilean zehar, aurreko urtean baino %7 gutxiago, kontzesionarioen patronalaren arabera. Hori guztia auto berriei ezarritako sustapenen gorakadagatik izan da: %16,6 igo ziren. Patronalaren arabera, urtarrilean autoen salneurriak egonkor mantendu ziren, auto markek lantegiko prezioetara moldatu baitzituzten prezioak, autoen salmenta igotzeko asmoz.

Mikel Lizarralde &gt; 'Berria'-ko zuzendariordea

# "Sinetsi nahi ez izan arren, azipetu guztiekin dakite espetxeen buka dezaketela"

ARANTZAZU EZKIBEL &gt; BERGARA

Mikel Lizarralde (Bergara, 1970) 2003an, *Egunkaria* itxi zutenean, egunkaiaren kultura sailean ari zen lanean. Eta orduan hona *Berria*-n egiten du lan; lehenengo, kultura sailean ibili zen eta azken hilabeteetan *Berriako* zuzendariordea da.

Bost urte pasa dira *Egunkaria* itxi zutenetik. Nola gogoratzen dituzu egun haiek?


Gerora errealitate bihurtuko zen amesgaitzo baten moduan gogoratzen dut 2003ko otsailaren 20a. Egun haiek intentsitate, urduritasun, haserre eta emozio egunak izan ziren. Hasieratik garbi izan genuen izugarrizko erasoak zela, euskalzko komunikabideak eta euskalgintza, oro har, jomugan jarri zituztela, eta horrek indarra eman zigun. Antolatu, lanak banatu, elkartsuna lortu eta hurrengo egunean berriro kioskoetan egotea lortu genuen. Baino egun gogorrak izan ziren, gure lankideen egoeraz ez genekielako ezer, eta horrek beldurra eragiten zigu-lako. Gero, beldur horiek baiez-tatu baino gehiago egin ziren. Martxelo Otamendik kartzelatik irten eta negarrari ezin eutsita tortura testigantza egin zuenean, beldurra barruraino sartu zitzagun.

Gizartearen erantzuna horren-bestearainokoa izango zela espero zenuten?

Nik uste dut *Egunkaria* ixteak erakutsi zuela gizarteak bere kontrako eraso gisa hartu zuela operazioa. Donostiarriko manifestazioan lankideei begiratu eta malkoak ikusten nituen haien begietan. Egun haiek telefonoari lotuta eman nituen eta esan dezaket izugarrizko elkar-tasuna sentitu nuela. Gizartean, orokorrean, eta baita hainbat sektoretan ere.

Bost urte igaro eta gero, zein da gaur egungo egoera?

Bost urte igaro eta gero, badi-rudi *Egunkaria* auziko bi epaike-tak laster egingo dituztela Madrilgo Auzitegi Nazionalean. Sumario nagusian, fiskalak kasua artibatzeko eskatu du, ez duelako inolako delitu zantzurik iku-si, baina akusazio partikularrek (AVT eta Dignidad y Justicia) eskatuta, epaiaketa egin egingo da. Eta auzi ekonomikoari dagokio-nez, Gipuzkoako Ogasunak esan du ez zela inolako delituri egin, baina hori ere epaitu egingo dute. Berez, hor ez dago terrorismo inputaziorik, eta ondorioz Gipuzkoan egin beharko litzateke epai-keta. Baina Auzitegi Nazionalean egingo da. Eta *Egunkaria*-ko langile huts izan ziren lankide batzuentzat hogeitik gorako espetxe zigorra eskatzen dute!



Mikel Lizarralde, Goiena Telebistan, egunean.

A.E.

**"Gizarteak bere kontrako eraso gisa hartu zuen 'Egunkaria' ixtea"**

**"Fiskalak kasua artxibatzeko eskatu du, baina akusazio partikularrak ez"**

**"Oraindik ere lan handia egin behar dugu azipetuek gizartearen babes jaso dezaten"**

**Non kokatuko zenuke orain dela bost urte gertatuko?**

Ez naiz ausartzen analisi politikoa egitera, baina euskalgintzak hainbat eraso jasan zituen garai hartan eta *Egunkaria*-ren kontrakoak ere hor kokatzen dut nik. Nahiz eta, beharbada, erasorrik gogorrena hori bera izan zen.

**12 azipetu egin dira. Zein da haien egoera?**

Epaiketaren zain daude. Badi-rudi laster egingo direla, nahiz eta oraindik ez dakigun noiz eta zein ordenatan egingo diren epai-

keta. 12 eta 26 urte bitarteko espetxe zigorrak eskatzen ditutte Joan Mari Torrealde, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Pello Zubiria, Xabier Oleaga, Xabier Alegria, Joxe Mari Sors, Ainhoa Albisu, Mikel Sorozabal, Begoña Zubelzu eta Fernando Furundarenarentzat. Eta, aurrekariak ikusita, okerrena espero dezakegu. Nik uste dut sinetsi nahi ez izan arren, guztiekin badakitela espetxe-an buka dezaketela.

**Zein izan da zuen jarrera azipetuekiko? Ze ekintza edo ze elkartasun mota erakutsi diezue?**

Kultura, kirol eta politika esparruetako kideek babes taldea osatu dute eta herrikin herri ere lanean hasi dira berriro herri batzordeak. Azken batean, orain dela bost urte amesgaitzo bat hasi zen, baina oraindik ez da bukatu. Oraindik ere lan handia egin behar dugu azipetuek gizartearen babes jaso dezaten.

**Zer gehiago egin dezakete era-kundeek eta alderdiek horre-lakorik berriro ez gertatzeko?**

Txema Auzmendik zioen beharbada ordua dela desobedientzia zibilera deitzekoa.

SAHARAR ERREPUBLIKA &gt; 32. URTEURRENA

# Saharar Errepublikaren aldeko jaia ospatuko dute Eskoriatzan

Otsailaren 27an ospatuko da Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren 32. urtemuga

Ekitaldi nagusia martxoaren 1ean egingo dute, Eskoriatzan, eta EAE mailako jaia izango da

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA  
Otsailaren 27an beteko dira 32 urte Fronte Polisarioak Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (RASD) sortu zuela. Hori dela eta, saharar herriaren aldeko elkartek hainbat ospakizun antolatu dituzte datozen egunetarako. Ekitaldion helburua, urteurrena ospatzeaz gain, saharar herriak bizi duen egoera salatzea ere izango da. Hala adierazi digute Otsailak 27 koordinadoratik.

## Urteurreneko ekitaldiak

### Otsailak 24, Aretxabaleta

11:00 Krosean parte hartuko dutenen izenematea.

### Otsailak 25, Tindouf

Sahara Maraton ekimena Tindoufen

### Otsailak 27

32. urtemuga eguna.

### Martxoak 1, Eskoriatza

11:00 Eskoriatzako plazan musika, tea eta argazki erakusketa.

13:00 Hitzaldia plazan

14:30 Bazkaria pilotalekuaren

Otsailak 27 koordinadorak EAE lan egiten du eta bere barruan hainbat elkartea hartzten ditu: besteak beste, Arrasateko Nubi eta Aretxabaletako Iesbaa.

**EKITALDI OROKORRA**  
Datozen egunetarako antolatu dituzten ekitaldiak ibarreko hainbat herritan egingo dira, eta, era berean, erkidego mailakoak izango dira.

Hala, ekitaldi nagusia Eskoriatzan egingo dute martxoaren 1ean. Han batuko dira Otsailak 27 koordinadora-kо elkar-te guztiak. "Orain arte ez da Eskoriatzan horrelako ekitaldirik antolatu; hala, Gasteiz ondoan dagoela kontuan hartuta, leku aproposa dela pentsatu dugu. Modu horretan, Gasteizen bizi diren sahararrek

garraio publikoan etortzeko aukera izango dute", adierazi digute koordinadoratik.

### BAZKARIA PILOTALEKUAN

Goizeko 11etan hasiko dute festa Eskoriatzan. Saharar musika, tea eta argazki erakusketa egongo dira herriko kaleetan. Baita Zaki magoaren erakustaldia ere. Mago hori saharar gatazkarekin sentsibilizatua dago eta hainbat alditan egon da Saharan, bertako haurrentzat ikuskizunak egiten. Gero, 13:00etan hitzaldia egin-

go dute plazan, eta, azkenik, herriko pilotalekuaren bazkaria egongo da.

Bazkarirako txartelak (10 euro) edozein elkartetan edo Eskoriatzako Azkoagaenea hotelean erosia ahal dira. "Herri-zabaldu-tako" festa dela gogoratu gura izan dute koordinadoratik.

Gainera, aste bukaera honetarako ere antolatu dituzte ekitaldiak: otsailaren 24an, domekan, herri krosa egingo dute Aretxabaletako kaleetan. Lasterketa 12etan izango da, baina izenematea 11etan irekiko dute. Partehartzale bakoitzak 3 euro ordaindu beharko du izena ematekoan.

Durana kalean hasi eta bukatuko da krosa. Tartean, Andra Mari auzoa eta Basabe poligonoa pasako dute.

Bestalde, astelehenean, hilaren 25ean, Saharar maraton izeneko ekimena ospatuko dute Tindoufen.

Ekitaldi hori ekin guztiekin, saharar herria gogoan eduki gura dute ekimenen bultzatzaileek eta, bide batez, elkartasuna adierazi ere bai.

ZERBITZUAK

## Erditze naturaleko gela jarriko dute gurean

Arrasaten egingo duten ospitale berrian jarriko dute gela berri hori

J.Z. > BERGARA  
Blanca Roncal PSE-EEko legebiltzarkideak aditzera eman duenez, Arrasaten eta Bilbao ezkerdean egin behar dituzten ospitale berrieta erditze naturala egin ahal izateko gelak jarriko dituzte. Hala, erditze naturalerako gela bereziak izango dituzten Osakidetzako lehenengo ospitaleak izango dira Arrasateko eta Bizkaikoa.

**EMAKUMEA PROTAGONISTA**  
Modu horretan, eta Blanca Roncalek esandakoaren arabera, benetako protagonista emakumea izango da. Gaur egun, emakume bakoitzak bi edo hiru ume bestetik ez du izaten. Sala berezi horiek, erditze momentuan emakumearen protagonismoa bultzatu gura da, eta ez, orain arte bezala, medikuarena. Erditze naturalarekin, alde batetik, erditze momentua bigundu gura da eta, bestetik, erditze momentua gehiegizko botikak gutxitu nahi dira. Gela horietan, gainera, emakumeak berak nahi duen pertsonez inguraturik egoteko aukera izango du.

Gurean, ospitale berria egin arte itxaron beharko dute emakumeek aukera horretaz gozatzeko. Ordura arte, baina, Osakidetzako langileek egoera berrira egokitu beharko dute.

> GARRAIOA  
**Ez dute autobusa ordainduko 10 urtetik beherako haurrek**

Hamar urte baino gutxiago duten haurrek ez dute ezer ordaindu beharko autobusa erabiltzen dutenean. Txartel bakarreko sisteman sartuta dauden autobus lineatarako hartuko dute neurria. Honezkero ume horiek dohainik egin beharko lituzkete autobusetako bidaia, baina zuhurtasunez jokatu nahi izan du Aldundiak, erabilera arduratsua lortzeko eta segurtasun neurrieta arazorik ez dadila egon ziurtatzeko.

Hori guztia, baina datoren urriaren lehendaburu sartuko da indarrean. Hala eta guztiz ere, esandako data aurreratu egin daiteke funtzionamendua egokia bada.

OGASUNA &gt; UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FONDODA

## Ibarrak 37,1 milioi jasoko ditu 2007ko Udal Finantzaketarako Foru Fondotik

Aurreikuspenetan, 33,8 milioi egokitzentzitzaion Debagoienari; uste baino %10,33 gehiago jasoko du

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA  
Debagoineneko udalek 37.147.463,4 milioi euro jasoko dituzte aurren 2007ko zergatik. Kopuru hori Foru Aldundiako Ogasun Sailak aurreikusita zeukan baino 3,324 milioi handiagoa da; 33.823.086,5 milioi aurreikusita ziren.

Diputatuaren Kontseiluak joanden egunen, hilak 14, onartu zuen Udalaren Finantzaketarako Foru Fondoaren 2007ko likidazioa, 424.109 mila euro. Zenbateko horretatik, %99,85 udalei dago kie eta %0,15, Eudeli. Hain zuzen, hilaren 25ean ordainduko diote udal bakoitzari dagokion dirua.

**GIPUZKOARAKO, 423,4 MILIOI**  
Batez beste Debagoieneko udalek jasoko duten kopurua %10,33 igo da aurreikusitakoarekiko; Gipuzkoako batez bestekoa %7,61 da. Gipuzkoarako, 393.537.178,12 euro zeuden aurreikusita, eta, likida-

zioa egin eta gero, 423.472.756,62 euro dagokio; aurreikusi baino 29.935.578,5 euro gehiago jasoko dute, denetara, Gipuzkoako udalek. Donostia, adibidez, 117.241.352,19 euro jasoko ditu, aurreikusi baino %4,66 gehiago.

Iaz, bai udalek eta bai Eudelek Udalaren Finantzaketarako Foru Fondoaren konturako ordainketak jaso zituzten, 394.097 mila eurokoak. Ondorioz, likidazioak Gipuzkoako udalen aldeko saldoa eman du, 30.012.000 eurokoak. Zenbateko horretatik, 29.936.000 euro udalei dagozkie eta 76.000, Eudeli.

### Herririk herri

HERRIA	ZENBATEKOA*	IGOERA
Arrasate	13.482,9	(%9,7)
Bergara	8.995,1	(%9,2)
Oñati	6.481,1	(%9,5)
Aretxabaleta	3.756,6	(%10,9)
Eskoriatza	2.332	(%11,1)
Antzuola	1.223,3	(%11,4)
Elgeta	645,5	(%8,5)
Leintz Gatzaga	230,4	(%12,19)
<b>Guztira</b>	<b>37.147,4</b>	

\* MILA EUROTAN

ITURRIA: GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



## gure artekoak

**AUDI A4** > Audi etxeak urrian merkaturatu zuen Audi A4 berria. Maila handiko autoa da. Oraingo berrikuntzakin, gainera, irudi deportiboagoa lortu gura izan da. Tomas Muñozek erakutsi digu autoa.

**Tomas Muñoz** > Udalaitz etxeko salmenta arduraduna

## "Barneko aldean espazio handiagoa du auto berriak"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

"Diseinu berritzalea du Audi A4 autoak; diseinu aldetik, asko zaindutako autoa da. Hala, diseinu deportiboagoa lortu gura izan da", esan du Tomas Muñozek, Udalaitz etxeko salmenta arduradunak.

Hilabete gutxi daramatza auto berriak merkatuan; hain zuzen ere, urrian merkaturatu zuten. Maila handiko automobilak da, *premium* gamakoa. Hala, autoa nori zuzendua dagoen galdeztuta, hauxe esan digu Muñozek: "Batez beste 40 urte ingurukoek erosten dute".

### BEDERATZI MOTOR AUKERAN

Audi A4 autoak bederatziz motor aukera eskaintzen ditu, gasolinazkoak eta dieselezkoak kontuan hartuta. Horrez gainera, trakzioari dagokionez ere bi aukera eskaintzen ditu: aurreko trakzia edo lau gurpileko trakzia. Aldaketa-kaxa automatikoa ere eskaintzen du: *multitronic* sistema, zazpi edo zortzi abiadurakoa.

### BARNEALDEKO ESPAZIO HANDIA

"Ardatzaren eta gurpilen arteko distantzia handitzearen ondorioz, autoak barnealdeko espazioan nabari irabazi du. Orain, leku handiagoa geratzen da auto



Tomas Muñoz, Udalaitz etxeko saltokian, auto berriarekin.

A.E.

### Audi A4 2.0 TDI 143 ZP DPF

Prezioa	31.220 euro
Luzera	4,70 metro
Zabalera	1,82 metro
Maletategia	480 litro <sup>(1)</sup>
Kontsumoa	5,5 litro /100 km <sup>(2)</sup>
Abiadura	215 km/h <sup>(3)</sup>
Otik 100era	9,4 seg.
CO2 isurketak	144 g/km

(1) Gehienezko edukiera  
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barruko eta errepidekoak kontuan hartuta  
(3) Gehienezko abiadura

barruan", esan du Muñozek autoaren beste berezitasun bat aipatzean. Gainera du autoa bost lagunentzako eginda dagoela.

Autoak barnealdean dituen mando guztiak gidariari begira ditu, segurtasuna bermatu guran. Gainera, merkatuko segurtasun sistema guztiak ditu Audi A4ak; bai pasiboa eta bai aktiboa. Aipagarriena, baina, Audi Drive Select sistema da: sistema berri horrekin, autoaren esekidura, motorra, aldaketa-kaxa eta beste hainbat osagari gidariaren gustuetara jarri edo molda daitezke.

## begi-bistan



### Espaloia garbitzeko makina (Bergara) 2008/02/19

Argazkia: Mireia Blkuña.  
Testua: Mireia Blkuña.

Irizar pasealekuko bi espaloia garbitu dituzte asteon. Presiozko ur beroa erabiltzen duen makinarekin espaloiko zikinka guztiek kendu dituzte. Orain, jatorrizko kolorea dute espaloiek.

**Har ezazu parte:**  
Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera:  
goienkaria@goiena.com

## etxeko leihotik



Iban Arantzabal > Goienako ikus-entzuneko zuzendaria

## Huelga edo greba egiten dugu Debagoienean?

Gaztelarazko *huelga* berbatik hartuta erabiltzen dut nik huelga. Frantsesez, berriz, *grève* erabiltzen dute eta hortik greba. Bai, *lanuztea* ere agertzen da hiztegietai eta aurreko astean horixe egin nuen, lana laga. Gutxiago gustatzen zait, hala ere, *lanuztea*, besteak beste, lanik ez dutenek ere huelga egiten dute-eta.

Eztabaida horixe xaxatu dut sarean eta 20 erantzunetik gora jaso. Bi posta zerrenda bizitan galdera egiteak lagundu du, baina baita oraindik gainditu barik dugun eztabaida hor egoteak ere.

Funtsean zera galdetzen da: Tokiko Euskara Batua erabiliko dugu edo Eskiulan zein Angiozarren balioko lukeen euskara batua?

Nik ez daukat dudarik, Tokiko Euskara Batuaren aldeko naiz eta, gainera, hori ere bada euskara batua, nik dakidala. Afektiboa ere bada eta efektiboa ere bai, horrenbestez. Hau esanda, argi dago Baionan greba erabiliko nukeela, baina Debagoienean, horrenbeste *pairatzen* dugun lekuak, hobeto *jasan*, *sufritu* edo *aguantatu* erabiltzea. Gaia gustuko baduzu informazio osatuagoa blogean. Zure erantzunen zain, zelan ez.

### > Leire Narbaiza:

"Huelga bezain erdedunada da greba. Zuzenian auzo erderatik hartuta. Hiztegi batuan ez dator huelga, baiña normala da gure artian. GOIENKARIAn eta batuan nere eritzixan egokixa".

### > Serafin Basauri:

"Euskara batuaren alde gare, baina eibartarrondako "huelga" edo "uelga" berbiak daukan tradiziñua kontuan, "greba" berbia guztiz postizua da baita GOIENKARIArako be".

## izen propioak



Josu Uribe  
ENTRENATZAILEA



Kerman Azkarraga  
FUTBOL JOKALARIA



Ritar Fernandez  
KORRIKALARIA

Alaves taldeko entrenatzaile ohiak martitzenean agurtu zituen Gasteizko taldeko jokalariek.

Otsailaren 17an Cadizien aurka galdu ondoren, Alaves futbol taldeko zuzendaritzat batzordeak kargutik kendu zuen aita aretxabaletarra duen entrenatzailea.

Hirugarren mailako Elgoibar futbol taldeko jokalari arrasatearra amateur mailako Euskadi selekzioko kapitaina da. Asturiasen aurkako joan-etorriko kanporaketa gainditu ondoren, Euskadi selekzioa azken faserako sailkatu da.

Seigarren tokian bukatu zuen korrikalari oñatiarrak domekako Zamudioko krosa. 500 korrikalari inguru bildu ziren, eta azkarrena Dali El Miludi marokoarra izan zen. Maratoian Europako errekorra duen Fabian Roncero laugarrena izan zen.

Aretxabaletako PSE-EEko zinegotzia da Ainhoa Sagarribai. Familia sozialistakoa, aita aurre-

ko bi agintalditan zinegotzi izan zen eta oraingoan ere bada, eta aurreko udal hauteskundeeta-

ra ama ere aurkeztu zen. Sagarribaiak azken egunotako gertakarien gaineko iritzia eman

digu, baita datorren martxoaren 9an izango diren hauteskundeen gainekoa ere.

[Ainhoa Sagarribai > PSE-EEko Aretxabaletako zinegotzia](#)

# "Ezker abertzaleak ausarta izan behar du, eta aurrerapausoa eman"

JASONE ZABALA > ARETXABAleta  
Ainhoa Sagarribai aretxabaletarra da. Bertako PSE-EE alderdiko zinegotzia da. Oraingo egoera mantentzen bada, zaila ikusten du Euskal Herriarentzat bakea lortzea. Hauteskundeetan Zapaterok irabazteko aukera gehiago dituela ere adierazi digu.

Azken egunotako gertakariak ugariak izan dira: EHAK eta EAEren jardueren etetea, joan den otsailaren 14ko greba orokorra... Nola ikusten duzu egoera?

Badago egon denok bete behar dugun Alderdien Lege bat, eta batzuek ez dute betetzen. EAE duela gutxira arte sigla historiko eta demokratikoak ziren, baina orain Batasunak bahitutu ditu. Nire ustez, bai EAE eta baita EHAK sigla historikoak Batasunak lapurtu ditu. Batasuna *okupa* bezala portatzen ari da. Orain arte ezker nazionalismoarentzat erreferente historikoa izan den alderdi baten *okupa* bezala. Bere garaian, errepublikar legalitatearekin komprometitua izan zen EAE alderdia.

Inkestek diote hauteskundeei begira gauzak nahiko estu daudela PSOEren eta PPren artean. Zapatero nagusituko dela uste duzu?

PSOEk PPrekiko duen abantaila boto asmoari dagokionez, Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) dioenaren arabera, puntu eta erdian dago. Baino egia da, baita ere, zuzeneko boto asmoan PSOE hamar puntu dagoela PPren gainetik. Zentroaren inkestara mugatzen bagara, eta herriarrek diotenaren arabera, Zapatero gobernuaren buru den neurrian bere kudeaketa ontzat hartzen du %5,36ak, eta Rajoyri, bere oposizio lanean suspentsoa ematen diote %3,95arekin. Zentroak dioenarekin jarraituz, gobernuko presidenteera izateko %50,4k nahiago dute Zapatero, eta Rajoy, berriz, %26,2k dute nahiago. Konfiantzari dagokionez, %41,1i Zapaterok ematen die konfiantza eta Rajoyrengan, berriz, %21,4k jartzen dute konfiantza. Gainera, %74,5entzat Rajoy ez da konfiantzazko gizona. Beraz, datuak hor daude, eta argi erakusten digute Zapatero inkestetan, behintzat, jendearen gustuko dela eta oraingo hauteskundeetan berriro ere gobernuko presidenteera izateko aukera asko dituela.



Irudian, Aretxabaletako PSE-EEko zinegotzi Ainhoa Sagarribai.

MIRARI ALTUBE

## AZKEN EGUNOTAKO GERTAKARIAK

**"Badago egon denok bete behar dugun Alderdien Lege bat, eta batzuek ez dute betetzen"**

Kosovoren independentzia albiste da egunotan. Jaurlaritzak eredu moduan ipini du prozesua, eta, Europako Batasuneko herrialde gehienetan babesa jaso badu ere, Espainia aurka agertu da. Zein da zure iritzia horren aurrean?

EAEen ez dago etnia arazorik,

## INDEPENDENTZIA

**"Euskal gizartea ez da erkidego etnikoa, pertsona eta ideia ezberdinak dauzka"**

ezta erlijioarekin lotutako arazik ere. Hemen, argi eta garbi, terrorismo arazo gogor eta krudela besterik ez dago. Euskadi ez da Kosovo, ez dugu nazio etniko bat izan nahi.

Euskal gizartea ez dator ez gerra batetik ezta genozidio batetik ere, eta ez du jasan izan arma-

## PSE-EE ALDERDIAREN MEZUA

**"Euskaldunentzat ere ez da berdina Zapaterok edo Rajoyk agintzea. Gipuzkoa ez da eskumakoa"**

da inbaditzaile batengatik; euskal gizartea ez da erkidego etnikoa, pertsona eta ideia ezberdinak dauzka. Gizarte plural eta anitztza da gurea. Horregatik guztiagatik, guztiz zentzugabeak iruditzen zaizkigu Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Miren Azkaratek esandakoak.

PSE-EEk proposatu du hauteskundeen ondoren "euskaritun bat" egitea hemen. Hori nola lor daiteke?

Euskadik behar duena giza oinarri zabala izango duen itun bat da, zeharkako konfigurazioarekin, euskaldunen arteko adiskidetasun eta bizikidetasunean aurrera jarraituko duena.

PSE-EEko idatzari nagusi Patxi Lopezek honakoa esan du: "Euskadin ez dago ideia bat bera ere legez kanporaturik", ados al zaude?

Bai, horrelaxe da.

Ezker abertzalearen jarduerak etenda edo legez kanporatuta daude. Ez al doa hori politika egitearen aurka eta bake eta normalizazio politikoaren aurka?

Ez. Demokraziak denok bete behar ditugun joko arau batzuk ditu. Zuzenbidezko estatuan, ez dute lekuak demokraziaren eta giza eskubideen kontra doazen erakundeek, eta ezta indarkeria babesten dutenek ere.

Zuk uste duzu PSE-EEk, Batasunak eta EAJK Loiolan egin zituzten elkarritzeta saioak bertan behera geratu ondoren, dagoeneko ez dagoela elkar ulertzeko modurik?

Ezker abertzaleak aurrerapausoa eman behar du, eta behin-behantza ausarta izan eta betiko ETA-ren garrantzi libratu.

Euskaldunen arteko elkar ulertzeari lortzeko, denok baldintza beretan egon behar dugu, eta Euskal Herrian etorkizunean bakean eta elkarrekin bizitzeko negoziatzera prest dagoen inor ezin daiteke indarkeria erabilten duten menpean egon. Euskaldunen arteko elkar ulertzeari lortzeko, zuzenbidezko estatuan ezartzen dituen arauak onartu behar ditugu denok.

Zein da PSE-EEren mezua datozten martxoaren 9ko hauteskundeetarako?

Estatuan gertatzen den berdin, euskaldunentzat ere ez dela berdina Zapaterok edo Rajoyk agintzea. Gipuzkoa ez da eskumakoa.

Beste bake prozesu bat posible ikusten duzu datorren legealdian?

Gaur egun ez dago inongo aukerarik halako prozesurik zabaltzeko, zaila ikusten dut.



zabalik

Diego Martiartu

## Bart amets egin dut...

**B**art amets egin dut ametsetan nengoela amets bat non, aldi berean, beste amets bat amesten nengoena... eta hola infinituraino...

Bart amets egin dut Iñaki Azkuna preso eraman zutela funts publikoak Salba Ditzagun Kontainerrak GKera gauekotasun eta maltzurkeriaz desbideratzeagatik.

Bart amets egin dut bertan behera gelditu direla bai alderdien legea bai alderdiak bai legeak.

Bart amets egin dut Miren Azkaratek Oscarra jaso duela, *Friday the 13th* sagako azken filmean Jasonen amaren rola jokatzeagatik.

I have a dream, Antonio Pagolaren irakaskizunetan oinarritzen den Euskal Herri independente teokratiko filoanarkista batean bizi naizela, eta eliza eta ermita guztia spa bainuetxe bilakatu direla.

Bart amets egin dut ETAko zenbait kide ohik paintball-ean egiteko jolastoki erraldoi bat ireki berri dutela Bardeako basamortu askean, Jonan Fernandezin zuzendaritzapean.

Bart amets egin dut izan zela Lizartzan alkatesa bat zeinaren izeña inork ere ez duen gogoratzan.

Bart amets egin dut Audientzia Nazionala, epaile eta guzti, klima aldaketak eragindako tornado batek irentsi zuela.

Bart amets egin dut Publio Cordonek, Amazonas aldeko zokoren batetik, bere familiartekoei postala bidali ziela: ederto dagoela eta uzteko bakean.

Bart amets egin dut The Kelly Familyk Iruñean emandako kontzertu batean Miguel Sanzek eta Yolanda Barcinak *Agur Jauna*-k abestia dantzatu zutela.

Baina bart gauean, tamalez, iratzartu egin naiz. Irratia ixotu eta berehala ohartu naiz amets ederrak amets eder direla eta amesgaizto makurrak, berriz, amesgaizto makur, lotan nahiz esna: Maria Antonia Iglesias zebilen berbeteran.

**"Bart amets egin dut bertan behera geratu dela alderdien legea"**

**"Bart amets egin dut Audientzia Nazionala, epaile eta guzti, tornado batek irentsi duela"**

## Goienkaria

**Argiraratzalea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailentako arduradunak** Leire Kortabarria (Herrrik), Aitziber Aranburu (Giza), Xabi Urtezai (Kirola), Alex Azkarate (Oiseinra), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larraitz Zeberio, Arritxu Barruso, Jasoene Zabala, Mireia Biuria, Arantza Ezkibel, Irati Agirrezailez **Oinarrizko diseinua** Goi Arana **Maketaia** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifran, Zuriel Martin, Iñaki Berezi, Fausto Berazadi **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzaran, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa.

**EGOITIA NAGUSIA**

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Posta-e: goienkaria@goienna.com

**ORDEZKARITZAK**

**ARRASATE** 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00

Posta-e: arrasate@goienna.com

**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goienna.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09

Posta-e: publi@goienna.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goienna.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

LAGUNTAZIAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiako  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## herritarra galdezka

ELORREGIKO UDAL PILOTALEKUA ALOKATZEKO ZER EGIN?

**Irakurle batek Elorregiko (San Prudentzioko) udal pilotalekua erabili nahi du, eta esan diote urte osoko erreserba egin behar duela. Hori halda den jakin nahi du.**

Erantzunaren bila Agorrosin Ekintza Gunera jo dugu eta han azaldu digute gauzak ez direla irakurleak uste bezala. Hain justu, hileko erreserbak egin daitezke udal pilotaleku guztietan. Horretarako, Agorrosinera jo eta nahi den hilabeterako erreserba egitea besterik ez dago. Prezioari dagokionez, aldatu egiten da pilotalekuaren arabera -ez dira aldatu nabarmenak-. Irakurleak Elorregikoaren gainean galdetu duenez, hango prezioak emango dizkiogu: Agorrosino abonatuendako 10,50 euro argindar barik eta 14,50 argindarrarekin; ez abonatuak, berriz, 12,25 ordainduko dute argindar barik eta 16,75 argindarrarekin. Prezio horien barruan erabiltzaileak jokatu ahalko du hil osoan, astean ordubetez. Tasok ordaindu beharko dira erreserba egiten den unean.

Bestalde, abonatuak erreserbak astebele lehenago egiteko aukera izango du; eta bestelako era-biltzaileek, berriz, bi egun natural lehenago.

'OINEZ DEBAGOIENA' IBARREKO IBILALDIEN LIBURUA

**Irakurle batek galdu digu ea dagoeneko salgai dagoen eta non eskura dezakeen Debagoieneko**

### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratura bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoikionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goienna.com

**Mankomunitateak kaleratu berri duen Oinez Debagoiena ibilbide liburua.**

Mankomunitateko ordezkarien aurreko astean aurkeztu zuten gida hori, eta, hantxe esan zuten moduan, dagoeneko salgai dago, ibarreko hainbat liburu dendetan. Salgai dago: Bergarako Elkar denda; Arrasateko Elkar eta Narki denda; eta Oñatioko Aritz, Ibarroko, Hirukar eta Arantza-zuko santutegiko denda. Asteon banaketarekin jarraitu dute eta beste hainbat herritarra liburu dendetara eroango dituzte.

Prezioari dagokionez, 14 euro balio du eta liburuarekin batera mapa bat ere banatzen dute. Ibilbide gidaren 3.000 ale kaleratu dituzte, horietatik 1.500 euskaraz, eta beste horrenbeste erdaraz.

*Oinez Debagoiena* gidat Debagoieneko herri guztietako 21 mendi ibilaldi batzen ditu. Guztiek adierazita daude eta Gipuzkoako Mendi Federazioak homologatutakoak dira. Bestalde, mendi ibilbideok aukeratu ditu Mankomunitateak herri bakoitzeko era-gile eta elkarteen iritzia jaso eta gero.

## marrakiz

Alex Ugalde



## Ametsa amesgaizto

Juan Luis Zabala  
[www.berria.info/blogak/zabala](http://www.berria.info/blogak/zabala)

**Z**urrara eragin didate Belen Mijangos kazetariaren hitz hauek (Gotzon Hermosilla Berria-ren *Igandea* gehigarrian egin zion elkarrizketatik hartuak): "El Tubo aldzikariaren arrakastak jan egin gintuen. Egunero hainbat diskoteketan deitzen ziguten, beren taldeak ateratzeko eskatuz, eta guk

erantzuten genien ez geundela inoren menpean eta nahi genuena aterako genuela. Hainbat taldek ere pentsatzen zuten eskubidea zutela guri gauzak exijitzeko. Gero eta orrialde gehiago genituen, gero eta artikulu gehiago gero eta letra txikiagoarekin, ahalik eta gehiena atera ahal izateko, eta guk gero eta lo ordu gutxiago egin eta gero eta gutxiago jaten genuen. Zure ametsa amesgaizto bilakatzen ari dela ikusten duzunean, gelditzeko garaia heldu dela konturatzen zara".

Xehetasun batzuetan oso bestelako da gure lana eta gure egoera, baina Berria-ko

kultura arloko kazetarioi ez zaigu arrotza Belen Mijangosek horren ederki deskribatzen duen itomen etsigarri hori.

Atera ez ditugun edo behar bezala atera ez ditugun berrien zama bizkar gainean dugula egiten dugu askotan lantokitik etxerako bidea.

## Euskal porrota

Luis Aranberri 'Amatiño'  
[eibar.org/blogak/amatinio](http://eibar.org/blogak/amatinio)

**A**zken egunotan berriro hasi gara entzuten Espainia eta Euskadiren

## plazara

Norbere oreka pertsonala lor-teza, bizitzan norbere buruarekin eta ingurukoekin harreman onak eta aberasgarriak izatea eta geu-

re baitako aberastasun eta altxor horiek garatuz zoriontsu izatea. Nork ez du hori guztia nahi? Arantzazu Loidi aretxabaletarrak gara-


pen pertsonalaren garrantzia dihardu lerroootan eta prozesu horretan murgiltzera gonbida-tzen du irakurlea.

### Arantzazu Loidi \*

# Garapenaren abentura

Zer da garapen pertsonala? galdu didate. Neure esperimentzia pertsonalean egindako ibilbideetik eta ezagutzen dudan ikuspegiak eta metodologiak erakusten duen bidetik eta ikuspuntutik erantzuten saiatuko naiz. Personalidad y Relaciones Humanas-PRH Formazio Eskolako hezitzailea naiz, halentzako psikopedagogia experimentatu bat garatu duen nazioarteko eskolako formatzailea. Gure lana helduen garapenera eta hazkuntzara dago zuzendurik, pertsonaren nortasunari buruzko ikuspegia baikor batean oinarriturik eta metodologia zehatz batekin, mundu guztiko pertsonenkin berrogei urtetik gorako ikerketa psikopedagogikoarekin.

Erakunde eta psikopedagogia honen sortzaile André Rochais pedagogo frantziarrak, galdera bat erabili zuen buruan 18 urtez, aurreko mendeko 60ko hamarkadan helduekin egiten zuen lanean: "Non ukitu behar zaio pertsonari bere garapena abiarazi eta haren baitan ordena jartzeko?". Carl Rogers-en hitz batzuek esnatu zioten erantzuna: "Pertsonaren izatea positiboa da sakonean", zioen Rogers-ek. Eta bai, positibo horretan ukitu behar zaio garatu eta izatera irits dadin. Izan ere, pertsona ororen baitan, hazi eta garatzeko berezko joera dago, bizi osorako bilakaerarako eta norbere gaitasunak praktikan jartzeko sena. Rochais-ek esaten zuen, irudikatu ere egiten ez dugun altxor pila handi baten gainean lo bizi garela. "Zer izatera irits ote gitezke altxor hori guztia eza-gutu, garatu eta norbere buruaren eta gizartearren onerako jarrita...!"



MIKEL ARROIAK

Esan gabe doa ezer garatzeko, lehenik eta behin ezagutu egin behar dela, eta norbere izate hori osotasunean garatu eta bizi izatera iristeko bideari deitzten diogu hazkuntza prozesua edo haztea. Bizi guztian zehar iraungo duen ibilbidea, etengabe baikaude aldatzen eta bilakaera.

Baina hazi esaten dugunean, zertan hazi? Norbere nortasunaren ezagutza erreals, zabal eta sakonean. Norbere nortasunaren elementu ezberdinak eta errealitye bakotza sakon ezagutuz.

Bestalde, askatasunean eta autonomian ere hazi, norbere buruaren eta besteren aurrean libre izatera eta pertsona bezala

**"Pertsona ororen baitan hazi eta garatzeko berezko joera dago, bizi osorako bilakaerarako joera"**

**"Norbere izatea zenbat eta sendoago, orduan eta tingoago erantzungs dugu bizitzaren zaitasunen aurrean"**

eraikitzen gaituzten gauzak aukeratzeko gaitasuna eskuratzera iristeko.

Sendotasunean hazi. Norbere izatea zenbat eta sendoago, orduan eta oinarri handiagoarekin eta tingoago erantzungs dugu bizitzak berarekin dakartzan zailtasun eta eragozpenen aurrean. Sustrai sendoz haizete eta ekaitzari aurre egiten dion zuhaitzak bezala.

Heldutasun afektiboan ere hazi: maitatzeko gaitasuna gartuta eta hori eragozten duten mugimendu egozentrikoen morrontzatik libre izatera iritsi arte.

PRH metodologiarekin ikus-puntutik, bide hori egiteko oso lagunarririk eta ia ezinbesteko da jarrera egoki batzuetan oinarriturik bizi izatea eta baliabide eta bitarteko-sorta zabala eta era-ginkorra eskaintzen dugu, eta baita laguntza-tresna horiek era-biltzoko modu egituratu eta metodikoa ere, pertsonak garapen bide hori modu eraginkor eta natural batean egin dezan.

Helburua eta emaitza zein den? Norbere oreka pertsonala, bizitzan norbere buruarekin eta ingurukoekin harreman onak eta aberasgarriak izatea eta geure baitako aberastasun edo altxor horiek garatuz zoriontsu izan eta gizateria eraikitzeo geure hondar-aletxoa eskaintza.

Prozesu hori abentura bat da, eta abentura den aldetik, oso pertsonala. Jaso beharreko ikasgai bat ez baina, bizi beharreko abentura da. Ausartu probatzen...

\*Arantzazu Loidi, PRH formatzailea

## zer deritzozu?

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Gustuko duzu Mundumira jaialdia?

BAI	%100
EZ	%0

### > BAI

Iaz Aretxabaletan izan nintzen eta ikusitako gustatu zitzaidan. Pena da domeka arratsaldean joan nintzela eta ordurako hainbat postu kenduta zeudela. Lagun batzuk zapatu iluntzean Kiko Veneno ikustera joan ziren eta sekulako giroa zegoela esan zidaten. Ea aurten ze talde ekartzen duten! Amaia

### > GUSTUKO DUT

Asko mugitzeke beste leku batzuetako kultura ezagutzeko aukera polita dela uste dut. Hori bai, gureari ere tokia egin beharko litzaiokela uste dut. Alex

### > BIRRITAN EGON NAIZ

Öñatin izan nintzen eta baita Aretxabaletan ere. Aurten ere joango naiz Bergarara, seguruenik. Aste bukaerarako plan ezberdina da eta gustura hartzen da, gainera, beste kultura batzuez gozatzeko aukera. Andoni

**DATORREN ASTEKOAK:**  
**Temporak izan berri dira? Sinisten duzu?**

Eman zure iritzia [www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

## koplak

### Iratzi Agirreazaldegia

#### 'Egunkaria' aurrera: joango ote da?

Gezurra gezurren truke. Paseak dira bost urte. Berriak zabal ditu ateak, zaharrek itxita diraute.

Luze urteen joana. Gogor torturaren zama. Izuak egun presente dirau, zein latza den iragana.

Egunkaria itxia. Txarra, beltza notizia. Albisteak al da zuzentza eza. Non gorde da justizia?

Egunkaria aurrera! oihua ozen, batera. Orduan legez gaur ere denok berdin batuko al gera?

Hamabi dira izenak, auzipetuak direnak. Egunkariko orri artean ote gaude beste denak?

Bost urtetako haria. albisteen emaria. Bi hitzenhotsak labur biltzen du aurrera Egunkaria!

artearen omen dagoen gatazka politikoaz. Baino, mila aldiz errepikatu arren, euskal gatazka politikorik handiena ez da Euskadi eta Spainiaren artekoa, euskal hiritarron artekoa baino.

Izan ere, ez nuke ba nik besterik nahi, gurean dugun gatazka Euskal Herria eta Spainiaren artekoa izatea baino.

Horrek adieraziko luke, behingoz, euskal hiritarrak bat gatozela, gure jarrera adostu dugula eta Madrilaren alternatiba bakarra aurkezteko moduan geundekela. Orduan izango litzateke, bai,

Euskadi eta Spainiaren arteko gatazka, baina bien bitartean...

Bitartean ezin duguna egin zera da, geuk gezurrik asmatu eta geuk sinestu. Nik ez dakit zelan erantzungs lukeen Spainiak, euskotarrok bat etorriko bagina eta aho batez aurre egingo bagenio. Baino esandako hori, gaur gaurkoz, fikzio hutsa da, gu geu gure artean bat etortzen ez garen artean.

Nafarroako hiru laurdenak eta Arabako bi herenak abertzale ez diren artean, nor arraiok esan dezake euskal gatazka Euskadi eta Spainia-

ren arteko dela? Hemen pendiente dagoen matxinada bakarra zera da: armak utzi, elkarrekin hobeto konpondu eta hauteskunde gehiago irabazi. Eta gero gerokoak.

Auskalo euskaldunok bakeak egin eta bat gatozen egunean independentzia garesti edo merke egongo ote den Europako merkatuan, baina bat ez gatozen bitartean, arazoa gurea da, gatazka gurea da eta, jakina, porrota ere gurea.

Bien bitartean, ez kanpoan errudun bila jardun. Ez gaitezen gero ume txikiak izan.

## Aitor Arantzabal askatu!

**Inazio Azkarragaurizar Larrea**  
(Bergarako Udaleko Komitearen izenean, LAB, ELA, ESK)  
Bergara

Otsailaren 11n polizia espainiarak Garzonen aginduz Aitor Arantzabal Bergarako Udaleko langilea atxilotu zuen eta ondoren espetxeratu egin dute.

Gure lankidearen atxiloketaren aurrean Bergarako Udaleko Enpresa Komiteak zera adierazi nahi du:

Lehenik eta behin, Aitorri eta bere senitartekoei udal langileen babes eta elkartasuna adierazi nahi dizkiegu.

Pentsatzen dugu alderdi politikoen jarduera debekatzea, antolatzeko eta biltzeko eskubidea ukatzea, manifestazioak debekatzea... herri honek bizi duen gatazka egoera gainditzeko oztopo direla.

Hala, beraz, exijitzen dugu mendeku politikak baztertu eta justizia politikoki erabiltzeari uztea eta Aitor Aranzabal gure lankidea berehala kalean libre uztea.

Azkenik, adierazten dugu Euskal Herriaren normalizazio politikoak honako oinarriak izan beharko dituela: pluraltasun politikoa onartu eta errespetatzea, desberdinaren arteko kontsentsuak zabaltzea, erabakitzeko eskubidea onartzea eta era guztietako eskubide urraketak baztertzea.

## Albiste onak

**Ane Barruso**  
Bergara

Egoera eta bizimodu nahasi eta korapilotsu honetan ez da erraza hedabideetan albiste pozgaririk irakurri edo entzutea, liskarrak, erasoak, enfrentamenduak, errespetu faltak... baitira normalean aurkitzen ditugunak. Beraz, hedabide batera jo eta albiste baikorra topatzea pozgarria da benetan, eta hori da, hain zuzen ere, gertatu zitzaidana [www.berria.info-n](http://www.berria.info-n) sartu nintzenean otsailaren 2an.

Hara! Euskarazko unibertsitatea 2010erako jarri nahi dute abian. Ikasketa guztiak euskaraz emango dituen euskal unibertsitatea sortuko dute...

Esaldi horrek ematen ditu bi informazio oso garrantzitsu:

1. Euskaraz emango ditu ikasketa guztiak.

2. Euskal unibertsitatea izango da. Honek zer esan nahi duen ere zehaztu zuten: euskararen hizkuntza komunitatea garatzeko erakundea, gizarte partaidetzakoa, demokratikoa eta herriaren zerbitzura egongo dena. Bikaina! Unibertsitate euskaldun, herritar eta nazionala, eta baldintza horiek betetzea pauso garrantzitsua izan daiteke, besteak beste, etorkizuna euskaldunon eskuetan jartzeko. Mundiala!

Hala ere, ezaugarri hauek guztiak ez zaizkit, egia esan, arrotzak egiten, badagoelako

Euskal Herrian hezkuntza sare bat ezaugarri bertsuak dituena: ikastolak. Ikastolen mugimenduan integratuta dagoen ikastola ere eskola euskaldun, herritarra eta nazionala da eta horregatik, hain zuzen ere, Euskal Herria bere osotasunean hartzen duen sareea delako, titularitate publikoa izaterik ez duten ikastolak dira, unibertsitate berria bezala; Euskal Herria burujabea ez denez, ez du hezkuntza sistema propiorik-eta. Horregatik bere izaera juridikoa definitzerakoan ahalik eta formularik sozialena hautatu dute, gehienak kooperatiba izanik (kasu askotan gurasoen kooperatiba). Bokazioz, berriz, guztiz publikoak izan behar dute, herri ekimenei sortuak baitira.

Pozik egoteko moduan gaude, beraz, hemendik aurrera eta gauzak ondo badoaz, nahi duenak izango duelako aukera bere ikasketa guztiak nazio mailako ikuspuntu batetik egiteko, hasi Haur Hezkuntzatik eta goi mailako ikasketak bukatu arte; beraz, zorionak ikasteko sasoian zaudeten guztioi eta, nola ez, euskal gizarte osoari.

## Historia berbera

**Mikel Errasti**  
Aretxabaleta

Aurreko mendeko 30eko hamarkadako Alemanian, naziek boterea hauteskundeen

bitartez hartu zuten. Baino oraindik ezkerreko indar desberdinek indarra zuten, guztien artean, Alemaniako alderdi komunista boteretsua gailentzen zelarik. Alderdi hau, sobietarren eredu jarraituz, sistema kapitalista aldatzeko indarrarekin egon zen 15 bat urte lehenago (Rosa Luxemburg ezkerreko buruzagia hil zuten arte).

Nazien Alemanian, komunistek indar gutxiago bazuten ere oraindik beldurra zioten. Eta beldur hura uxatzeko, hari burua moztea erabaki zuten. Horretarako, Reichstag-aren (parlamentu alemaniarrak) erreketa komunista bat izan zelako aitzakiaz.

Alderdi komunista legez kanporatu, ondareak lapurtu, kargudunak kartzelaratu eta ondoren kontzentrazio eremueta, modu legal eta isil batean erail. Horren aurrean, ezkerreko kontzientzia zuten gizon eta emakumeek hiru irtenbide zituzten; bizirk jarraitzeko alderdi nazian sartu, erbestea edo klandestinitatea.

2008. urtea Euskal Herrian. Oraindik ez dago kontzentrazio eremurik. Baino gauzak ez dira larregi aldatu. Demokrazia a la española honetan, teorian alderdi aniztasuna dago. Bai, baina teorian bakarrik. Sistema Francoren 40 urteko *bakean* lotu zuten (ondo lotu, gainera). Francoren oinordeko politikoak (Borbóiak, alegia), berau manten-

duko duen ziurtasunaz. Bitartean, Hego Euskal Herrian, Galizian eta Katalunian, sistema honi purrustadak eta kexak ateratzen dizkioten alderdi batzuk aurkitzen ditugu. Baino beti sistema kolakan jarri gabe. Hori bai, sistema kolakan jarriz gero eta demokratikoki askatasunean oinarritutako irtenbide bat aurkitu nahi izanez... egurra!

Gora zuen demokrazia!

Irtenbideak? Sistema onartu eta artaldean sartu? Klandestinitatea? Ez, eskerrik asko, ez bata ez bestea.

Post-data: ba al zenekiten Espainiako guda zibila bukatu eta ondorengo urteetan 200 eta 400 mila personaren genozidioa egon zela? Nora begira zaude, Garzon?

Bigarren post-data: txilearrak eta argentinarrek bai eman digitela demokrazia irakatsi ederra. Genozida militarrak epaitu eta mendeku aztarnarik gabe, gainera.

Gora, Kosovo!

## ZUZENKETA

Joan zen asteko GOIENKARIAN (320. zenbakia, otsailaren 15a) akats bat egin genuen. Grebaren gaineko albistearen, 4. orrialdean, ipini genuen Antzuolako Goizper lantegiak ez zuela grebarik egin. Eta ez da hala. Goizper kooperatibako langileek bat egin zuten grebarekin.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauetako egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33  
20570 BERGARA



Telefona:  
943 25 05 05



Faxa:  
943 25 05 12



Posta elektronikoa:  
[goinkaria@goiena.com](mailto:goinkaria@goiena.com)

Goienkaria **37.020** irakurle



# GOIENKARIA: askogatik, irakurriena\*

\*CIES-EK EMANDAKO DATUAK

- GOIENKARIA da Debagoienean gehien irakurtzen den hedabidea, askogatik.
- Debagoiendarren %67,4k astero irakurtzen du GOIENKARIA.

**Goienkaria**

KUTXA INBERTSIO-IRTENBIDEAK



ORAIN,  
BURTSÁ  
IGO NAHIZ  
JAITSI,  
ZUK BETI  
IPARRAZI.



Euroburtsa Gordailu


Berria

Kutxak gordailu berri bat dakarkizu, erabat bermatua eta oso errentagarritasun-aukera erakargarri zeharkitua. Burtsa igo nahiz jaitsi. Ez ibili duda-mudan, zatoz **kutxara** eta galdetu **Euroburtsa Gordailu** berriari buruz. Aurrerantzean, buruhausterik izan ez dezazun Burtsaren gorabeherak direla eta ez direla.

zer nahi duzu bihar?

[www.kutxa.net](http://www.kutxa.net)

 **kutxa**



Haur eta  
Lehen Hezkuntza  
DBH  
**MATRIKULAZIOA**

# guztiona, guztion artean

#### HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

##### Gatzaga/Eskoriatza

###### Luis Ezeiza Eskola

- Tel.: 943 71 49 38
- Ate irekiak:
- Otsailak 18, 17:00-19:00

##### Aretxabaleta

###### Kurtzebarri Eskola

- Tel.: 943 79 00 49
- bilera: Otsailak 19, euskaraz: 18:00 gaztelerez: 19:00

##### Arrasate

###### Arrasate Herri Eskola

- Tel.: 943 79 20 69
- bilera:
- (Bedoñabe) Otsailak 12, 18:00 (Musakola) Otsailak 13, 18:00

##### Aramaio

###### San Martin Eskola

- Tel.: 945 44 50 04
- bilera:
- Otsailak 26, 18:00

##### Bergara

###### San Martin Agirre Eskola

- Tel.: 943 76 21 47
- Ate irekiak:
- Martxoak 1, 16:30

##### Antzuola

###### Antzuolako Herri Eskola

- Tel.: 943 76 62 68
- Informazioa:
- Otsailetik aurrera

##### Elgeta

###### Elgetako Herri Eskola

- Tel.: 943 76 82 26
- bilera:
- Otsailak 19, 16:00

##### Oñati

###### Errekalde Herri Eskola

- Tel.: 943 78 07 64
- Ate irekiak:
- Otsailak 23, 16:30-19:00

#### BIGARREN HEZKUNTZA

##### Arrasate

###### Arrasate Institutua

- Tel.: 943 79 44 47
- Tel.: 943 79 20 38
- bilera:(Aramaio S. Martin Eskola)
- Otsailak 26, 18:00 (Arrasate Musakola eraikuntza)
- Otsailak 27, 18:00

##### Aretxabaleta

###### Kurtzebarri BHI

- Tel.: 943 79 57 40
- bilera: Martxoak 13, 18:00

##### Bergara

###### Ipintza Institutua

- Tel.: 943 76 31 42
- bilera: Martxoak 5, 18:30

##### Oñati

###### Zuazola Larraña Oñatiko BHI

- Tel.: 943 78 12 68
- bilera: Otsailak 21, 18:00

[goieskola@euskalnet.net](mailto:goieskola@euskalnet.net)

[www.goieskola.net](http://www.goieskola.net)

605 773992

#### HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA

##### Arrasate

Ferrerias 28

- Tel.: 943 77 11 72

##### Aretxabaleta

Markole 5

- Tel.: 943 79 88 50

##### Eskoriatza

Intxaurtxueta 20

- Tel.: 943 79 36 41

##### Bergara

Irizar jauregia.

- Barrenkale 33, 2.

##### Oñati

Zuazola Institutua

- Aita Madina z/g.

- Tel.: 943 78 35 77

**goieskola**

debagoieneko euskal  
eskola publikoa



# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33  
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Aramaio > 37 Elgeta > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARRASATE**  
Kultura elkartea sortu dute Bedoña, eta hasi da lanean > **18**

> **BERGARA**  
Elementalean egin nahi du Udalak erabilera askotako auditoriuma > **24-25**

> **ARETXABAleta**  
Soldadura eta metal eraikuntza tailer berria du institutuak > **32**

> **ELGETA**  
San Roque osteko parkea eta urbanizazio berria, laster zabalik > **37**

OÑATI > ARTZAIN ESKOLA

## Instalazio berriak ditu Artzain Eskolak, eta laster, denda-museo bat

### BERRITASUNAK

Gomiztegiko arditokia eta gaztandegia berriak dira

### TEKNOLOGIA

Puntako teknologia aplikatu dute, lana errazteko

### TURISTENDAKO

Arantzazura doazen turistei egokitutako bisita gidatuak prestatzen dabilta

LEIRE KORTABARRIA > OÑATI

"Bazterrean geratzen dabil artzainak egunean 24 orduan lan egin behar duela esaten duen esamoldoa; artzaintza egin daiteke beste lanbide batzuk bezala, ordutegi batzuekin". Oñati Artzain Eskolako zuzendari Batis Otaegiren hitz horiek laburten dute Artzain Eskolak izan dituen berrikuntza garrantzitsuek ekarri duten aldaketa artzaintza irakasteko eta bizi izateko moduan.

Itsasmendikoiko Artzain Eskolak instalazio berriak ditu, punta-puntako teknologiekin. Baserrian, lehen ardilekua zegoen lekuau, ikasleendako bideoteka, ikasgelak eta eskolako bulegoak jarri dituzte, eta baserriaren aurrealdean jarri dituzte instalazio produktiboak: ardilekua, ardiak jezteko lekuak, teknologia berrienekin; gazta egiteko eta gordetzelekuak, eta hurrengo datoren berritisuna, denda-museo txiki bat. Instalazio produktiboa Foru Aldundiak finantzatu ditu, eta eskolarenak, Itsasmendikoik; denetara, 120.000 euro ibertitu dute.

"Lehen, hemengo 300 ardiak elikatzeko-eta, bi lagun ibiltzen ginengunero lau orduan; orain, lagun batek egin dezake lan hori ordu betean", ipintzen du Batis Otaegik adibide gisan.



BERRIAK Batis Otaegi, instalazio berriak eta mahaik erakusten.



ARDITOKIA Hirureun buru dituzte Gomistegin.

LEIRE KORTABARRIA



DENDA-MUSEOA Artzaintzako tresnak eta produktuak erakutsiko dituzte.



JEZTOKIA Ardiak jezteko, teknologia berrienak erabiltzen dituzte orain.

L.K.

### BISITA GIDATUAK, LASTER

Berritasunak ez dira hor amaitzen. Orain arte eskolekin egin dituzten bisita gidatuak Arantzazura doazen turistengana zabalduko dituzte. Hori gertatzen dabiltsan denda-museoarekin lotuta dago, eta arduradunek uste dute udaberrirako gertu egongo dela eskaintza. Otaegik dioenez, "bi helburu izan ditugu: formazioa eta, bestetik, artaldea ondo gesionatzea eta gazta saltzea. Beharrak egin da hirugarren bat:

museo-denda bat egitea eta gizarteari erakustea artzaintzaren onurak. Hori antolatzen gabiltza".

Hala, bisitariek ikusi ahal izango dute ardilekua -artaldea gordetzea eta gobernatzeko sistema berriarekin, eta, eremu baten, sistema tradizionalarekin; biak iku si ahal izango ditu bisitariak; beira batetik, gaztandegia eta gazta zelan egiten duten, eta gaztak eurak, apaletan; hortik zuzenean denda-museora pasatuko dira, eta han, artzaintzako tresna tradizio-

nalak ikusiko dituzte: otzarak, kaikuak, artzain-makilak, larruak, artilea lantzeko tresnak eta beste gaua asko. Gazta, gazta-krema, makilak, txapelak, ardoa, eztia, txorizo... salgai ere izango dituzte, eta gazta-dastatzea ere eskaniniko dute. Horrez gain, kanpoan, eguraldia lagun, jesartzea eta meriendatzeko mahai batzuk egongo dira, iturri batekin.

Artzain Eskolako beste arduradun batek, Nikolas Segurolak, honelaxe azaltzen du ekintza horiekin duten helburua: "Gure asmoa da Arantzazura datozenturistei erakustea artzaintzak gizartearen bete duen eta betetzen duen papera, ze garrantzi duen ardi latxak; jabetu daitezela ze mesede egin duen gure herrian, eta artzaintzatik bizi daitekeela". Ardiaren inguruko ekintza horiek Ardi Latxa Elkartearren interesa ere piztu dute, eta eskola eta elkartea ikusten ari dira elkarlan estuago bat egiteko aukerak.

**zerbitzuak****GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapatura, 23	Amezua	Santamarina, 32	943 79 09 74
Domeka, 24	Amezua	Santamarina, 32	943 79 09 74
Astelehena, 25	Español	Arabako Etorbidea, 14	943 79 18 65
Martitzena, 26	Ruiz	Nafarroa Etorbidea, 1	943 79 14 09
Eguaztena, 27	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Eguena, 28	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Egubakoitzta, 29	Azkoaga	Iturrioz, 17	943 79 79 99

**BERGARA**

Zapatura, 23	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 24	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 25	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Martitzena, 26	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguaztena, 27	Urrutikoetxea	Oixorondo, 4	943 76 11 74
Eguena, 28	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Egubakoitzta, 29	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05

**OÑATI**

Zapatura, 23	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Domeka, 24	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Astelehena, 25	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Martitzena, 26	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguaztena, 27	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguena, 28	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Egubakoitzta, 29	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16

**ARETXABAleta**

Zapatura, 23	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Domeka, 24	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Astelehena, 25	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Martitzena, 26	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguaztena, 27	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Eguena, 28	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99
Egubakoitzta, 29	Fraile	Herriko Plaza, 10	943 79 21 99

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Oasun Etxek.....	943 03 53 00
Arrasteko ospitala.....	943 76 62 23
Antzuola.....	943 45 53 40
Aramai.....	943 71 19 59
Aretxabaleta.....	943 03 54 00
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalzainaogak.....	943 76 62 46
Antzuola.....	943 79 14 39
Arrasate.....	943 71 18 63
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

**GARRAIOAK**

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak.....	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramai.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak.....	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegia.....	
Aramai.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxek.....	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramai.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak.....	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramai.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

**URBANOAK****ARRASATE**

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Arimazubi, Alecop, Uriarrbi, San Andres, Garibar, ospitalea, Biterrí, Legarre, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, S. Bengoa, S. Teresia, C. Obregón, Oñate, Makaranta, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguín A eta Gorostiza.	

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguín B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenreka, C. Obregón, Galizia, Bengoa eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibar, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uriarrbi, Erguín A eta Gorostiza.	

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)	
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibar, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uriarrbi, Erguín A eta Gorostiza.	
Gorostizatik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 1	

## kale inuesta

# Zer iruditzen zaizu hilerrrian kolunbarioak jartzea?



Ainhoa Sarasola  
Langilea  
Donostia



Karina Nina  
Langilea  
Bergara



Angeles Moreno  
Langilea  
Bergara



Karmelo Martinez  
Erretiratua  
Bergara



Vicente Sanchez  
Langilea  
Bergara

Ondo iruditzen zait Udalak horrelako aukerak eskaintza. Gero eta jende gehiagok eskatzen du erraustea, eta egoki ikussten dut hilerrrian aukera hori ematea. Ondo dago aukera.


Ondo iruditzen zait hilerrrian kolunbarioak jartzea; modu horretan, leku txikiagoa hartuko du eta, ondorioz, leku libre handiagoa egongo da. Bolivian ere horrelako aukerak ditugu hilerritan.

Hilerrrian errautsak gordezteko lekua izatea zerbitzu ona dela iruditzen zait. Gaur egun hainbat aukera daude eta denak errespetatu behar dira. Gainera, uste dut hilerrria dela leku egokiena.

Ondo iruditzen zait hilerrrian kolunbarioak jartzea; gaur egun, erraus-teak eskaera handia du, eta zerbitzu ona da. Nire ustez, gainera, errautsak hobeto daude hilerrrian mendian botata baino.

Ondo dago. Orain, gainera, hildakoak erraustea dago boladan; hortaz, horretarako lekua egoki-tzea ondo ikusten dut. Gainera, modu horretan, lekua hobeto aprobetxatuko da hilerrian.

## txistuak



GOIENKARIA

## Lorontziak beharrean, aparkalekuak



Oraingo astean, Bergarakit etorri zaigu kexua, zehazki, azokako aparkalekuaren gainean. Herritar batek argazki hau bidali digu, galderetuz, herrian aparkatzeko toki gutxi dagoenez, aparkatzea posible den lekuetan zertarako oztopatzen duten aukera hori bi lorontzi handi ipinita; herritar horren ustez, eztertan lagundu baino gehiago, traba egiten dute.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## asteko datua

20

Bihar, zapatura, zuhaitz feria izango da Bergaran, San Martin Agirre plazan. Bertan, 20 saltzaile egongo dira, bi Oñatiako eta gainontzeakoak bestek leku batzuetakoak, besteak beste, Errioxa eta Kataluniakoak.

Nire herrian esaten den moduan, hola ezin leike.

## 5 galdera...

### Marisa Etxebarria

Lore estetika zentrokoa  
Arrasate

**1.** Eskaintzen duzuen zerbitzuen artean depilazioa eta fotodepilazioa dago. Zer nahiago du jendeak?

Nahiago fotodepilazioa, baina garestiagoa da. Fotodepilazioa aukeratzen duen jendea poliki-poliki egiten hasten da: bespeak, izterrondoak... Eta gero hankekin edo besoekin jarraitzen dute. Fotodepilazioa erosagoa da, eta saiotik saiora, gainera, ilea gutxitzen joaten da.

**2.** Zuen zentrora zeintzuk joaten dira gehiago, emakumezkoak ala gizon-koak?

Modak eta beharrak ere aldatu egin dira. Gizonezkoak, ez emakumeak bezainbeste, baina lehen baino gehiago etortzen dira. Depilatzen etortzen dira asko. Ile asko dutenek gero, udan, izerdiarekin arazoak izaten dituzte, eta depilazioa hori ekiditeko bide bat da, nahiz eta oraindik emakumeak diren gehiengoa.

**3.** Neguan gaude. Bainagai honetan, jendeak hartzen ditu solarium saioak?

Neguan ere etortzen da jendea; ez udan bezainbeste, baina bai. Garai hauetan, jendea oporetara joaten da, ezkontzak izaten ditu, medikuak bidalita etortzen den jendea ere badago...

**4.** Lurrinak ere saltzen dituzue. Zein da modan dagoena?

Neguri begira, goxoak diren lurrinak gehiago saltzen dira, eta uda partean, betiere, freskoagoak. Beste batzuek, berdin da negu edo uda izan, beti lurrin berbera erabiltzen dute.

**5.** Nork bere gorputza zaintzeko zeintzuk dira oinarriko rizko pausoak?

Gorputza zaintzeko lehen gauza esfoliatzea da; gero, hidratatu; eta azkenik, tratamendu bezala, gorputzak bere distira gordetzenko produktuak edo erreduktoreak ematea. Hori bai, emaitza onak lortzeko jarraikortasuna behar du horrek guztiorek. Jende asko udan bakarrik gogoratzen da, bainujantzia ipini behar duenean. Konstantea izan behar da.





AZOKA lazko azokan ere saltoki guztiak bete zituzten eta askotariko produktuak izan ziren salgai.

GOIENKARIA

BERDINTASUNA &gt; EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

## Emakume baserritar eta artisauen azoka, beteta

Martxoaren 8an egingo dute, 10:00etan hasi eta eguerdira arte; Arrasateko produktuak izango dira, Euskal Herrikoak eta Espainiakoak ere bai

**UBANE MADERA**> ARRASATE  
Emakume Txokoak jakinarazi duenez, martxoaren 8an egingo den emakume baserritar eta artisauen azokarako saltoki guztiak bete dituzte dagoeneko.

**HEMENGOAK ETA KANPOKOAK**  
45 saltoki ipiniko dituzte Seberren, goizetik eguerdira bitarte-an. Maite Barreñak, Emakume Txokoko arduradunak, azpimarratu duenez, denetariko produktuak izango dira, gainera, azoka horretan. Batzuk Arrasatekoak, Euskal Herrikoak gehienak, baina izango dira Espainiatik etorritako produktuak ere.

**BASERRITARRAK, ETXEKOAK**  
Azokan izango diren baserritar guztiak, adibidez, arrasatearrak izango dira. Eta haien batera

herriko artisau batzuk ere izango dira euren produktuekin. Adibidez, herriko produktu horien artean, lora sikuak, kakorratzek egindako produktuak, ezpelarekin egindakoak, narruzkoak eta abar aurkituko ditugu.

DATUA  
**45**  
SALTOKI

Guztira, 45 saltokirendako azoka antolatuko dute Seberren; horietako saltoki batzuk bereziak izango dira: "Ahaleginduko gara saltoki batzuk etorkinekin betetzen, Ekin elkartearren laguntzarekin", esan du Berdintasun teknikariak.

Kanpotik etorriko direnen artean, berri, izango dira, adibidez, "kontserbak, bitxiak, jantziak, beirarekin egindako produktuak, birziklatutako materialekink egindakoak, jolasak eta adibidez, Kantabriako antxoak", aditzera eman du Maite Barreñak.

**EMAKUMEEN GAINeko BIDEOA**  
Hori guztia girotzeko, gainera, bestelako ekitaldiak antolatu guran dabilzala gaineratu du udal teknikariak. Adibidez, iragarri du goizean kale antzerkia izango dela eta, horrekin batera, margolariai kalera irtengo direla margotzera.

Arratsaldean, berri, umeendako jolasak izango dira eta, bestelako artean, Barreñak nabarmendu du, adibidez, iluntzean bideo emanaldia egingo dutela, Arrasateko emakumeen partaidetza soziopolitikoa aztertzen dueña: "Baina bideoan zeintzuk azaltzen diren ezin daiteke aurreratu, sekretua da", gaineratu du Emakume Txokoko arduradunak.

AUZOAK &gt; BODOÑA

## Auzotarren arteko harremanak trinkotzen, Bedoñan

Kultura elkartea sortu dute, eta ikastaroak eta beste egiten dabilta Bedoña auzoan

U.M.&gt; ARRASATE

Auzoko harremanak trinkotze-ko ekimenak egiten dabilta Bedoña auzoan azkenaldian. Kultura elkartea sortu dute; horren bidez, hainbat ekimen lantzen dabilta, eta aurreran-zean gehiago egingo dituzte.

Adibidez, txotx sasoi hone-tan, Astigarragan izan dira, bazkaltzen eta Sagardoaren Museoa bisitatzen. "Lan kontuak eta eguneroko gorabehe-rak direla-eta, auzoan harremanak lantzeko aukera gutxi dau-kagu: auzoko jaiak izan ezik, ez dugu auzoan elkartzeo ohitu-

rak. Auzoko harreman horiek trinkotze aldera, irteera hori egitea pentsatu genuen", diote bedoñarrek. Kontatu dute, bai-ta ere, lehenengo aldiz Santa eskean atera direla aurten auzotarrak, eta tai-txi ikastaroa egiten dabilta orain.

Horrez gainera, aurreran-tean antzeko gehiago egingo dituztela iragarri dute: Internet ikastaroa, baratzeko produkuak kontserbatzearen gaine-koak, baratze biologikoak, sukal-daritza, masajea, eskulanak eta, besteak beste, Zuberoa irte-era bat dute aurreikusita.



ASTIGARRAGA Sagardotegira irteera egin zuten auzotarrek. NEREA AREXOLALEIBA

&gt; HISTORIA

## Industrializazioak izandako eraginaren gaine-ko bisitaldi gidatua egingo dute bihar, zapatua

Arbolapetan egin du hitzordua AEDk bihar, zapatua, 12:00etan eta 18:00etan, *Harutze eta honutze Mondrauen* ekimenaren barruan beste ibilaldi bat egiteko. Oraingoan, industrializazioak Arrasaten izan duen garrantzia eta eragina aztertuko dute. Aditu batek gidatuko du bisita: Isabel Aramendiak. Historialaria da, museo hezitzalea, Arrasateko Industria Erakusketa kidea izan zen eta, orain, Eskoriatzako Ibarraundi museoan dago. Arbolapetik irten eta Zerrajerara joango dira eta, handik, Etxe Txikieta-ra XIII. mendearen hasi eta gaur egunera arte industrializazioak eta Arrasatek izan duten lotura aztertuko du adituak. Adin guzietako herritarrei zuzenduta dago ekimena.

**Txitxinde**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Ogitarteko  
hotz eta beroak  
Arrasate pasealekua 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**IRVROK S.L.**  
KONTRATAK ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

Argidun kartelak  
Ibilgailuak  
Stand-ak  
Itsasgarriak  
Biniloa  
Seinaleak  
Lonak  
Erliebedun hizkiak

**Pando Errutuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

GIZARTEA > PEDRO BITERI ARANAREN URTEURRENA

# Pedro Biteri gogoan, haren jaiotza eta heriotzaren urteurrenean

Pedro Biteri Arana jaio zela 175 urte bete dira 2008an eta hura hil zela 100 urte beteko dira maiatzaren 21ean

**UBANE MADERA** > ARRASATE  
Pedro Biteri Arana filantropoaren jaiotza eta heriotzaren urteurrenakin beteko dira, kasualitatea bada ere, biak ala biak, aurten, 2008an. Horrela, hark Arrasateri eta arrasatearrei egindako ekarpenak gogora ekarriko dituzte.

Hala aditzena eman du Julia Monjek, ekimena lantzen dabilen Kultura zinegotziak: "Bere kabuz lanean bazeibilen herritar talde bat. Aspaldi dabilta esaten Arrasaten zorra dugula Biterirekiko. Bada, haiekin elkartu gara Udalekoak eta hiru eremu ukitu ditugu: batetik, Grupo San Juanen dagoen Biteriren estatuarekin zer egin; bestetik, Biteriren irudia zelan zabaldu gazteen artean ikastetxeen bitarte; eta azkenik, herritarrendako hitzaldi edo konferentiaren bat antolatu".

## BRONTEZKO BUSTOA

Hain justu, asteon, hiru puntuotako bat landu dute: Biteriren eskulturarena. Monjek kontatu du aztertzen ibili zirela Grupo San Juango eskulturarekin zer egin; azkenean, bestelako proposamena aztertuko dute: "Kontuan hartuta Biteriren eskulturaren egoera eskasa, proposatu dutena da eskultura horretan dagoen filantropoaren bustoaren errepika bat egin eta Biteri plazan ipintzea". Izan ere, hantxe ipini zuten Biteriren omenezko eskultura 1911. urtean. Gero, BBVAren dorrea eraiki zutenean eraman zuten Grupo San Juana, 70eko hamarkadan.

Bustoa brontzez egin gurako lukete, eta Udalatx edo Arrasateko harrobiren batetik ateratako harrizko oinarri baten gainean ipintzea proposatu dute. Gainera, oinarri horren bueltan lau



BUSTOA Brontzezko bustoa egitea proposatu dute, Biteri plazan ipintzeko, foto-muntaia erakusten duen moduan. GOIENKARIA

inskripzio gura dituzte ipini: Pedro Biteri gaineakoa, Arrasaten gainekoa, Euskal Herriaren gainekoa eta Gipuzkoako Diputazioaren gainekoa.

Bustoa egin edo ez erabakiko dute astehenean, gobernu batzarrrean. Eginez gero, maiatzaren 21erako gertu izan gura dute.

## CORREOSKO ZIGILUAK

Prestatzen dabiltsan beste bi ekinmeiei dagokienez, berriaz, Huheziko irakasle baten bitarteaz aztertzen dabiltsa zein izango litzatekeen modurik egokiena Pedro Biteriren oromina ikastetxeetan lantzeko. Eta horrez gainera, herritarrei begira Biteriren

gaineko hitzaldi sorta antolatzeko ere egin dute adituren batekin berba.

Hori da oraingoz aztertu dutena Udalean. Baino horrez gain, bestelako ideia batzuk ere badituzte: adibidez, Biteriren irudiarekin Correosko zigilua emititzea, baina hori airean dute oraingoz.

## Biteri Eskolak eta beste eraiki zituen Pedro Biterik

Pedro Biterik (Arrasate, 1833-1908) Biteri Eskolak sortu zituen, 1902an, eta eskolak mantentzeko fundazioa sortu zuen.

Arrasateko eskolak eraiki eta gero, Aretxabaletan, Hondarribian, Erreenterian, Pasai Donibanen, Pasai Antxon, Irunen, Donostian, Hernanin eta Urnieta ere eraiki zituen halako gehiago.

Eta bestelako dohaintzak ere egin zizkion Arrasateri: pilotaleku Zaldibarren, azoka estalia San Frantzisko eliza parean eta, besteak beste, eskolen inguruan lorategi eta leku libreak, herritarrendako.



Biteri Eskolen fatxada nagusia; 1902an inauguratu zituzten eskolak. VALERIANO MARTINEZ

## UDALA

# Etorkinen gaineko diagnostikoa egingo dute

Etorkinekin lotutako planifikazioa lantzeko behar du Udalak diagnostikoa

## U.M. > ARRASATE

Arrasaten bizi diren etorkinen gaineko diagnostikoa egingo du Arrasateko Udalak. Halaxe onartu du oraingo asteko Tokiko Gobernu Batzarrak. Hain zuen ere, 20.000 euroko aurrekontua du lan hori egiteko eta Gizarte Ongizatetik jakinarazi dute aholkularitza etxe bat kontratatuko dutela.

## HARRERA-PLANAK ETA BESTE

Udalak gura duena da immigrazioaren aurrean planifikazio propioa garatu. Edo bestela esanda, Udalaren eskumenen barruan eta etorkinen gizarteratzea oinarri moduan hartuta, plan bat landu gura du, etorkinendako neurriak abian jartzeko. Adibidez, etorkinendako harrera-planak egin, plan orokorrak idatzia eta halakoetarako. Baino hori egiteko, beharrezko dute etorkinen egoera zein den jakitea.

## > ZERBITZUAK Bihar, ludoteka ibiltaria Musakola auzoan izango da

Hirugarren zapatura (azkenaurreko) egingo du Musakolan Txatxilipurditen ludoteca ibiltariak. Bihar, 11:30ean zabalduko ditu ateak, 13:30era arte. Elikagaiak oinarri hartuta eskulanak eta jolasak egingo dituzte, bi heitzailerden laguntzarekin.

Bestalde, hurrengo zapaturan ere Musakolan jarraituko du ludoteca ibiltariak. Eta gero, Garagartzia auzora joango da, hurrengo lau zapatueta rako.



*Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatza s.l.**

Zubillaga auzoa 1  
OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51

**Jon Ander Ramos** > 'Historia Zinemaren bidez' jardunaldietako antolatzailea

# "Hasieran markatu genituen helburuak bete ditugu, gustura gaude izan duten harrerarekin"

A. ARANBURUZABALA > ARRASATE

Astean amaitu dira Arizmendi ikastolak EHUREN laguntzarekin antolatutako *'Historia Zinemaren bidez'* jardunaldiak. Antolatzaile taldeko kide batekin izan gara.

**Aste honetan amaitu dira. Zer moduz?**

Gustura gaude, bai; erronka polita izan da eta datorren urteari begira gaude dagoeneko.

**Beraz, jardunaldiak errepikatuko direla ulertzen dugu.**

Oraindik ez dugu balorazio formalik egiteko astirik izan, baina izan duten harrera ikusita, baliteke. Hasieran azaldu genuen, gainera, Arizmendi ikastolak urteroko jardunaldiak izateko asmoa duela.

**Ze helburu zenituzten? Beteta?**

Gure ikastolak duen hezkuntza proiektuaren barruan dago ibarreko edo herriko kulturaren esparruan horrelako ekintzak eskaintzea; eta bide horretatik, modu apalean antolatu ditugu jardunaldiak. Izan duten harrera ikusita, kuantitatiboki eta baita kualitatiboki dagokionez, egindako ahaleginak mereziz izan zuelakoan gaude. Lehenengo aldia zen eta zailtasunak izan dira; laguntza handia izan dugu EHUNKO Historia Sailetik bereziki.

**Ikastola batek antolatutako jardunaldiak baziren ere, ez ziren ikasleentzako bakarrik.**

Ateak guztiontzako zabaltza legutu; eta alde horretatik ere oso pozik gaude: hezkuntza ertaineko eta unibertsitateko ikasleek gain, astero etorri diren herritarra izan ditugu. Eskertzeko da pertsona horiek izan duten konpromisoa.

**Herriko mugak gainditzea lortu duzue.**

Bai, horrela da; besteak beste, Gasteiztik espresuki filmak ikustera etorri den neska aipatuko nuke.

**"Eskertzeko da jardunaldietara eterri direnek izan duten jarrera prestua**

**"Hurrengo jardunaldiak gai bakarra aztertzeko monografikoak izango direla uste dugu"**

**Zer diozu landutako gaiei buruz? Asmatutako egitaraua?**

Lehenengo honetan errepaso orokorra egitea erabaki genuen, lau filmen bitartez, aro ezberdinak jorratzeko asmoz: Erdi Aroa, Aro Berria eta Aro Garaikidea. Datozen urteei begira, monografikoak egin gura genituzke, adibidez: I. Mundu Gerra, Espainiako gerra, komunismoa... Aukeratutako filmei dagokienez, Erdi Aroari buruzkoak ikasleentzako sakonegiak zirela sumatu dugu.

**Zein izan dute gustuko?**

Publiko ezberdina izan denez, zaila da bat aukeratzea, baina *Telefono ojo* filmarekin sorpreza hartu zuten, gaur egun ETBn botatzen ari diren urpekariaren iragarkia film horretan oinarrituta dagoelako.

**Kulturate leku aproposa da?**

Bai, oso ona. Akaso areto han-diegia? Emanaldi bakoitzeko batez beste berrogei bat lagun izan gara, eta, nahiz eta kopuru polita izan, aretoak ez zuen hori adierazten. Bestalde, oso ondo hornituta dagoela esan behar da, pantaila eta teknologia berriak...

**Aurrera begira zer duzue pensatuta?**

Oraingoan hizlari guztiak EHUKOAK izan badira ere, kanpoko unibertsitateko irakasleak inplikatzea nahiko genuke. Horretarako, baina, dirua behar da eta erakunde laguntza bila-tu beharko litzateke.



Jon Ander Ramos, Arizmendiko irakaslea.

A. ARANBURUZABALA



GREEN MANALISHI 3.60 aretoan izango dira gaur.

GOIENKARIA

**MUSIKA** > 3.60 ARETOKO ASTE BUKAERAKO EGITARAUA

## Green Manalishi, Mermaid taldearen oinordekoak gaur

**Jim TNT eta Mery May Arrasateko bakarlarien doinuekin gozatzeko aukera ere izango da gaur**

**A. A. > ARRASATE**

Gaur, egubakoitzta, rock-and-rollaren gaua izango da 3.60 aretoan, 22:30ean. Emanaldiko kartela Green Manalishi taldeak eta Arrasateko Jim TNT eta Mery May bakarlarien osatzen dute. Sarrera, 7 euroren truke.

Iruñeko Mermaid taldearen oinordekoak dira Green Manalishi taldeko kideak, dagoeneko desagertuta dagoen Mermaid taldeko gitarrista eta abeslari Txetxu Brainloster-ek gidatzen du-eta hirukotea. Horrez gain, John Etxabarri bateriajo-

lea eta Sarri baxu jolea daude. 70eko hamarkadako hard-rocka egiten dute, antzinako taldeen parera. *Unknown force* bigarren diskoa aurkeztuko dute. Iruñearren aurretik, eskarmenduko handiko Jin TNTk eta Mary May neska abeslari gazteak emanaldi bana egingo dute.

**BIHAR DOINU ELEKTRONIKOAK**

Aste bukaerako eskaintza borobiltzeko, doinu elektronikoak nagusituko dira bihar, 04:00etan hasita, Elektit disko jartzailaren eskutik.

> HARRESI ARETOA

## Herriko eta kanpoko artistek euren artelanak erakusteko aukera dute Harresi aretoan

Udalaren bi erakustoki daude Arrasaten: Harresi aretoa eta Kulturateko klaustroa. Kulturateko klaustroa ez dago edonorentzako erabilgarri; Kultura Sailak bilatzen eta kudeatzen ditu erakutsi nahi dituen lanak.

Harresi aretoa, berriz, herriko zein kanpoko artistentzako dago erabilgarri. Honela azaldu dute Kultura Sailetik: "Herriko artistei ematen diegu preferentzia, baina ez dugu baldintza berezirik eskatzen: aretoa *betetzeko* beste kopuru izatea; eta era berean, erakusketak irauten duen bitartean, zaintza lanak egiteko prest izatea. Aretoaren garbiketaren ardura Udalak du. Orain arte jasotako eskaera guztiak onartu ditugu. Aretoa erabiltzeko aukeraz gain, erakusketaren katalogoa ateratzeko dirulaguntza ere ematen dugu". Aretoa erabili nahi duenak, bada, Kultura Sailekoekin harremanetan jarri besterik ez du: 943 25 20 00 telefonora deituta edo Kulturaten dauden bulegoetara hurbilduta.

*Sili Sili*

**Martxa eta estilo handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastekurako armairuak

**Erakusketa berria**

Ekutio kalea pab. 14-15  
Uribarri auzoa 4  
Tel. faxa: 943 79 01 82

**BITTORI**

**ERRETEGIA**

*Eguneko menua - Kartako menua  
Espezialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletaek*

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



Erdiko kalea 54 behe 20500 ARRASATE

Tel.: 943 79 09 09

**Eguzkia hartu eta gero zure azalak gure zainketak behar ditu.**

**Solarium bonua:**

**6 saio + 1 DOAN,  
42 €-ren truke bakarrik.**

**Otsailaren 22tik martxoaren 22ra.**

Zentro honek betetzen ditu 1002/2002 (BOE 243, 2002/10/10) Errege Dekretuan ezarritako araudia eta 265/2003 (EHAA 222, 2003/11/13) Dekretua.  
Beltzaran jartzeko aparatuen UVA izpiek eragina izan dezakete azalean eta begietan. Ondorioak izpien izaeraren eta intentsitatearen araberakoak izango dira, baina pertsona bakoitzaren sentsibilitatearen araberakoak ere.



**Eta gogoratu:**

- Gorputzeko tratamenduak.
- Konsulta medikoa:  
gorputzeko mesoterapia.  
Dieta pertsonalizatua.

**Presta zaitez udarako.**

*nº R.P.S. 297 / 05.*



**iKER**

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48  
**BAINUAK:** ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

**FAGOR**

**ATLETISMOA**

## Gipuzkoako marka ondu du Maialen Axpek

X.U. &gt; ARRASATE

Joan den astean egin zituzten Euskadiko Pista Estaliko Txapelketak, eta Arrasateko taldeko Maialen Axpek Gipuzkoako marka ondu zuen, kadete mailan pertikarekin 2,90 metroko jauzia eginda. Gainera, denboraldiko estatuko bigarren marka onena da hori, eta martxoaren 16an eta 17an izango dute Espania-ko Txapelketa, Oviedon.

Axpererekin batera, gutxieneko marka gainditu dute Lore Marrek (2,80 metro), Lide Pagaldaik (2,80 metro) eta Eukene Dorronsorok 60 metrotan (8, 19 segundo).

### > BERBALDIA 'Emakumeak eta mendia' berbaldia eguaztenean

Marimendi elkartea berbaldi-solasaldia egingo du datoren eguaztenean, hilak 27, Kulturaten. 2006an sortu zen elkartea hori, eta Mont Blanc (4.808) mendia lau bide ezberdinatik igo eta gero indarra hartu zuten. Taldearen helburuetako bat da emakumea eta mendia hurbiltzea, eta erakutsi ez dagoela mugarririk, nork bere buruari jartzen dizkionak aparte.

**UGARAN**

Jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



GERTUTIK ZAINTZEN Iturripen MUk eta Baskoniak jokatu zuten norgehiagokan, Kintana eta Gartzia aurrez aurre.

J.A.

**SASKIBALOA > LEHENENGO MAILA**

# MUk Baskoniaren kontra borobil dezake liga

Ligako lehenengo faseko azken partidua jokatuko du MUk Gasteizen; orain arte egindako lana borobiltzeko asmoarekin joango dira

XABIER URTZELAI &gt; ARRASATE

Joko aldetik gorabeheraren bat edo beste izan badute ere -normalean dena-, emaitza aldetik MUk lehenengo fase ia perfekta egin du. Eta ia diogu, Ardoiren kontra Nafarroan galduztako partidua delako Merinoren mutilek izan duten orban bakarra. Hala ere, talde horren kontra joan den asteko garaipenak (84-67) are eta gehiago lausotu du igoera fasean izango duten ibilbidea, erreban-txa hartzearkin batera, puntu averagea ere aldeko dute-eta.

**ERNE BASKONIAREKIN**

Joan den zapatuan, garaipenaz gozatzen zebilen bitartean, taldeko kapitain Gamarra garbi aurreratu zuen Mondragon Uni-

bertsitateak zapatuan izango duen kontrarioa (17:15, Gasteiz) ezin dela gutxietsi: "Partidu gogorra izango da, Ardoiren kontrako moduko. Baskoniak talde ona du, TAUREn filiala da, baina denboraldi hasiera makala egin zuten eta horregatik ez daude aurrerago. Partidu horrek igoera faserako ere balioko du; ea irabazten dugun".

**BEDERATZIGARRENA BURUAN**

MUk jarraian eskuratutako bederatziaren garaipena gura du, orain arteko ligan irabazitako 17.a -18 partidutan-. Baskonia, berriz, alde txikiagatik sailkatuko da igoera faserako, Easok azken unera arte estutu du-eta. MUren eta Baskoniaren arteko joaneko

partiduan, Iturripen, 78-69 galdu zuen Ander Gartzia bergararra-en taldeak, eta aurreikustekoa da Gasteizen liderrari ez diotela erraztasunik emango; izan ere, egun, motibatu egiten du MUren kontra jokatzeak.

Aurreratutako emaitza ikusgarri hori lortuta ere, Arrasateko taldekoek oraindik bide erdia egin dute, igoera fase osoa geratzen delako. Alegia, etxearen bost final, eta etxetik kanpora beste horrenbeste.

**ANEKDOTA KADETE MAILAN**

Talde nagusia alde batera utzita, kadete mailako MUren eta Easoren arteko partiduan kontatzeko moduko anekdota izan zen joan den asteburuan. Musakolako kirolegian dagoen Antoñako kantxan izan zen gertaera. Han, epaileak etxeko taldearen kontra teknika adierazi zuen, baina zer-gatia da onena: Arrasateko zaleek protesta egiten zutelako.

**futbitoa zaldibar****EMAIZTAK**

Cipris-Total Disaster .....	4-1
Bar Kokots-Betrayer .....	2-6
Kalapatx-Dribling .....	0-1
Ekaitz Taberna-Dublin Irish Pub .....	0-10
Iturrioz Tab.-Iluntz Tab .....	3-3
Equus-McAwen Dauen .....	6-9
Lasagabaster-Saukelu Abian .....	5-4
THC-Cicatrux .....	2-3
HLB 108-AT Celaya .....	3-7
Abokajarro-Iriztu Taberna .....	2-3
Kalapatx-Total Disaster .....	0-1
Iluntz-Lasagabaster .....	2-2

**PARTIDUAK**

09:50 Abokajarro-HLB 108	Total Disast.
11:00 Dribling-Total Disast.	Abokajarro
12:00 Lasagabaster-AT Celaya	Dribling
13:00 Betrayer-Cipris	AT Celaya
16:00 Iluntz-Kalapatxak	Cicatrux
17:00 Cicatrux-Equus	Iluntz
18:00 THC-Iriztu Taberna	Equus

09:50 Abokajarro-HLB 108	Total Disast.
11:00 Dublin Irish Pub-Bar Kokots	Ekaitz
12:00 Mc Awen Dauen-Ekaitz Tab.	Dublin.
13:00 Iturrioz Tab.-Saukelu Ab.	McAwen.

**SAILKAPENA**

	P	J
1. McAwen Dauen .....	30	10
2. Betrayer .....	25	10
3. Dribling .....	22	11
4. Dublin Irish Pub .....	22	10
5. Cipris .....	22	10
6. Lasagabaster .....	17	10
7. AT Celaya .....	15	10
8. Iriztu Taberna .....	15	10
9. HLB 108 .....	15	10
10. Iluntz .....	13	10
11. Saukelu .....	13	10
12. Ekaitz Taberna .....	13	10
13. Iturrioz Taberna .....	11	9
14. Kalapatxak .....	10	9
15. Abokajarro .....	9	11
16. Bar Kokots .....	9	10
17. Equus .....	9	10
18. Cicatrux .....	9	10
19. THC .....	3	10
20. Total Disaster .....	3	10

**Norgehiagoka  
atzeratzeko  
eskaera,  
denborarekin**

Ohar hori eman dute Zaldibarko antolatzaleek, norgehiagoka bat atzeratu gura duenak denboraz ibili behar duela, alegia -gogoratu jardunaldia aurreratzea ere posible dela-. Hala, hemendik aurrera asteburuan partidu bat atzeratu gura duenak martitzenera arte izango du horretarako aukera (22:00), hortik aurrera antolatzaleek ez dute-eta aldaketarik onartuko.

## ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztiako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



bote prontuen

Toni Rodriguez > Hika osagarri dendakoa

# "Belarritako asko ditut, gehienbat, aroak"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Toni Rodriguez arrasatearrak duela lau urte zabaldu zuen Hika osagarri denda. Bertan, poltsak, zapiak eta bitxiak saltzen ditu. Gustukoa du lana, baina txikitán gehien gustatzen zitzaiona dantza eta antzerkia ziren, eta haukin zerikusia zuten ekintzak berak antolatzen zituela esan digu.

#### Noiztik denda zabalik?

Duela lau urtetik daukat denda zabalik. Hain zuen, urriaren 25ean lau urte bete ziren denda zabaldu nuela.

#### Betidanik izan duzu lanbide hau?

Bederatzi urtean, arropa denda baten ibili nintzen. Nire kontura zerbait zabaldu nahi nuen, eta denda hau zabaldu nuen.

#### Zein da gaur egun jendeak gustuko dute: bitxia edo poltsa?

Jendeak poltsa du nahiago, nahiz eta bitxiak ere asko saltzen diren.

#### Poltsa handiak daude modan. Emakumeek nahikoa leku dute horietan?



Nahikoa eta soberan. Bertan sartu nahi ez duguna ere arazorik gabe sartzen da.

#### Gaur egun, gizonezkoek poltsak eramatzen dituzte. Moda ala beharra?

Ez dut uste moda denik. Azkanean, erosotasunari begiratzen diote. Orain, emakumeak modukoak dira gizonak, poltsak erosterako orduan.

#### Orain, denda daukazu; txikitán, zein zen zure ametsa?

Orain egiteko aukerarik ez dudan arren, betidanik gustatu izan zait dantza. Txikitán dantza eta antzerkiarekin zerikusia zuten ekintzak nik antolatzen nituen eskolan.

#### Zein da gehien gustatzen zaizun bitxia?

Belarritakooa. Belarritako asko ditut, baina, gehienetan, aroak eramaten ditut ipinita.

#### Nori oparituko zenioke bitxi eder bat?

Amari, pertsona oso berezia delako nirezat eta baita nire bederatzi anai-arrebentzat.

txutxu-mutxua



IKER ISASMENDI

## Jose Ignazio Isasmendi arrasatearrari erretiroko afaria egin zioten otsailaren 1ean

Joan den otsailaren 1ean Jose Ignazio Isasmendiri erretiroko afaria egin zioten lankideek Aretxabaletako Baster-alde jatetxearen. Guztira 40 lagun inguru egon ziren afaltzen. Jose Ignazio Isasmendi Arrasatekoa da, baina Aretxabaletan bizi da. 35 urte eman ditu Fagor Kooperatibako hainbat lantegitan lanean. Lanean emandako urte hauetakoak hainbat opari egin zizkion, besteak beste, txamarra bat, erloju bat eta Donostiarriko La Perlarako bi sarrera. Afalostearen, dantza egiteko aukera ere izan zuten. Argazkian, afaltzen egin zirenak; Isasmendi eskuman makurta dagoen lehena da.

bere ustez



Antxon Mendizabal

## Frankisten gizartearren igoera

**H**au Espainia da. Amerikako konkistaren garaian 2.500 kultur eta hizkuntza ezberdin akabatu zituen. Prozesu horretan gizateriak ezagutu duen genozidiorik handiena egin duena. Berak ezarri zituen, judu eta morisko aurka munduan ezagututako lehen legedi arrazista. Hemen sortu zen kristauen inkisizioa. Espainia hori, berreskuratu zuten frankistek; eta orain hogeita hamar urte, frankistek egindako trantsizioak garai berrietara moldatu

## "Nazio zapalduet eduki ditzakete "konpetentziak", baina beti ere zero soberania"

zuten Espainia hori. Konstituzio berrian Espainia da nazio bakarra, eta Espainiar herria subiranotasunaren subjektu bakarra. Nazio zapalduet eduki ditzakete "konpetentziak", baina beti ere zero soberania.

Egoera berrian, Estatu mailan nagusi diren PP eta PSOE bihurtu dira Espainiar nazionalismo imperialaren zutabe. Sisteman integraturiko sektore eta eliteek beste lore berri bat sortu dute: kolaboracionismoa.

Bitartean, komunikabideek, eliza katolikoa eta hezketa sistemek hogeita hamar urte daramatzate kultura Euskal Herriko gizartean susstraitzeko nahian men egiten. Eskubideen estatuaren ordez, zabor estatua dugu hemen.

## Zenbaki Ahokulariak



#### Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

#### Laborala:

Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...

**Fiskala:** Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

**Kontabilitatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABAleta. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

## kapikua



Bañez doktorea 4

(San Andres auzoan)

Arrasate

Tel.: 943 79 19 94

UDALA &gt; HERRIAREN ETORKIZUNA

# Seminarioan beharrean Elementalean egin nahi du auditoriuma Udalak

Kulturan, turismoan eta alor akademikoan oinarritutako etorkizuna ikusten dio udal gobernuak Bergarari

**MONIKA BELASTEGI > BERGARA**  
 Bergararen etorkizunaren gainerako hausnarketa sakona egin du udal gobernuak. Bergarak herri gisa aurrera egiteko norabide garbia behar duela uste du, eta gaur egungo "definizio faltak" herria gainbehera daramala. Udal agintariekin uste dute eskualdearen garapena desorekatua dela, Bergararen kalterako, eta herri bakotzak bere lekua aurkitu behar duela eskualdean. Hala, uste dute Bergarak baduela beharrezko lehengaia erreferente historiko, turistiko eta kulturala izateko, eta alor horretan etorkizun oparoa ikusten diote: garbi dute hori ahalbidetuko duen proiektu integral eta orokorra behar duela.

**PROIEKTUAREN GUTXIEKOAK**  
 Proiektu hori gutxieneko hiru zutaberentz gaineran sostengatu behar dela uste dute, Agurne Barruso alkateak azaldu duen moduan: "Kultura, turismoa eta alor akademikoa dira proiektuak jaso behar dituen gutxienekoak. Kulturari dagokionez, gurea herri aberatsa da kultura edukietan. Hala, kultura ekoizpena zaintzea, kultura eskauntzarako baliabide-

ak finkatzea eta garatzea eta kudeaketa antolatzea ezinbestekotzat jotzen ditugu. Turismoaren kasuan, Bergara museo bat da. Daukagun ondare arkitektonikoa berreskuratu eta zaindu egin behar da. Turismo zirkuituetan sartu behar dugu, eta turismora baliabideak egokitzen. Alor akademikoari dagokionez, herrian unibertsitatea (UNED) izateaz baliatu behar dugula uste dugu, eta ditugun hezkuntzarako puntako zentroak bultzatu".

Oro har, Bergara kultura erreferente izateko prestatu behar dela uste dute; herri atsegina bihurtu, aisiajdirako eskauntza zabala duena. Helburu hori gauzatzeko azpiegitura egokiak beharrezkoak direnez, herriko hainbat eraikini erabilera berria ematea pentsatu dute. Irudiotan ikus daitezke eraikinok. Lehentasunak ere garbi dituzte udal arduradunek: auditoriuma eta liburutegia dira lehenengo egin nahi dituztenak.

**EPE ERTAIN-LUZEKO PROPOSAMENA**  
 Udal gobernuaren proposamena hori epe ertain-luzeko proposamena da: "Agintaldi honetan oinarriak jarriko ditugu, eta datozen gobernuak egokituko zaie garatzea", esan du Barrusok. Herri proiektua bultzatu nahi dutela ere gehitu du, eta alderdien proiektua izatetik ihes egin nahi dutela. Gaineratu du proiektuari eragiten dioten erabaki guztik ez daudela Udalaren esku bakarrik, eta gehitu du Bergararen etorkizuna eraiki nahi

dutela, "kontsensu sozialarekin, hankak lurrean ditugula eta herriko baliabideak optimizatzen".

## EKAINEAN HASITAKO PROZESUA

Hausnarketa prozesua ekainean hasi zuten eta, prozesuaren barruan, sozializazio prozesua ere eroan dute aurrera; hau da, proposamena herritarrei ezagutaz diete, hainbat batzarrez baliatuz. Hain justu ere, gaur, egubakoitza, bukatuko da sozializazio prozesu hori, nahi duten herritar guztiendako deitu duten batzar batean osoko bilkuren aretoan izango da, 19:00etan.

Ekainean hasi zen udal gobernuak proposamena lantzen eta urriira bitartean jardun zuen

horretan. Azaroaren 9an proposamena herriratzen hasi ziren; egun hartan, jatorri eta sentisibilitate askotariko 30 bat herritarrek, hasierako kontrastea eta proposamaren bideragarritasuna eta egokitasuna balioztatu zuten. Azaroaren 29an Udaleko gainerako alderdiei aurkeztu zieten proposamena eta, abenduan, Aldundiko Kultura diputatu Marijose Aranbururi. Urtarrilaren 17an, Kultura diputatu eta diputatu nagusi Markel Olanorekin sakondu egin zuten proposamenean, eta urtarrilaren 17tik gaur arte (otsailak 22), herriko eragileekin batzarrak egin dituzte proposamaren berri emateko.

## HARRERA ONA

Proposamenak izandako harrerri dagokionez, alkateak esan du oso ona izan dela, herritarrek ondo hartu dutela proposamena. Bestetik, sozializazio prozesuari dagokionez, horrek ere oso erantzun positiboa izan duela aurreratu du: "Jende asko etorri da batzarretara eta, gainera, proposamena eurekin partekatu izana, aintzat hartu izana, oso ondo hartu dute". Beste datu positibo bat herritarrek egindako ekarpenak izan dira: "Proposamari hainbat ekarpen egin dizkiote batzarretara etorri direnek, eta Udalak egoki ikusi eta onartu egin ditu horietako batzuk", azaldu du Barrusok.



**Errege Mintegia** Museoaren eta liburutegi espezializatu baten kokaleku

Espaniako Gobernuaren eraikina da. Gaur egun, UNED ikastetxea eta Aranzadi ikastola daude han. Bestalde, 400 pertsonarendako lekua eta 8 milioi euroko aurrekontua izango lukeen auditoriuma egitea dago aurreikusita, aurreko agintaldiko udal gobernuaren arabera. Gaur egungo udal gobernuak, baina, baztertu egin du asmo hori, besteari, esandako leku murriztasunarenengatik eta prezioarenengatik. Eraikina udal jabegorako berreskuratzearrekin batera, honako proposamena du: nagusien Udal Liburutegi espezializatua, Errege Mintegiko ibilbidean pilatutako ondarearen gaineko museoa, UNEDeko hainbat jarduera eta Aranzadi osoa han kokatzea. Gainera, eraikinak 1.500 metro koadroko lursaila dauka erabilgarri Haurtxoarekin batera. Lursail horren azpian aparkalekuak egingo dituzte.

**"Bergara kultura erreferente izateko prestatu nahi dugu, herri atsegina bihurtu, aisiajdirako eskauntza zabala duena"**

Agurne Barruso > Alkatea

**"Harrera ona izan du herritarako dugun proposamena. Herritarrek egindako ekarpenak jaso eta kontuan hartu ditugu"**


Agurne Barruso > Alkatea

**UGARTE**  
AROTZTEGIA - ALTZARIAK

**K21**

**arotz lanak orokorrean  
leihoak  
ateak  
horma-armairuak**

altzari denda  
ikerleku zeharbidea · bergara  
tel.: 943 03 46 30



erakusketa eta tailerra  
san juan 1a · bergara  
tel.: 943 76 54 91  
faxa: 943 76 08 04

**EDEL**  
**TAPIZ DENDA**

*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiiena*

**Alfonbrak, kordinak, kordinoiak,  
koltxak, edredoiaik, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



### Irizar jauregia Euskararen etxea

Udalaren eraikina da. Gaur egun honako eragile hauek daude Irizar jauregian: Goiena Komunikazio Zerbitzuak, Helduen Heziketa Iraunkorra (HHI), KZgunea, Bedelkar dendarien elkartea eta irratiamateurkak.

Irizar jauregiak konponketa sakonak behar ditu eta, horiek egin eta gero, udal arduradunek proposatzen dute han euskalgintza sartzea: *euskararen etxea* osatzea, hain justu ere. Gaur egun dauden gainerako eragileak kokatzeko aukera badago proiektu orokorragoan.



### Arrizuriaga jauregia UNEDen egoitza berria

Udal eraikina da Arrizuriaga jauregia. Gaur egun Jardun euskara elkartea eta kale heitzai-leek erabiltzen dute. Aurreko agintaldiko udal arduradunek Udal Liburutegiaren leku gisa ikusi zuten; hala aurreikusi zuten eta aurreproiektua ere egin zuten. Horren arabera, 2.600.000 euroko aurrekontua izango luke liburutegia han egiteak.

Gaur egungo udal agintariekin, berriz, beste aukera batzuk aztertzen dihardute: UNED ikastetxeak bere jardueraren eremu bat hara eramatea proposatu dute.



### Errotalde jauregia Gazteendako liburutegia

Murua Balzola fundazioarena da Errotalde, baina erabilten lagatzen dio Udalerri, hitzarmen bidez. Gaur egun, liburutegia, kultura etxea eta gazte informazio bulegoa daude han.

Udalaren proposamena da haur eta gazteendako liburutegia egitea han, eta gazteei zuzendutako kultura-gunea izatea.



### Miguel Altuna Auditorium berria hartuko du

Gaur egun Miguel Altuna Lanbide Heziketako institutua dagoen eraikina Hezkuntza Sailaren da. 2001ean hitzarmena sinatu zuten Hezkuntza Sailak, Etxebizitza Sailak eta Udalak. Hitzarmenaren arabera, ezkerreko eraikinaren orubeen etxebizitzak egitea aurreikusita dago eta eskumako erakina dagoen lekuau auditoriuma egitea proposatzen du Udalak. Agertokiaz gainera, bestelako aukerak ere izango lituzke auditorium horrek, ez litzateke zurruna izango.



### Olaso dorrea Herriaren mesedetara

Telesforo Monzonaren etxea Olaso Dorrea Fundazioarena da. Hain zuzen, fundazio horrek lanean dihardu dorrearen ondasunak eta baloreak herriaren mesedetan jartzeko; herriatzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundia eta Udalaren fundazioari lagunten ari dira zeregin horretan.



### Errekalede jauregia Udal erabilierarako

Udalarena da Errekalede jauregia. Gaur egun Eusko Jaurlaritzaren Irargi artxiboa dago han. 1981. urteko irailaren 15ean eman zuen ontzat orduko udalbatzak eraikina Jaurlaritzari lagatzea.

Bi urte barru Irargi Bilbora joango da. Hala, eraikina udal erabilierarako geratuko da.

# BERGARA

Margoak

Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com



# AZPEITXI

Jatetxea

Aranerreka 13 beheha. Bergara  
943 76 55 00



SALMENTA POSTUAK Ohi bezala, San Martin plazan egongo dira eta 20 jarriko dituzte, iaz baino bost gehiago. GOIENKARIA

NATURA &gt; JARDUERAK

## Bihar zuhaitz feria egingo dute, plazan

Zuhaitzak eta basoko makineria salduko duten hogeい postu egongo dira

MONIKA BELASTEGI > BERGARA  
Bihar, zapatua, zuhaitz azoka egongo da San Martin plazan. Goizean barrena izango da, eta 20 saltzaile batuko dira, iaz baino bost gehiago. Horietako bi Debagoienekoak dira, Oñatiakoak,

hain justu, eta gainerakoak Bizkaik, Errioxatik eta Kataluniatik etorriko dira, besteak beste. Batik bat, basoko eta lorategiko landareta da erakutsi eta salduko dutena, eta baita horrekin lotutako makineria ere.

Udal iturriek azaldu dutenez, Bergaratik pozik joaten dira saltzaileok. Saltzeaz gain, euron izeña ezagutarazteko ere baliatzen dituzte halako azokak, eta batearako zein besterako plaza egokia da Bergarakoa, udal iturrien esanetan.


### ZUHAITZ EGUNA

Bestetik, martxoaren 1ean Zuhaitz Eguna egindo dute. Aurreko urteetan egun berean egin izan dira zuhaitz feria eta eguna, baina aurten banatzea erabaki dute udal arduradunek, bi ekintzek izaera ezberdina dutelako: zuhaitz feria salmentara bideratuta dago eta Zuhaitz Egunak didaktikoa izan behar duela uste dute, helburua ingurumenarekiko sensibilizazioa garatzea delako. Beste ekimen batzuen artean, zuhaitz landaketa egingo da Elosun.

## disdira

ile apaindegia  
edertze gela

Masterreka 7  
BERGARA  
Tel.: 943 76 00 55



Iturgintza  
Berogintza  
Aire egokitua  
Konponketa  
Salmenta  
Arruriaga 11  
686 943 918

## Jose M. Martín

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a  
ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295

## ZABALA

JATETXEA • OSTATUA



Labegarieta, Ibarra 14  
BERGARA.

Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

## Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

JAIAK &gt; ERRAMU-ZAPATUKO FERIA

## Herri bazkaria egingo da, lehenengoz, Erramu-zapatuan

Herritar taldearen helburua erramu zapatuko eguna girotzea da

JASONE ZABALA &gt; BERGARA

Martxoaren 15ean ospatuko da Erramu-zapatu eguna, eta berrikuntza nabarmena izango du aurten. Lehen aldiz herri bazkaria ospatuko dute, herritar talde batek udalaren laguntzarekin batera sortutako ekimenaren ondorioz. Horretaz gain, nahi dute herri eta jai giroa piztea eta, horretarako, nagusiek mahozko alkandora eramatea, eta txikienek baserritar jantzia.

### GIROA PIZTEKO ASMOZ

Erramu-zapatuko egunaren oinarriak goizeko feria eta gaueko bertso saioa izan dira orain arte. Bada, aurten, herri bazkariarekin "Erramu zapatu egu-

na girotu nahi da", ekimenaren bultzatzaileetako batek, Aritz Alustizak, adierazi duen moduan. Bazkaria 14:30ean izango da; ateri baldin bada, Bideberrin, eta eguraldiak laguntzen ez badu, Errege Mintegiko patio estalian. Bazkari rako txartelek 15 euro balio dute eta Kortazar, Ariznoa, Avenida eta Pol-Pol tabernetan egongo dira salgai.

Egun honetako feria 9:30ean zabalduko dute, Ibargarai, Erret-Mintegi, Munibe, Ariznoa, Herri Lagunak eta San Martin Plazan. Jardunek antolatutako txorimalo lehiaketa ere egongo da 11:00etan. Gauean, 22:30etik aurrera bertso saioa izango da Udal pilotaleku. Bertan, Andoni Egaña, Iker Zubeldia, Beñat Gaztelumendi, Aitor Mendiluze, Sebastian Lizaso eta Ohiana Bartra arituko dira, eta gai jartzalea, Bergarako Ihigo Arzelus.



ANTOLATZAILEAK Irudian, Udaleko eta herritar taldeko ordezkariek.

J.Z.

## Herran

BERGARA

Sukaldeko altzariak: Matxiategi 4 • 943 76 37 53



12 urteko garantia  
**vegasa**

# BOLU SUKALDEAK



Gremioen koordinazioa


Aurrekontua  
konpromiso barik.

Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxa: 943 76 27 02  
[bolusukaldeak@euskalnet.net](mailto:bolusukaldeak@euskalnet.net) • [www.euskalnet.net/bolusukaldeak](http://www.euskalnet.net/bolusukaldeak)

**ELKAR**  
ELEKTRAGINTZA

ZURE  
ZERBITZURA!!

Mota guztiako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.  
**BERGARA**



**SARITUAK** Aizpurua, Sarasola, Salegi, Segura eta Gonzalez, sarekin.

ARANTZAZU E7KIRFI

**ERAKUSKETA** > AROZTEGI ARETOA

# Mendia eta natura batzen dituen argazki erakusketa

A.E. > BERGARA  
Arratsaldean irekiko dute Zaba-lotegi aretoan Trofeu Montbarbat argazki lehiaketako lanen erakusketa. Pol-Pol argazki tal-deak antolatutako erakusketa da eta Benito Kantero erakusketa antolatzaleak zera esan du: "Mendia eta natura batzen dituzten argazkiak izango dira Aroztegi aretoan ikusgai egon-go direnak"


Lloret de Mar-eko menditxaldea da Mondbarbat. Urte mordoa daramate *Mendia eta Natura* argazki lehiaketa anto-

latzen. Bergarara, baina, azken  
10 urteotako argazki sarituak  
ekarriko dituzte.

45 ARGAZKI EGONGO DIRA

**45 ARGAZKI EGUNO DIRA**  
Erakusketa ibiltaria da eta guz-  
tira ehunetik gora argazki  
dituzte. Bergarara 45 besterik  
ez dute ekarriko.

Erakusketa Aroztegi are-toko ordutegia izango du: mar-titzenetik egubako itzera 18:00etatik 20:30etara, zapatu-ten 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30etara eta dome-ketan 12:00etatik 14:00etara.



**NATURA** Erakusketan ikusgai dagoen argazki bat.

MONTBARBAT

> GAZTFTXFA

**Azken zineklub saioa egingo dute etzi gaztetxean, 'Una historia verdadera' filmarekin**

Gaztetxeak antolatutako zine-klubeko lehenengo zikloko azken emanaldia izango da domekan eskainiko dutena: David Lynch-en *Una historia verdadera*. Emanaldia, beti bezala, arratsaldeko sei etan izango da, gaztetxean. Film horren ondoren, film labur batzuk emango dituzte. Bizitzako zikloen gainekoak izan dira filmak.

# HURBIL belar denda

Zure beharretara egokitzen den **Nutrizio plana** eskaintzen dizugu, irizpide **mediko eta zientifiko** eraginkorrenetan oinarrituta. Zure **koipe, ur eta masa muskularraren** portzentajeak neurtzea ahalbidetzen digun teknologia aurreratuena erabiliko dugu, zure **nutrizio pauta pertsonalizatua** lortzeko.

#### Aurkituko gaituzu:

HUBBELL EN

Domingo Irala z/g • BERGARA

Domingo Tráiler 2  
943 76 30 08

Pisua eta bolumena  
soberan badituzu...

**falta  
zaizu**


**Pisuaren kontrolean**  
arrakasta ziurtatuta duzu!

**NOVA**  
*diet*

# Dekorazioa

Egubakoitza / 2008ko otsailaren 22a / **Arduraduna:** Iker Barandiaran / **Maketazioa:** Oxel Arrieta / **Publizitatea:** Mireia Larrañaga

BAINUGELAK  
•  
SUKALDEAK  
•  
OSAGARRIAK  
•  
EGONGELAK  
•  
LOGELAK



## ■ BAINUGELAK

# Koloretsuagoak, modernoak

IKER BARANDIARAN

**B**ainugeletan gero eta denbora gehiago ematen dugu, edota etxeko gune horren estetika gehiago zaintzeko ardura daukagu. Hala, koloreak sartzen hasi gara, kolore biziak entzimeretan batez ere; eta horrez gain, praktikotasunera jotzeko joera handia dago. Bestalde, ahalegintzen gara bainugelako elementu gehienak euren artean osagarri izaten; toalla-euskariak, txorrotak eta abar.

Konketak esegita jartzea gero eta gehiago nagusituz doa, eta marmola ez da asko erabiltzen. Joeira hori estetikoki modernoagoa

### Gero eta kolore biziagoak sartzen ditugu gure bainugeletako entzimeratan

da, eta gainera praktikoa da, horren azpia aukeran libre utzi edo beste altzari batzuk jar daitzeelako. Bezero askok kajoiak jartzen dituzte horren azpian.

Bestalde, joera handia dago kristalezko entzimerak jartzeko, eta entzimera horiek kolore biziakoak izan ohi dira.

**KOLORE KONTRASTEAK**  
Altzari berrienak teka (marraudun marroi kolorea) edota hauts-kolorekoak izan ohi dira; eta

horri berde pistatxo, laranja, gorri edota more koloreko entzimerak batzuk jar daitzeelako. Emaitzak oso kontraste berezikoak dira.

### Argidun bainuontzi, txorrota eta dutxak saltzen hasi dira hainbat lekutan

Txorrotei dagokionez, figura geometrikoak oso hedatuak daude; eta askotan horiek, txorrotak, toalla-euskariak eta termostatoak elkarren osagarri izaten dira forma eta itxuran.

#### DUTXARAKO MANPARAK

Dutxarako-itxituretan ere bada berrikuntzarik. Aspaldian kristal gardena edo marrazkiekin apaindutako kristala da nagusi; baina, hori bai, perfilak metalezkoak izan ohi dira.



Lerro zuzenak eta dutxarako itxitura gardenak.



Berogailua toalla-euskarian integratuta dago.



Konketa esegita dago eta altzariak kolore bizia dauka.

GOIENKARIA

**PROIEKTUA - DEKORAZIOA**

**Ipar**  
*project, s.l.*

**SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA-ALTZARIAK**

Telleria 23, D5 pabilioia  
Labegaraieta industrialdea  
BERGARA  
Tel.: 943 76 98 30 / Faxa: 943 76 52 44  
[www.iparproject.com](http://www.iparproject.com)

**Gremioen koordinazioa**  
**Etxebizitzen errehabilitazioa**  
**Merkatuko lehen markak**  
**Mota askotako estiloak**

## ■ SUKALDEAK

# Diseinu hotzak eta kolore beroak, nagusi sukaldeetan

IKER BARANDIARAN

Sukaldeak asko aldatu dira: lehen oso beroak ziren eta goitik behera jantziak. Gaur egungoek, berriz, diseinu hotzak eta kolore beroak uztartzen dituzte. Altzari askoz gehiago dituzte, eta koloreak ilunak dira, nahiz eta entzimerei kolore biziak gehitzenten dizkieten. Aluminiozko ertzak dituen formika ere oso erabilia da.

Gaur egungo sukaldeak janzterako orduan honako baldintzak eskatzen dituzte bezeroek: erabilgarria, modernoa, praktikoa eta erabiltszeko erraza izatea.

Horiek dira sukaldeak diseinatu, fabrikatu eta saltzen dituztenek kontuan hartzen dituzten oinarritzko puntuak.


LERO ZUZENAK, ORNAMENTAZIO BARIK  
Lerro zuzenak oso erabiliak dira altzarietan, bezeroek ahalik eta elementu eta ornamentazio gutxiagoren alde egiten dute-eta.

Bestalde, kristala asko erabiltzen dute, eta horrek sukalde horiei ukitu futurista ematen die. Are gehiago, altzarien kolorrea iluna izan ohi da: beltza edota gorri-morea, adibidez.



### APAINGARRI LANA EGITEN DUTEN KANPAI MODERNOAK

Praktikotasuna da gaur egungo sukaldeetako altzariak aukeratzerakoan kontuan hartzen dena. Horrekin lotuta, azken aldian apaingarri lana egiten duten kanpai modernoak eskaintzen dituzte. Duten forma eta kokapena-gatik jende altuari ez diote traba egiten, eta oso leunak direnez, garbitzeko oso errazak dira. Batek baino gehiagok pentsatu du telebista dela, baina ez, kanpai moderno-modernoa da.



### KOLORE ILUNEKO ALTZARIAK, ENTZIMERA BIZI-BIZIAK

Gurrezko altzariak eta txuri kolorekoak, biak, gero eta alboratuago daude. Gero eta modernoagoak dira gure arteko sukaldeak. Lerro zuzenak dira erabilienak, garbitzeko askoz errazagoak direlako; eta modernoagoak eta futuristagoak dira altzariak. Bestalde, joera handia dago altzariak beltzak edo gorri-more kolorekoak jartzeko, eta entzimeretan, berriz, kolore bizi-biziak erabiltzeko.



### ETXETRESNA ELEKTRIKOAK GOIALDEAN INTEGRATUTA

Ez da gauza berri-berria, baina esan dezakegu dagoeneko gure artean erabat errututako ohitura edo joera dela: sukaldeko hainbat etxetresna elektriko hormaren goialdean jartzearena, hain zuzen ere. Hala, oso ohikoa da mikrouhin-labea eta beste labea, ohikoa, buruaren altueran jartzea. Hala, leku erabilgarri eta praktikoen kokatzeaz gain, beste modu baten janzten du sukaldea.



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

**SVMS  
SERVIMASA**

**Sukaldeko altzariak eta osagarriak**

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173  
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49  
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa  
Tel.: 943 52 05 00 Faxa: 943 51 57 57  
20100 LEZO

**UDESIGN-SHOP.COM**

**UDESIGN**  
**follow your style**

**Zabaldu berria!**



## ■ OSAGARRIAK

# Osagarriak: gelak jantzi bain


IKER BARANDIARAN

**A**painketa eta dekorazio alorrrak uste baino garrantzitsua goak dira. Hain zuzen ere, osagarriei esker, gela edo logela baten itxura erabat alda daiteke: alfonbrak, gortinak, lanparak, erojuak, mantak... gauza asko sartzen dira osagarri deitzen diogun multzo handi horretan. Eta aukerak anitzak dira, sekulakoak...

Azken aldian logela eta egongeletan, batez ere, ikusi ditugun berrikuntza nabarienak dira horma zati baten kolore zehatz edo marrazki batzuez jositako papea jartzea; bakarrik horma zati baten. Beste aukera bat da binalozko irudi edo marrazkiak horman itsastea.

Bestela, ohitura gero eta handiagoa dago kolore iluneko altzariei koloretako elementuak batzeko: alfonbrak, gortinak, ohestalkiak...

Horrekin batera, argiek garrantzia dute, gero eta handiagoa. Ezinbestekoa da leku zehatzetan argiztatzea, eta lampara txikiak, baina estetikoak ibiltzea.



KUTSU KLASIKOKO GORTINAK, BAINA MODERNOAGOAK

**N**ahiz eta gaur egun etxeen jartzeko aukeratutako altzariek gero eta lerro leunagoak izan, eta egongela eta logeletan gero eta ornamentazio gutxiago erabili, kutsu klasikoa modernizatua gortinek eta bestelako osagarriek ematen dute. Klasikoa bai, baina modernizatua. Hala, gortinetan disdira, zilar kolorea eta beste sartzea ohikoa da. Baita ere, *fantasia* kolore deigarriak, transparentziak edota kolore zuria eta beltza konbinatzea.



KOLORE BIZIKO ALFONBRA LODI ETA ILETSUAK

**E**txea jantzeko gaur egun dagoen joera iraganeko baino ilunagoa bada ere, beti daude elementu batzuk, osagarriak, logela edo logelei bestelako bizitasuna emango diotenak. Horietako beste osagarri garrantzitsu bat alfonbra da. Aspaldi honetan saltzaileek ile luzedun alfonbrak eskaintzen dituzte, kolore bizi eta deigarriak dituztenak edota transparentziekin osatuta daudenak. Gainera, askotan, kolore askotako zatiekin osatzen dituzte horiek.


**i K E R**

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udal Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48  
**BAINUAK:** ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

**FAGOR**

# o gehiago, bizitasuna eman



PIEZA BAKARREKO LANPARA DEIGARRIAK

**E**xibitzak gero eta txikiagoak dira. Horregatik, etxe barrua janzteko joera minimalistak nagusitu da. Leku txikia daukagu, eta ez dugu trastez bete gura. Gau-maihaiak gero eta txikiagoak dira, eta lanparekin asko jokatzen da. Flexoak ez dira galdu, bueltan daude, baina oraingoz aluminiozkoak dira. Bestelakoak pieza bakarrekoak dira. Argazkian, ezkerrean, ArteMide erakusketa lanpara saritua.



MODULUKA BANATUTAKO ERLOJUAK

**E**rloju handiak gainbeheran daude. Ordua emateaz gain, diseinu polita izatea eskatzen zaie gaur egungo erlojuei. Horren erakusle, moduluka banatzten dituzten erloju modernoak. Norberak osa ditzake erlojuaren piezak bere gustura, leku handiagoa edo txikiagoa emanez. Eta horren azpian giltzak uzteko edo jakar esekiteko gailu berezia, esku baten forma daukana. Ezetz hor utzita, ezer galdu!



BETIKO KLASIKOA GAUR EGUNGORA EGOKITU

**K**lasiko kutsura itzulia, dagoeneko ez da lehen besteko klasikoa eramatzen. Adibidez, sofa berde leun baten ondoan zilar-ogiko edo urre-ogiko ohe-estalki bat ipini daiteke, bestelako ukitura emateko. Bestela, sofak marrazki bizi eta koloretsuekin jantzi daitezke. Beste aukera bat da, baita ere, hainbat kolorez margotutako lanpara ez-klasiko bat alboan jartzea, argitasuna eta kolore apur bat emateko.

JANTZIDENDA

## LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ETXE APAINKETA

## ■ LOGELAK

# Logela minimalistagoak

IKER BARANDIARAN

**A**painduran urriak dira gaur egungo logelak: altzarietako asko beltz edo zuri koloreetan lakuatuak daude, gau-maiak oso txikiak izan ohi dira eta oheen oinarriak gero eta baxuagoak dira. Hala ere, oheburukoak apaintze-ko joera dago: ehunekin, kristalekin, serigrafiekin eta beste.

Gaur egun logela askotako altzariak zuri, beltz edo teka kolorez lakuatuak daude. Horren ohitura

handia dago. Altzari kopuru txikia sartzen dute logeletan. Are gehiago, joera handia dago armairuak horman sartzeko; eta hori bai, armairu horiek lurretik sabairainokoak izan ohi dira.

**Altzari gutxi, bezeroek ez dituztelako logelak goraino bete gura; joera kontrakoa da**

**OHE-OINARI BAXUAK**

Ohee dagokionez, tendentzia da altura oso txikiko ohe-oinarri baxuak egiteko. Horren aldean, baina, oheburuak ehunekin, kristalekin edota serigrafiekin apain-


tzen dituzte. Eta horren ondoan egon ohi diren gau-maiak gero eta txikiagoak izan ohi dira; are gehiago, batuetan alde bietako gau-maiak tamaina desberdinakoak izan ohi dira.

**Oheburuak dira ikusgarrienak: ehunarekin edo kristalarekin apaintzen dituzte**

Armairuei dagokionez, aspal-dian kristalezko asko saltzen dituzte. Askotan kristal serigrafiatuak izan ohi dira edota kolorretakoak. Horrez gain, perfiletan aluminioa jarri ohi dute.

**KLASIKOARI ERE UKITU BEREZIA**

Altzari klasikoagoak aukeratzen dituztenek egurari benge (intxaurrondo beltza) kolorea ematen diote askotan, eta horri larrua gehitzen diote. Baina bai klasikoak zein modernoagoen kasuan gero eta lerro zuzenagoak erabilizten dituzte.



Ohe-oinarri oso baxuak nagusitzen dira.

GOIENKARIA



Koloretako kristalez osatutako armairuak.

GOIENKARIA



Logela janzterakoan minimalismora jotzen dute askok.

GOIENKARIA

**OMU KERAMIKAK**

ERAKUSKETA: Ignazio Zuloaga 4  
Tel./faxa: 943 79 07 20  
ARRASATE  
omu@telefonica.net



■ EGONGELAK

# Egongela, gure txoko kutuna

IKER BARANDIARAN

**E**gonlek logelek baino kutsu serioagoa daukate oraindik. Gero eta elementu bereizgarri gehiago batzen dizkiete saltzaileek eta bezeroek. Teka, intxaurrondo beltza, benge, grisa edota laku-tu zuria zein beltza dira gaur egun altzarietan gehien erabiltzen direnak.

Poliki-poliki, egoneletan kolorea gehitzen hasi dira bezeroak, oraindik nagusitu ez badira ere. Horien artean joera da kristalezkoko armairuetan kolorea edo serigrafiak sartzea.

Altzarietan, gillotina sistemakoak gero eta gehiago saltzen dituzte; hau da, goitik beherako gidaridunak (korredera).

## ESKULEKUAK ERDI-EZKUTATUTA

Bezeroek ahalik eta altzari leu-nagoak gura dituzte, eta ez dute eskulekurik ikusi gura, horregatik azken hori erdi ezkutatuta egoten da.

Telebista, berriz, armairu barruan sartzen dute; eta jira egiten duen panel baten kokatuta egoten da.



Espazioa ondo antolatzeari garrantzi handia ematen diote.

GOENKARIA



Tamaina eta premia askotara egokitutako sofak.



Oso altura txikiko mahaik, simple-singleak.



Telebistak erdi ezkutatuta daude altzari barruan.

**UGARTE**  
AROZTEGIA - ALTZARIAK

arotz lanak orokorrear  
leihoak  
ateak  
horma-armairuak



**altzari denda**  
ikerleku zeharbidea • bergara  
tel.: 943 03 46 30

**erakusketa eta tailerra**  
san juan 1a • bergara  
tel.: 943 76 54 91  
faxa: 943 76 08 04

Eskaintza honek 2008ko otsailaren 14tik 23ra balio du

## Zure erosketak **OPARIA** dauka

Erosi adierazitako eskaintzak eta lortu produktuak oparitan



ORAIN ERROSKAZKO  
TAPOIAREKIN



**0,79€**

Esnea, **EROSKI**,  
osoa edo  
erdigaingabetua edo  
gaingabetua, litro 1

BERDINAK EDO  
KONBINATUAK

**5 UNITATE  
EROSITA**



**Beste unitate bat  
OPARI**



**EROSKI**  
zurekin

> MENDIA

## Martxoaren 2rako mendi irteera antolatu dute, Kantabriara

Bergarako Gorla Alpino taldeak eta Pol-Pol mendi elkarrekin irteera antolatu dute martxoaren 2rako (domeka).

Egun osoko irteera izango da, Kantabria aldera. Ampuero setik irten eta Virgen de las Nieves-ekigitaratza Ambasaguas-era egingo dute. 07:30ean izango da hitzordua, eta pilotaleku parean egongo da autobusa. Joan nahi duenak Pol-Pol tabernan ditu txartelak.

> KARATEA

## Shotokan taldekoek hainbat domina eskuratu zituzten

Shotokan karate elkartekoek hainbat domina eskuratu zituzten joan den astean, Aretxabaletan. Benjaminetan, Iker Osinaga izan zen lehena eta Ekiñe Gartzia bigarrena. Alebinetan Mikel Gallastegi gailendu zen, eta Mikel Soto izan zen bigarren. Alebinetan, baina gerriko marroi arte, Irati Rodriguez eta Maialen Goirizelaia gailendu ziren. Eta Infantiletan aurrean izan ziren Haizea Iñarra eta Jon Urkia, besteak beste.

FUTBOLA > ERREGIONALA

# Lazkaora joango da bihar Bergara, goialdean jarraitzeko hiru puntuengatik (16:00)

Hiru puntura jarraitzen du liderrak, baina aurrealdean dauden taldeetako inork ez du amore ematen; hiru talde daude 37 puntuerekin

XABIER URTZELAI > BERGARA

Preferentea begiz jota du Bergarak, baina ez da bakarra. Amaiak Bat da liderra (40), baina ikustekoa da atzetik datozen taldeek zelako borroka duten, inork ez du amore eman gura. Joan den astean, Rotetak (37), Antzuolak (37) eta Bergarak 20. jardunaldi-ko azterketa ondo gainditu zuten, baina gainean dago hurrengo azterketa, 21.a, eta oraindik beste hamar geratzen dira.

Bergarak zapigarren postuan dagoen Lazkaoren zelaira egingo du bihar bisita (16:00). Talde horren gainean berba egitera-



BURUZ Mahoneroak Martuteneren kontrako partiduan, Agorrosinen.

J.A.

### ONDOKOEN JARRAIPENA

Geratzen diren jardunaldietan, aurreko lau taldeek gertutik jarraituko dituzte ondoko non-dik norakoak. Hala, Antzuolak bosgarren dagoen Urolaren zelaian izango du azterketa gogo-renea (zapatua, 16:00).

## Iabegaraieta

### EMAITZAK

Latinos.com-Errota-gain .....	3-6
Los Blus-Iribide.....	8-5
Komando Piperrak-Niu Tim .....	12-2
Tiki-Taka-Irish Pub .....	2-5
Hamaika Jintxi-Belengua .....	10-2
Deportivo Oriente-Carboneros .....	1-14

### PARTIDUAK

Otsailak 23, zapatua, barruan	Epaileak
12:30 Komando Pip.-Errota-Gain	Federaz.
Otsailak 24, domeka, barruan	Epaileak
09:30 Deportivo Orien.-Irish Pub	Latinos
10:30 Latinos.com-Niu Tim	Deportivo Ori.
17:00 Los Blus-Belengua	Carboneros
18:00 Hamaika Jintxi-Carboneros	Belengua

### SAILKAPENA

	P	J
1. CM Errotagain .....	39	14
2. Komando Piperrak .....	34	14
3. Irish Pub .....	32	14
4. Los Blus .....	28	14
5. Carboneros .....	25	14
6. Tiki-Taka .....	19	14
7. Belengua .....	17	14
8. Niu Tim .....	16	14
9. Latinos.com .....	9	4
10. Iribide .....	9	14
11. Hamaika Jintxi .....	10	14
12. Deportivo Oriente .....	0	14
13. El Mapet .....	0	10

## Federazioko epaile eta guzti

Zapatu eguerdian, ondo dabiltsan Errotagain eta Komando Piperrak taldeek partidu erabakigarria jokatuko dute. Federazioko epaile batek epaituko du partidua.



**Mirari**

JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

**%30eko %40eko eta %50eko deskontuak**



# PROMOCIONES ARAMAIXO

**11 etxebizitza berri Aramaioko erdigunean**




- Aramaio, zerbitzu guztiak dituen herria.
- Eraikuntza-fase oso aurreratua.
- Erabilgarriak diren 166 m<sup>2</sup>-tik gorako etxebizitzak, 89 m<sup>2</sup>-ko beheko solairua bi-hiru ibilgailurentzako garajearekin.
- 480.000 €-tik aurrera.
- Lursaila eta 24m<sup>2</sup>-ko terraza.
- Polo Garaia berrikuntza gunetik 8 minutura.

**Informazio gehiago:**

**630 31 13 18 / 659 93 53 70 / 619 71 60 65**

**Nardeaga kalea 26**



**ximur xamurrak**  
edadetuen sexualitatea

• **Eskuratu zure liburua DOAN!**

Zure alea zain daukazu, **eskuratu ezazu!**

• **NON**

Jubilatuen etxe bateko bazkidea bazara, hantxe bertan jaso dezakezu. Bestela, **BAZEN** (Biztalementzako Arreta Zerbitzuan) edo **SEXOLOGIA ZERBITZUAN** eskatu dezakezu.

• **NOIZ**

Otsailaren 18tik aurrera.

**Sexología Zerbitzua**  
[www.sexologiazerbitzua.com](http://www.sexologiazerbitzua.com)  
943 25 20 66

**ARRASATEKO UDALA**

Eusko Abertzale  
Ekintzak aurkeztutako  
mozioa ez zuen onartu  
udalbatzak

Aralar, EA, EAJ eta  
Ezker Batua-Berdeak  
alderdiek ordezko  
mozioa aurkeztu zuten

"Aurrekontuaren  
adoste prozesua  
informala izan da, eta  
epea, motza", esan  
zuten EAJko zinegotziek

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**  
Astelehenean onartu zuen udal-  
batzak 2008ko udal aurrekontua.  
Alderdi Sozialistako zinegotzi  
biak ez ziren egon ezhohiko oso-  
ko bilkuraren, gaixotasun bat tar-  
teko, eta eurek aurkeztu behar  
zuten mozioa atzeratu egin zuten.

**EAE-ANV-REN GAINeko MOZIO BI**  
Eusko Abertzale Ekintzaren jar-  
duera etetearen gaineko mozioa  
irakurrita hasi zuten osoko bil-  
kura. EAE-ANVko kideek eurek  
irakurri zuten, eta, beste kontu  
batzuen artean, hau esan zuten:  
"Larría da Espainiako Estatuak  
EAE-ANVren jarduera etetea,  
eta independentziari ateak ixten  
dabilta". Mozioa bozkatu zuen  
udalbatzak, eta EAko eta EAJko  
zinegotziek ezetza eman zioten;  
Aralar eta Ezker Batua-Berdeak,  
ostera, abstentu egin ziren.

Alkateak ordezko mozioa aur-  
keztu zuen, Aralar, EA, EAJ eta  
Ezker Batua-Berdeak alderdien  
izenezan. "Onartzina da alderdi  
bat kanpoan uztea", aipatu zuen;  
"giro politikoa gehiago gaitzo-  
tzen bakarrik dator". Eta gaine-  
ratu zuen: "Pertsona guztiak dute  
Udalean parte hartzeko eskubi-  
dea, eta proiektu politiko guztiak  
egin behar dute aurrera bide  
baketsuak erabilita".

**EAJ-REN ABSTENTZIOA**  
2008ko udal aurrekontua aurkez-  
tu zuen alkateak, 12 milioi euro  
inguruko aurrekontua. Iaz bai-  
no bi milioi euro gutxiago aurre-  
kusi dute, aurten diru gutxiago  
jasoko duelako Udalak etxebizi-

**UDALA > 2008KO UDAL AURREKONTUA**

# 12 milioi euroko aurrekontua onartuta, %35 inbertsiotarako



MOZIOA Eusko Abertzale Ekintzako kideek EAE-ANVren jardueraren etetearen gaineko mozioa irakurri zuten.

M.A.

## 2008ko udal aurrekontua

### Aurrekontua, batzordeka

Alkatezta	2.942.086 €
Hirigintza	2.832.370 €
Zerbitzuak	2.006.653 €
Ongizatea	730.793 €
Kultura	920.037 €
Kirolak	288.830 €
Euskara	277.362 €
Baserri-auzoak	326.684 €
Ogasuna	244.808 €
Ingurumena	137.361 €
Gazteria	95.931 €
Udalzaingoa	42.230 €

### Inbertsio aipagarrienak


Mitarte eta Herriko Plazako saneamendu lanak	1.100.000 €
Kirol etxe berria	1.000.000 €
Lursailen erosketa	500.000 €
Lokal baten erosketa	355.000 €
Bedoña-Larrino ibilbidea berreskuratzea	140.000 €
Nekazal arloko inbertsioak	130.000 €

Aurrekontu osoa	12.053.404 €
Udal aurrekontua	11.502.904 €
Urats Gain zaharren egoitza	731.828 €
Aretxabaletako Bihargintza SA	107.574 €

tzen lanen zergetatik. Aurrekon-  
tuaren %35 inbertsioak egiteko  
izango da, eta aipagarrienen arte-  
an daude Herriko Plazako eta  
Mitarte kaleko ur saneamendu  
lanak eta kirol etxe berriaren  
lanak.

Aurrekontuak Aralar, EA eta  
Ezker Batua-Berdean aldeko  
botoa jaso zuen. EAJko zinego-  
tziak abstentu egin ziren: "EAJk  
egindako proposamen garrantzi-  
tsuenak ez dira jaso, txikiak  
bakarrik. Gainera, adoste proze-  
sua oso informala izan da eta epe  
motza egon da; beste patxada bat  
beharr du aurrekontuak", azaldu  
zuen Arrixu Oliden zinegotziak.



# EGUZKIGRAF

inprimategia

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com

## ERRETIRATUAK

## Martxoaren 1a ospatzeko txartelak salgai daude

Aingeru Guardakoa zaindariaren eguna ospatzeko bazkaria egingo dute

**M.A. > ARETXABAleta**  
Ospakizunarekin hasiko dute Aretxabaletako erretiratuek martxoan, eta ostean, beste hainbat ekintza dituzte. Martxoaren lean, zapatua, Aingeru Guardakoa zaindariaren eguna ospatuko dute, urtero legez. Meza entzun eta gero, Baster-Alde jatetxera joango dira bazkaltzera, autobusean. Horretarako, baina, aurre hartu behar dituzte txartelak, eta hiru egunean salduko dituzte Basotxoko egoitzan: gaur, egubakoitza; astelehenean, hilak 25; eta martitzenean, hilak 26, 11:00etatik 12:30era bitartean. Bazkideek 25 euro ordaindu beharko dute –bazkide txartela erakutsi behar da–, eta bazkide ez direnek, 33,50 euro.

**MAHAI-JOLAS TXAPELKETA**  
Martxoaren 6an, eguna, 2008ko mahai-jolas txapelketa egingo dute. Musean, brisan, tutean eta dominoan jokatu ahal izango dute erretiratuek. Horretarako, aurreko egunetan eman behar dute izena Basotxon, 10:30etik 12:00etara.

Eta martxoaren 13an urteko batzarra egingo du Basotxo erretiratuen elkartea. Zuzendaritza batzordea aldaketa dute orduan, eta, bazkideen artean boluntarioren bat egonez gero batzorderako, oraingo zuzendaritzako kidekin egin dezala berba.

## HEZKUNTZA &gt; ARETXABAleta INSTITUTUA

# Tailer berria dute institutuan

Soldadura eta metal eraikuntzetako tailerra da, eta 1.000 metro koadro inguru ditu; Euskal Herriko handienetako dela esan dute

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**

Soldadura eta metal eraikuntzetako tailerra egiten ibili dira Aretxabaletako lanbide institutuan, eta dagoeneko gertu daukate. Kirolegia zegoen lekuaren egin dute, eta orain dela urtebeteari, 2007ko urtarrilean, hasi zituzten lanak. 1.000 metro koadro inguru ditu tailerrak, eta, institutuko arduradunen esanetan, "seguru asko, espezialitate honetan Euskal Herrian dagoen handiena izango da". Tailerra martxan daukate, baina inaugurazio ekitaldi ofiziala apirilean egingo dute.

**SOLDADURA IKASTAROAK BETETA**

"Soldadura eta metal eraikuntzetako tailerra egiten ibili dira Aretxabaletako lanbide institutuan, eta dagoeneko gertu daukate. Kirolegia zegoen lekuaren egin dute, eta orain dela urtebeteari, 2007ko urtarrilean, hasi zituzten lanak. 1.000 metro koadro inguru ditu tailerrak, eta, institutuko arduradunen esanetan, "seguru asko, espezialitate honetan Euskal Herrian dagoen handiena izango da". Tailerra martxan daukate, baina inaugurazio ekitaldi ofiziala apirilean egingo dute.



TAILERRA Urdin eta zuri koloreko horma duen eraikina da tailer berria. INSTITUTUA

## TXILARRA belar denda

Zure beharretara egokitzen den **Nutrizio plana** eskaintzen dizugu, irizpide **mediko eta zientifiko** eraginkorrenetan oinarrituta. Zure **koipe, ur eta masa muskularraren** portzentajeak neurtea ahalbidetzen digun teknologia aurreratuena erabiliko dugu, zure **nutrizio pauta personalizatua** lortzeko.

Aurkituko gaituzu:

**TXILARRA**n

Durana 35 behe • ARETXABAleta

943 79 10 15

Pisua eta bolumena soberan badituzu...



**Pisuaren kontrolean**  
arrakasta ziuratuta duzu!



**> HERRI KROSA**  
**Sahararen aldeko herri krosa domekan, lesbaak antolatuta**

Domekan, otsailak 24, herri krosa egingo dute Sahararen alde. 12:00etan izango da, eta eliza parerik aterako dira. Hona ibilbidea: Errekabarren kalea, Andramari auzunea, Basabe poligonoa, Mendiola auzoko bidegurutzea, Loramendi kalea, Bizkaia kalea, Araba ibilbidea, Mitarte kalea, Durana eta helmuga. Helduek bi buelta emango dituzte, eta 12 eta 15 urte arteko gazteek, Errekabarrenetik Ilargi plazara egingo dute eta Duranatik helmugara. Umeak, osteria, Durana kalean ibiliko dira. Dortsalak 11:00etan jarriko dituzte salgai egunean bertan. Dortsal bakoitzaren prezioa 3 eurotakoa da.

Aitor Biain > Ganbara Abesbatzako zuzendaria

# "Irailean grabatuko dugun diskoan abesbatzaren bost urteko ibilbidea jaso nahi dugu"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Ganbara Txiki abesbatzak asmo asko ditu 2008rako. Horien artean, discoa grabatuko dute. Asmo horietaz egin dugu berba taldeko zuzendari Aitor Biainekin.

Jakin dugu disco bat grabatuko duzu... Konta egiguzu.

Bai, hala da. Datorren kurtsoan, 2008-09an, abesbatzak bost urte beteko ditu. Egia esan, atzo hasi ginela ematen du. Hala, zerbaite berezia egin gura genuen. Hain zuzen, bosgarren urteurreneko proiektuetako bat discoa egitea da. Bost urte hauetako bidea bildu nahi dugu discoan. Erronka handia da, baina ilusioz beteta gaude.

Zergatik erabaki duzue discoa orain grabatzea?

Orain, korua momentu goxoa dagoela esan genezake. Lan handia egiten gabiltza, eta abesbatza, poliki-poliki, aurrera doa. Gainera, bosgarren urteurrenareta joka dugu. Horregatik guztitik, momentu egokia dela pentsatu dugu.

Non grabatuko duzue discoa eta nolakoa izango da?

Diskoa Azkoitian grabatuko dugu NB Produkzioak etxearekin, iraileko hirugarren astean eta hiru egunean: egubakoitzean, zapatuan eta domekan.

Eta gure asmoa da publiko guztidako discoa egitea. Hala, estilo desberdinak bilduko ditugu: besteak beste, eliz musika, euskal musika, gospel eta jazz. Gustura entzuten diren disco horietako bat egitea dugu helburu; ez dadila izan egun baten entzun eta apalera joaten diren horietakoak.

Zuk esan bezala, bosgarren urteurrenareta datorren urtean izango duzue. Zerbait aurrera daiteke?

Guretako, oso importantea da haur abesbatza, eta horri bultzada emateko hainbat ekintza egingo ditugu. Alde batetik, haur abesbatzarekin lotutako musika ziklo bat egingo dugu urri eta azaro bitartean. Hain zuzen, Euskal Herriko punta-puntako hainbat abesbatza gonbidatuko ditugu ziklora.

Bestalde, Gabon ingururako, Gabonetako kontzertu berezi bat egingo dugu orkestrarekin eta, aldi berean, discoaren aurkezpen berezia egingo dugu. Kontzertu horretan, euskal konpositore famatuak Ganbara Txiki abesbatzaren espresuki idatzitako obra batzuk estreinatuko ditugu. Eta aurrera begira, zerbait gehia-goe ere egingo dugu.



Aitor Biain, Ganbara Txiki abesbatzako zuzendaria.

M.B.

**"Estilo asko bilduko  
ditugu: besteak beste,  
eliz musika, euskal  
musika, gospel  
eta jazz"**

**"Madrilen bi kontzertu  
emango ditugu,  
martxoaren 23an  
eta 24an"**

Aste bukaera honetan, kontzertua eskainiko duzue Zarautzen. Eta hemendik aurrera beste hainbat dituzue.

Bai. Hainbat kontzertu ditugu Madrilera joan aurretik: Zarautzen hasita, Ordizian (martxoak 1), Elgoibarren (martxoak 8) eta Oñatin (martxoak 16) kantatuko dugu. Oñati emanaldia Agustindarren elizan izango da. Kontzertu guztiak Ganbara Txiki abesbatzak eskainiko ditu.

**Madrilen ere bi emanaldi egingo dituzue martxoan. Nolatán?**

Madrilen bi kontzertu emateko aukera eskaini ziguten, eta horregatik bidaia bat antolatzea bururatu zitzagun. Bi kontzer-

tuak martxoaren 23an eta 24an emango ditugu, Madrilgo bi elizatan.

Era berean, kontzertuez gain, beste hainbat ekintza egingo ditugu: Warner parkea bisitatu, *La bella y la bestia* musikala ikusi, Reina Sofia museoa bisitatu... Ez dugu aspertzeko denborarik izango. Talde guztia oso motibatuta dago, eta hara joateko gogo handiarekin.

**Orain arte kontatutako guztia  
irakurrita, Ganbara Abesbatzaren  
proiektua aurrea doa  
la esan daiteke?**

Duda barik, bai. Ganbara Txiki Abesbatzaren proiektua geroz eta handiagoa da. Dagoeneko, 120 bat neska-mutiko daude gurekin lanean, eta horrek esan gura du gauzak ondo egiten ditugula. Hortaz, oso pozik gaude. Horrela jarraitu behar dugu lanean, gure harrobia handitzen eta formatzen.

**Ze etorkizun ikusten diozu  
abesbatzari?**

Gure asmoa taldea handitzea da, eta formazio ona ematen jarraitzea. Ideia eta proiektu asko ditugu, eta horiek egiten joango gara, poliki-poliki. Ez dugu inolako presarik.

UMEAK > JAIALDIA

## Marsel magoa, haur parkea eta ipuin kontalaria bihar, Elkar Heziren eskutik

Arratsaldeko lauretan  
hasita, hainbat  
ekitaldi egingo  
dituzte Arantzazuko  
Ama kaleko  
eraikinean

M.B. > OÑATI

Bihar arratsalderako, jaialdia gertatu du Elkar Hezi ikastetxeak. Arratsaldeko lauretan hasita, hainbat ekitaldi egingo dituzte ikastetxeo Haur eta Lehen Hezkuntzako eraikinean.

Bestalde, antolatzaleek gogoratu nahi dute, ekintzak ikastetxeen egingo diren arren, herriar guztienak irekiak direla; baina, batez ere, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikasleenda eta haien gurasoendako.

**HAINBAT TAILER**

Puxika-flexia tailerra, txorimaloen buruak egiten ikasteko tailerra eta aurpegia margoteko tailerrak emango dira haur

parkearen barruan. Bestalde, umeendako jokoak egongo dira. Gainera, ikasleek serigrafia ikastaroan egin dituzten lanen erakusketa egongo da ikusgai.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleendako ipuin kontaketa saioa eskainiko du Ixabel Milletek, 17:00etatik 18:00etara. *Elkar Maite* ikusizunaren barruan, *Kanturik gabeko herria* eta *Jainko-jainkosek ez dakite dena* ipuinak kontatuko ditu.

**MARSEL MAGOA**

Magiarako tartea ere egongo da bihar arratsaldean, izan ere, Marsel magoak tailerra emanago die 11 eta 14 urte arteko neska-mutikoei, 15:30etik 18:00etara. Tailerra bukatu ondoren, magia ikusizuna hasiko da, eta, han, tailerrean ikasitakoa erakusteko aukera izango dute ikasleek.

Gozogintzak ere tokia izango du bihar, Elkar Hezikoa ikasleek gozogintza tailerrean egindako jakiekin merienda egindo dute-eta, 15:30etik 18:00etara bitartean.

> EMANALDIA

## Bertso-eskolaren 25. urteurreneko ekitaldien barruan, gaur gaelean, 'Gu ta gutarrak' saioa

Oñatiko bertso-eskolak antolatuta, bertsoa eta musika nahasten dituen *Gu ta gutarrak* ikusizuna egongo da gaur gaztelekuaren. Gaeuko hamar eta erditan hasiko den emanaldian, Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariak eta Josu Zabala, Aitor Rubio eta Xanpe musikariek parte hartuko dute. Gainera, gonbidaturen bat igoko da taula gainera haiekin kantuan egiteko.

*Gu ta gutarrak* emanaldirako sarrerak txarteldegian bertan jarriko dira salgai.

> HITZALDIA

## Haur eta nerabeen agresibilitateari buruzko hitzaldia antolatu du Txantxiku ikastolak

Gurasoendako hitzaldi zikloarekin jarraituz, haur eta nerabeen agresibilitateari buruzko hitzaldia antolatu du Txantxiku ikastolak, martitzenerako. Gasteizko ISEP-CLINIC taldeko psikologo Izar Mendiak agresibilitatearen inguruan egingo du berba; besteak beste, agresibilitatearen garapenean eragiten duten faktoreak eta agresibilitatea bideratzeko irizpideak zeintzuk diren azalduko du. Hitzaldia 18:30ean hasiko da ikastolako aretoan eta Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleen gurasoei dago zuzendua.

> HITZALDIAK

## Ingurumen asteko lehen hitzaldia astelehenean egingo du Migel Mari Elosegik

*Barrera-efektua faunarenagan* izeneko hitzaldia izango da ingurumen asteko hitzaldi zikloari hasiera emango diona. Gizakiok erakikitako azpiegitura erraldoiek faunan duten eraginaz egingo du berba biologo eta basozain Migel Mari Elosegik. Hitzaldia Natur Eskolan izango da, 19:00etan.

Toki eta ordu berean izango da martitizeneko hitzaldia. *Espezie inbaditzileen eragina ekosistemetan* izeneko gaiaz egingo du berba Urdaibai Biosfera Erreserbako zuzendari Kiko Alvarezek.

ETXEBIZITZAK &gt; UDALEKO ETXEBIZITZA POLITIKA

# Etxebizitzak sozialak eta errentan hartzekoak egin gura ditu Udalak

Udalean sartu zirenean "antolamendu eta ekonomia txarrak" zirela esan du udal gobernuak

Arbiñosteko ekimen pribatuek legez Udalari etxebizitzak egiteko dirua emango diote

Kuatriuena eremuan etxe gehiago eta merkeagoak egiteko elkarriketetan dabil Udalak

IKER BARANDIARAN &gt; ESKORIATZA

Udal gobernuak aditzera eman du etxebizitzaren gainean Udalak daukan politika, prentsa ohar baten bitarbez. Hala, Eskoriatza-k EB-Berdeek orain dela gutxi Udalaren "etxebizitza politikariak eza" salatu zuten, eta horri erantzuteko modua ere bada Udalak argitara eman duen idatzia.

Udal gobernuaren esanetan, etxebizitzarena eskoriatzarrek daukaten arazo nagusienetako bat da. Horren harira, honako hau azaldu dute: "Administrazio publikoen ardura handienetako bat herriarrei modu onean etxebizitza duina eskuratzeko erraztasunak ematea denez, agintaldia hasi bezain laster, lanari heldu

genion arazo hori konpontzeko asmo garbiarekin". Baino, horren aurrean, traba batzuk izan dituztela azpimarratu gura izan dute: "Udalaren ardura hartu genuenean Udalak zeukan antolamendu eta ekonomia egoera txarra zela eta, hori traba latza izan da eskoriatzarren eguneko arazoei erantzuteko".

**ETXEBIZITZA SOZIALAK**

Horrez gain, beste traba bat izan dutela argitu digute, herrian dauzen etxebizitzarena ekimen pribatuekin lotuta: "Aurreko agintaldian hasi barik gelditu ziren Santa Marina-Arbiñoste, Aranburuza-bala eta San Juan-Hidalgo etxebizitzak egiteko ekimenak. Eta kontua da ekimen horiek lurzoru lege berriak behartuta, Udalari diru kopuru bat ematera behartuta daudela".

Hala, udal gobernuaren esanetan, Santa Marina edo Arbiñosten egin beharreko 150 etxebizitzaren ondorioz, Udalak milioi bat euro inguru jasoko luke: "Gure asmoa da diru hori etxebizitza sozialak egiteko erabiltzea, baina etxebizitza pribatuak egin artean ezin dugu diru hori izango dugula ziurtatu".

**EKIMEN PRIBATUEK BALDINTZATU**

Hain zuzen ere, udal gobernuak argitu du Arbiñosten egin behar dituzten etxebizitzaren tasatuen proiektua abian dagoela, eta horregatik Visesarekin pozik daudela. Gainontzko ekimenekin, pribatuekin, kexa handiagoak dituzte: "Aurreko agintaldian beste ekimen horiek geldi egon ziren, eta ez dakigu zergatik. Horren erantzule diren lau empresekin harremanetan jarri izan

gara, eta argi eta garbi azaldu diegu lanak aurrera eramatzen ez baditzute, desjabetzeak egin ditzakegula.

**KUATRUENAN, ETXE MERKEAGOAK**

Bestalde, Elorreta eta Kuatriuena eremuetan proiektatutako luxuzko etxebizitzaren eraikitzaleekin harremanetan jarri da Udalak, etxe txikiagoen kopurua handiagoa izan dadin, eta prezioak "onargarriagoak" izan daitezzen. Horrez gain, aurreratu digute Kuatriuena etxebizitza tasatuera eraikitzea modua aztertzen dabilzala.

Bukatzeko, azpimarratu dute Jaurlaritzako ordezkariekin hainbat batzar egin dituztela udalerrian errentako etxebizitzak eraiki ahal izateko aukerak aztertzeko. Udalak leku bila dabil Jaurlaritzari eskaizteko.

MUSIKA &gt; LATZENEN KONTZERTUAREN BALORAZIOA

## Latzenen kontzertuaren gaineko balorazio positiboa egin du Kultura batzordeak

Udaleko Kultura batzordeak nabarmendu du autobusak antolatzea aurrekari oso garrantzitsua izan zela

I.B. &gt; ESKORIATZA

Martitzenean Udaleko Kultura batzordeak batzarra egin zuen eta Latzen, Aby-Kem eta Governors taldeek otsailaren 9an kirolegian egin zuten kontzertuaren gaineko balorazioa egin zuen.

Kultura batzordeko kideek esan digute oso balorazio positiboa egiten dutela: "1.100 bat ikusle izan ziren, horietako asko kanpokoak".

**IKUSLEEN JARRERA ONA**

Horrekin lotuta, Kultura batzordekoek nabarmendu dute ikusleen jarrera oso ona izan zela, bai kontzertuan eta baita herrian ere.

Antolakuntza lanari dago-kionez ere berba onak izan dituzte: "Erabilitako baliabide teknikoak eta segurtasun neurriak primerakoak izan dira; eta halakoa izan zen ikuskizuna ere, oso profesionala".

Bestalde, Kultura batzordeak nabarmendu du Kulturako teknikariak, kirodegiko langileek eta udal brigadak txalotzko lana egin dutela.

Autobusei dagokionez, aleginak merezi izan duela uste dute, eta azpimarratu dute aurrekari garrantzitsua izan dela, ekitaldi berezietan edo herriko jaietan errepikatzeko modukoak.

Alde negatiboei dagokionez, desmuntatze lanak gau ia osoa iraun zuen, eta horrek bizilagunen kexak eragin ditu zarataengatik. Horrez gain, astebeetan kirodegiko kantxa erabili ezinik egin da.

ELKARTASUNA &gt; SAHARAR ERREPUBLIKA ARABIAR DEMOKRATIKOAREN URTEURRENA

## Martxoaren 1ean, saharar herriaren aldeko jai erraldoia egingo dute Eskoriatzan

I.B. &gt; ESKORIATZA

EAEn lan egiten duten Saharan lagunen elkarteeek osatutako Otsailak 27 koordinadorak jakinari digu martxoaren 1ean saharar herriaren aldeko jai erraldoia egingo dutela herrian.

Jai horren helburua da Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD) sortu zeneko 32. urteurrena ospatzea. Eta bide batez, herri horren egoeraren berri eman eta salaketa egitea.

**FRONTE POLISARIOKO KIDEAK**

Ekitaldiak 11:00etan hasiko dira herriko plazan, eta bazkalordura arte tea dastatzeko aukera izango da. Horrez gain, 11:00etan, Zaki magoak zirku-tailerra eta magia jolasak egingo ditu umeeendako.



EZAGUTZEA Jaiaren helburua da saharauien errealitatea ezagutzea.

GOIENKARIA

13:00etan Fronte Polisarioko eta Otsailak 27 koordinadorako ordezkariek mitina egingo dute Sahararen egoera azaltzeko.

Horren ostean, herri bazkaria egingo dute pilotalekuaren Txartelak salgai daude Azkoaga Enean, eta edozein joan daiteke.

**BENGOA URDAITEGIA**

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta

Tel.: 943 79 19 79

## GARBITU KOOP. ELK.

*Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak*

*Obra bukaerako garbiketak*

*Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak*

*Kristalen garbiketak*

Errekabarren 3- Behea ARETXABAleta

Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 629 45 02 21

garbittu@euskalnet.net

Ibon Segura > SMS lehiaketako irabazlea

# "Zarimutz auzoan txakurrekin ibiltzen naizenean inspiratzen naiz idatziak egiteko"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Ibon Segura herriko udaltzaina da azken urteotan. Baino herritaraskok ez daktena da bertsoak, SMSak eta bestelakoak sarritan idazten dituela, eta hainbat lehiaketan sariak irabazi dituela. Azkeneko saria Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketako SMS onena idaztearen izanda, honako hau hain zuzen ere: *elurrraktizotzak 1 egiteanez dago giroa brotzerik; buruak t bihotzak 1 egiten dutnean ez dago zuganako maitasuna hozterik.*

Esan didatenez, lehiaketetan esku hartzeko ohitura handia daukazu. Hala da?

Tira, batzuetara aurkezten naiz. Batez ere San Pedrotan Udalak antolatzen dituen esaldi lehiaketetan; pare bat bider Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketan, gutunak zein SMSak idazten; iaz lehenengo egin zuten Euskadiko SMS lehiaketan; eta orain dela gutxi, *Garaegunkariak* egin duen Maletilla Bertso Txapelketan ere esku hartu nuen.

Eta saririk eskuratu duzu orain arte?

San Pedrotako esaldi lehiaketan, dirua eta afareen bat irabazi izan ditut. Horrez gain, iaz Euskadiko SMS txapelketan argazki kamera bat eman zidan; eta Maletillan, kamiseta batzuk eskuratu nituen.

Bertsoak egiteko zaletasun handia daukazu, hortaz?

Ez hain handia, ez pentsa. Bertsoak gustatzen zaizkit, baina ez ditut askotan idazten. Mutikotan ibiltzen nintzen bertsoak idazten, baina gerora utzi egin nuen. Baina orain dela urte batzuk, Udaleko langile bat erretilratu zenean bertso batzuk idatzi nituen, eta ordutik hona lan-

kideak bertso eskean ibiltzen zaizkit. Zaletasun hori suspertzen *lagundu* didate. Hala ere, nire zaletasun handiena kirola da: bizikletan ibiltzea eta korrika egitea. Horiek dira gehien gustatzen zaizkidan gauzak. Gainera, nik Soin Hezkuntza ikasi nuen.

Erromantikoa ala saltseroa zara?

Ez, ez naiz saltseroa, eta erromantikoa, ez dakit zer esan... emaztearen esanetan, behintzat, ez naiz.

Sakelako telefonoa gustuko duzu?

Gezurra badirudi ere, ez dut oso gustuko. Orain dela bi urte erosi nuen sakelako telefonoa, ia derrigortuta. Emazteak esan zidan erosteko, eta azkenean haritu nuen. Onartzen dut gauza batzuetarako ondo datorrela, baina hobeto egongo ginateke hori barik. Lehen, ederto moldatzan ginen halako telefono barik, eta ez geneukan horren premiarik.

Zer esango zenieke sakelako telefonoa hotza dela diotenei?


Neurri baten, arrazoia dute-la. Egia da hitzez eta aurrez aurre esatea baino hotzagoa dela, baina izan daiteke hotza edo beroa guk jartzen dugunaren arabera. Hala ere, neuri gehiago kostatzen zait halakoak hitzez esatea.

Zarimutzen ez dago maitasuna hozterik?

Maitasuna ez dakit, baina inguruko guztia, bai, batzuetan goraino hozten da. Etxean ez daukagu berogailurik... pentsa.

Non eta noiz inspiratzen zara idazteko?

Beti leku eta une berean pentsatzen dut zer idatzi. Hori da nire-



Segurak Amodiozko Gutunen Lehiaketako SMS onena idatzi du. I. BARANDIARAN

**"Udaleko langileek 'lagundu' didate bertsoen gaineko zaletasuna suspertzen"**

**"Orain dela bi urte erosi nuen telefonoa, ia derrigortuta. Ez dut askorik erabiltzen"**

**"Amodiozko Gutunen Lehiaketako lan irabazleak oso originalak izaten dira"**

**"Neuri errazago egiten zait kontu batzuk aurrez aurre baino gehiago telefonoz esatea"**

tzat une lasai eta bereziena, eta, egia esanda, oso bitxia da: Zarimutzen, txakurrarekin nagoenean bururatzen zaizkit halakoak. Betti hala izaten da.

Hala ere, txakurra da bidea, baina inspirazioa emaztea izaten da; hori argi gera dadila. (Barre).

**Zer da zuretzat Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketa? Gustuko duzu?**

Oso lehiaketa berezia iruditzan zait, dagoen berezietakoak. Lehiaketa horrek beti deitu du

nire arreta eta oso gustuko dute. Ohitura daukat betidanik saridunak diren lanak arreta handiz irakurtzeko; eta esan beharra daukat irabazten duten lanak oso originalak izaten direla.

Lehen, aspaldi, Bergarako Amodiozko Gutunen Lehiaketa gutunen batzuk bidalita dauzkat, baina ez nuen saririk eskuratu. Aspaldian, berriz, SMSak bidaltzea gurago izaten dut, horiek asmatzeak lan txikiagoa ematen didalako eta, seguru, alfertu ere egin naizela-ko. (Barre).

> EMAKUMEAK  
**Bideo-foruma eta irteera, Amuska elkarrearen eskutik**

Amuska emakumeen elkartek bideo-foruma antolatu du eguztenerako. Bikotearen porrota izango dute berbagai kultura etxeen, 18:30ean; eta honako hizlarien esku hartuko dute: Gloria Gonzalezen eta Mari Carmeneek.

Horrez gain, martxoaren 8an Erdi Aroko Goierriko irteera egingo dute, eta Txindoki jatetxeen bazkalduko dute. Izenematea astelehen eta martitzenean egin beharko da kultura etxeen, 18:00etik 19:00etara bitartean. Bazkideek 30 euro; gainontzeoek 35.

> LAN ESKAITZA  
**Itzultziale eta garbitzaile postuen zerrendak, ikusgai**

Eskoriatzako Udalak itzultziale bat eta garbitzaile bat kontratatzeko deialdia zabaldu zuen orain dela gutxi.

Izenematea itxita dago eta onartuen eta baztertuen zerrendak ezagutzen eman dituzte. Itzultziale lanposturako 15 lagun aurkeztu dira, eta horietatik 12k egin ahal izango dituzte azterketak.

Garbitzaile lanposturako, berriz, 35 lagun apuntatu dira, baina 32k egin ahal izango dituzte azterketak. Erreklamazio epea ixtear dago.

> MUSIKA  
**Egubakoitzean, Trainsalpine Boys En Iceland, Inkernun**

Gaur, egubakoitzza, Trainsalpine Boys En Iceland taldeak kontzertua egingo du Inkernun tabernan, 22:30ean.

Trainsalpine Boys En Iceland taldearen enborra Flaviok eta Benasek osatzen dute. Biak ere talde askotan ibiliak dira, eta sarri elkartzen dira beste talde batzuen kantuak jotzeko. Euren curriculumean talde hauek aurki ditzakegu: Joxe Ripiau, The Solanos, Ill, Fermín Mugurza, Zizateh, Zainax eta beste.



## UDALA

## EAren galarazpena salatu du udalbatzak

EAk aldeko bota eman zion mozioari; Zutik-EB-Aralar eta EAJ-PNVk, aurkakoa

## I. A. &gt; ANTZUOLA

Otsailaren 12an udalbatzak ezohiko urgentziasko bilkura egin zuen, EAE udal taldeak EAren galarazpenaren harira kaleratutako mozioa eztabaizatzeko. Gertakaria "onartezintzat eta larritzat" jotzeaz gain, eskatu zuten EAE udal taldearen eskubideak bere osotasean bermatzea: "Udal jardueran era normalizatuan parte hartzea; Udalaren ordezkari gisa beste erakundeetan dituzten ardurak eta karguak gordezko; eta udal tresna eta baliabide zein diru ekarpenak bermatzeko", besteari beste.

## EAJ-REN MOZIO ALTERNATIBOA

EAJk beste mozio bat aurkeztu zuen, besteari beste zera esanez: "Eskubideen zapal-kuntza ez da lagungarri arazoari irtenbidea bilatzeko; erakunde politikoek aurkako legez kanporatzeek funtsezko eskubideetan dute eragina, baita herriko elkarbizitan ere; eta indar politiko orokdu baldintza berdineta Euskal Herriko erakunde guztiaren parte hartzeko eskubidea". EAEkoek zehaztasun eta compromiso falta sumatu zuten idatzian; hortaz, abstenitu egin ziren. Zutik-EB-Aralarrekoek ez zuten botorik eman eta EAJren aldeko hiru boto jaso zituen mozioak.

EAren mozioak EAEko zinegotziak baiezko bota eta Zutik-EB-Aralarrekoen eta EAJkoen ezezko jaso zituen. PSOEko zinegotzia ez zen batzarrean izan. Hortaz, bosna botoko berdinetaren ostean, alkatearen kalitatezko botoarekin onartu zen mozioa.

Zutik-EB-Aralarrekoek aurkako bota emateko esan zuten batzarraren aurreklik mozioa adosteko proposamena egin zietela EAEko. "Ez ziguten onartu eta jarrera itxi horren aurrean eta egindako balorazio politikoarekin ados ez geundenez, kontrako bota eman genuen. Hala ere, legez kanporatzearen aurka gauude eta EAren babes instituzionala eta elkartasuna emateko prest gaude udal jardueran beren eskubideak bermatuak izan daitezzen".

EAJkoek ezezkoa eman zuten, besteari beste esanez, mozioaren helburua ez zela elkartasuna jasotzea.

## KIROLA &gt; PILOTA

# Olalde elkarteko pilot sailak 30 urte bete ditu

Martxoaren 1ean eskuz binakako eta palako partiduak jokatuko dituzte herriko pilotariek eta omenaldia ere izango da frontoian

## IRATI AGIRREAZALDEGI &gt; ANTZUOLA

Olalde elkarteko pilot saila lanean hasi zela 30 urte beteko dira aurretan. Hori dela eta, martxoaren 1ean, zapatuan, ospakizuna egingo dute. Horrela eskertu nahi dute hainbat herritarrek urte hauetan guztiaren elkartearren alde egindako lana.

Olaldeko baxkide Balentín Zabalok, Félix Agirrek eta Jose Luis Kortabarriak ekin zioten pilotar sailari eta gerora, baxkide ez ziren herriko beste hainbat pilotazalek egin zuten bat taldearekin. "Zaila da 30 urteko ibilbidea laburtzea, baina lanak eman du fruiturik. Lortu dugu pilotar herritarrengana gerturatzea, eta gure elkartean bada gora egin duen pilotaririk; Berraondo eta Mendizabal, esaterako", esan digu pilotar saileko Bittor Arbuluk.

## PALAZ ETA ESKUZ BINAKA

Martxoaren 1ean arratsaldean egingo dituzte ospakizunak. 17:30ean elkartuko dira Olalden eta pilotalekura joango dira gero. Izan ere, 18:30ean hasita partiduak jokatuko dituzte frontoian. Palaz jardungo du lehenengo Zabalok eta Mansok osatutako bikoteak Zabalok eta Iturbek osatutakoaren aurka jardungo du.

Lehenengo partiduaren ondoren, omenaldia egingo dute. Olalde elkarteko pilotar saileko kideek oroigarria jasoko dute, baita Antzuolan bizi den Aitor Elkoro pilotari elgetarrak ere.

Bigarren partiduan eskuz binaka jardungo dute. Elkorok berak Mendizabal izango du biko-telagun eta Muruamendarazek eta Berraondok osatutako biko-tea izango dute aurrez aurre.

Partiduen ostean, luntxa izango da Olalde elkartean urturreneko ekitaldietan parte hartzen dutenendako.

## ERRELEBU FALTA

Ospakizunak ospakizun, urteak aurrera joan ahala hutsunerik ere sumatzen dute Olaldeko pilotar sailekoek. "Urte asko dira gaztetxoekin hasi ginela eta pilotar eskolak aurrera egingo badu errelebu falta zaigu. Gainera, pilotaren egoera larria da. Pilotari handiak egon badaude, baina gazteek bestelako kiroletara jozen dute. Kirol gogorra da pilotar, eta horretan jardun nahi duenak oso gogoko izateaz gain, sufritzen jakin behar du", esan digu pilotar saileko Bittor Arbuluk, herriko gazteei pilotari bultzada emateko dei eginez.



PILOTARIAK Olalde elkartearen bueltan dabiltsan eta ibilitako pilotariekin eta laguntasileek ospatuko dute urtemuga. GOIENKARIA

## &gt; KIROLA

### Lokatza Ziklismo Eskola txirrindulari gazteen bila dabil

Lokatza Ziklismo Eskolako deialdia egin diete herriko gaztetxoi aurten taldean sartzeko: 11 eta 12 urte dituztenak eskola mailan eta infantil mailan 13 eta 14 urtekoak. Bestalde, Antzuolako baxkideak eta baxkidetza berria egin nahi dutenak klubarekin ipini beharko dira harremanetan ordainketa eguneratzeko batzuek eta formulario berria egiteko besteari. Urteko kuota 10 eurokoa da. Horretarako [lokatza\\_ze@hotmail.com](mailto:lokatza_ze@hotmail.com) helbidera idatzita; [www.goiena.net/blogak/lokatza](http://www.goiena.net/blogak/lokatza) helbidetik; edo Antzuolan, Kaxeta-ren lokalera joan daitezke interesatuak.

## &gt; IKASTROA

### Eguzki-energiaren gaineko ikastarorako izenematea zabalk dago

*Eguzki-energia, etxebizitzetan, enpresetan eta eraikin publikoetan* da Kutzak antolatutako ikastaroaren izenburua. Apirilaren 4tik 23ra bitartean astelehen eta eguztienetan izango dira saioak Olaranen, 18:30etik 20:30era bitartean. Ikastaroaren helburua da energia berriztagarriak sortzeko sistemak ezagutzera ematea; eta ondoren, eguzki-energia fototermikoa nahiz fotovoltaikoa eta horiek instalatzeko prozesua eza-gutzen eta erabiltzen bereziki sakontzea. Izena emateko telefono honetara deitu behar dute interesatuek: 902 54 00 40. Matrikula 33 euro da.

## &gt; IPUINAK

### Marraz-kontaketa saioa zapatu arratsaldean liburutegian

Iñaki Martiarena *Mattin* irudigileak marraz-kontaketa saioa eskainiko du zapatuan, otsailaren 23an, liburutegian. 6 eta 10 urte bitarteko umeendako emeraldia izango da eta 18:00etan hasiko da ikuskaria. Marrazkilari donostiarra *Belardo belar metaren ibilerak* ipuina kontatuko die gaztetxoi marrazkiez lagunduta. Ilustrazioan, komikigintzan, karikaturak egiten zein zuzeneko emanaldietan jarduten du eta ziria eta umorea gustuko ditu *Mattin*-ek. Iñaki Martiarenaren marrazkiek hainbat ipuin, aldizkari eta egunkari ilustratu dituzte.

## bere ustez



Iraia Gabilondo

Adibideak egon, bidaude!

B adira ulergaitz egiten zaizkidan gauza asko. Horietako batzuk erantzutzen ez dakizkidan galderak dira. Beste batzuk, erantzunak jakin arren, horrela direla ulertu ezin ditudanak. Azken multzoan ere, adibideak bidaude.

Ezin uler dezaket, sistema arautzen duen lege garrantzitsuenak, aniztasun politikoa bermatzeko alderdi politikoa beharrezko direla aitortzen badu, legea betearazten dute-nek, tresna garrantzitsuok legez kampo utzi nahi izatea.

**"Badira galderak erantzunak jakin arren horrela direla ulertu ezin ditudanak"**

Ezin uler dezaket, eskubide eta betebehar berdinak izanik, zergatik zaien posible batzuei beraien ideiak manifestatzea eta beste batzuei ez.

Ezin uler dezaket, bere begiez ikusitakoaz baino, kapolko batek esandakoaz gehiago fio dena.

Ezin uler dezaket, sistematikoki herriar multzo bat kriminalizatzen duen sistema politikoa, benetako demokrazia izatea.

Ezin uler dezaket, herriaren hitza entzun gabe, herriaren geroa hipotekatzen duen proiektua egiten duenak, gero, urratu duen eskubidea sinesgarritasunez aldarrikatzea.

Ezin uler dezaket, egoaren hau salbuespenezko ez dela pentsatzea.

## MUJIKA HARATEGIA



**Berezitasunak: Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

MARTXOAK 8 > EKINTZAK

## Argazkiak bildu nahi ditu Udalak

Emakumeen inguruko argazki erakusketa baterako behar ditu irudiok

L.Z. > ELGETA

Elgetako Udaleko Gizarte Ongizate Saila hasi da Martxoaren 8rako ekintzak prestatzen. Argazki erakusketa ipintzeko deialdia egin dute, eta herriarei etxeen dituzten argazkiak udaletxera eramateko eskaera egin diete. Argazkiek emakumeekin zerikusia izan behar dute: Elgetako emakumeak lanean, paseatzen, karta jokoan, ikastaroak egiten... Denon artean

erakusketa polita osa daitekeela uste dute udal arduradunek. Argazkiak otsailaren 27rako udaletxera eraman behar dira. Bildutako materialarekin era-kusketa ipiniko dute Espaloia Kafe Antzokian martxoko lehenengo astean. Argazkiak sarrean ipiniko dituzte panel handietan. Hil amaierara arte egongo da ikusgai.

### TXOKOLATE JANA

Iaz egin zen moduan, txokolate jana ere antolatuko dute aurten Emakumeen Eguna ospatzeko. Bezperan, martxoaren 7an, egitea aurreikusten dute udaletxetik, 17:00etan hasita. Elgetako emakume guztiak daude bertan parte hartzera gonbidatuta.



PARKE BERRIA Beharginak azken lanak egiten ari dira, datorren asterako parkea prest egin dadin.

L.Z.

LANAK > AISIALDI GUNEA

## San Roke osteko parke berria zabaltzea dago

Datorren astean zabalduko dituzte urbanizazio berria eta San Roke osteko parkea

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

"Domingo Iturbe kaleko urbanizazio berrian lanak amaituta daude. Datorren astetik aurrera gune hori eta San Roke osteko parke berria zabalk egongo dira herritarrendako". Oxel Erostarbe alkatearen hitzak dira. Uste du herritarrendako aisiaidirako gune atsegina izango dela San Roke osteko parke berria. "Gunea oinezkoendako egokitutu gura izan dugu", adierazi du. "Harriak ipini ditugu Eibarrerako bide ertzean, ibilgailuak sartzerik izan ez dezaten. Hilariaren alde banatan piboteak jarriko ditugu eta parkean iturri bat eta atsedenerako eserlekuak egongo dira".

Aldaketa handiak antzemanen dira San Roke osteko gunean. Lurra bota dute inguru guztian eta zorua lautu dute. Pase-

orako ibilalditxo batek zeharkatzen du parke berria. Egunotan, beharginak lanean dihardute lorategiak eta belarguneak atontzen. "Espero dugu aurrerantzean Elgetarrek trankil paseatzeko leku bat edukitzea, inguru hau polita delako horretarako", esan du Erostarbek.

ALDAKETAK PARKEAN

Aurreko udal taldeak proiektatutako parkea da San Roke osteko. Udal gobernu berriak, baina, zenbait aldaketa egin ditu proiektu horretan.

"Aurreikusita zegoen tresneria, gure ustez, oso garestia zen", azaldu du Erostarbe alkateak. "Esaterako, 1.200 euroko zaka-rrontziak zeuden aurreikusita aurreko proiektuan, eta aldatu egin ditugu. Tresneria merkeagoa aukeratu dugu eta diru horrek gunea ibilgailuei ixteko aukera izan dugu. Gainera, lurra laatu egin dugu eta inguru guztian belarra ereingo dugu".

Inguru horretan, gainera, lurperatuta dago Uruburuko etxeendako transformadore elektri-

koa. Polemika handia sortu zuen, eta, azkenean, lekuz aldatzea era-baki zuen osokoak.

### URBANIZAZIOA, AMAITUTA

San Roke ostean, bestalde, etxebizitza berri mordoa egin dituzte. Uruburuko 18 etxebizitza tasa-tuak kenduta, gainerako guztiak amaituta daude eta urbanizazio lanak eginda. Eremu hori ere datorren astean zabalduko dute-la adierazi du Oxel Erostarbe alkateak.

Hamar txalet, bi bizitzako 20 etxe eta elkarri atxikitutako 18 etxebizitza dira guztira. Etxeak egin dituen Hirualde Bat enpresa eraikitzaitetik jakinari dute etxebizitza horietako jabeek hilabete barru inguru jasoko dituztela giltzak. Etxeak egokitutu eta sukaldeak jarri beharko dituzte oraindik ere. Denbora pixka bat beharko da, beraz, Domingo Iturbe kaleko auzune berrian lehenengo bizi-lagunak bizi izaten ikusteko. Bien bitartean, paseatzeko eta aisiaidirako gune berria izango dute elgetarrek.



TXOKOLATE JANA Iaz Espaloian egin zuten.

IGOR ARIZMENDIARRIETA

EGOKI > PROGRAMA BERRIA

## Martxoan irteera egingo dute Belaguara, elurretara

Uztailera bitartean, hilero ekintza bat antolatuko dute Egoki kirol taldekoek

roak norberaren kontu dira. Izenematea zabalik dago Udaletxeen hilaren 29ra arte.

Irteera adin guztiak lagunendako dago zabalik, baina 14 urtetik beherakoek arduadun batekin joan beharko dute.

Irteera egingo dute horretan. Hain zuzen, lehenengo txangoa martxoko bigarren aste bukaeran egingo dute, 8an eta 9an. Belagua inguruaz gozatzeko aukera plazaratu dute. Mendi ibilaldiak eta eski irteerak egin ahal izango dira. Prezioa 45 euro da. Joan-etorreria, lo lekua, gosaria eta afaria sartzen dira prezio horretan. Materialaren alokairua, forfalta, baxkariak eta ikasta-

roak norberaren kontu dira. Izenematea zabalik dago Udaletxeen hilaren 29ra arte.

Irteera adin guztiak lagunendako dago zabalik, baina 14 urtetik beherakoek arduadun batekin joan beharko dute.

Uztailera mendi irteera iragarri dute. Perdido mendi-rra egingo dute txangoa 12an eta 13an. Patinaje ikastaroa antolatzeko asmoa ere agertu dute Egokiko kideek. Data zehazteko dago oraindik.

L.Z. > ELGETA

Egoki kirol taldeak eta Elgetako Udalak gertu dute uztailera bitarteko programa. Lau irteera, ikastaro bat eta lasterketa bat antolatu dituzte datozen hilabeteetarako.

Hain zuzen, lehenengo txangoa martxoko bigarren aste bukaeran egingo dute, 8an eta 9an. Belagua inguruaz gozatzeko aukera plazaratu dute. Mendi ibilaldiak eta eski irteerak egin ahal izango dira. Prezioa 45 euro da. Joan-etorreria, lo lekua, gosaria eta afaria sartzen dira prezio horretan. Materialaren alokairua, forfalta, baxkariak eta ikasta-

roak norberaren kontu dira. Izenematea zabalik dago Udaletxeen hilaren 29ra arte.

Irteera adin guztiak lagunendako dago zabalik, baina 14 urtetik beherakoek arduadun batekin joan beharko dute.

Uztailera mendi irteera iragarri dute. Perdido mendi-rra egingo dute txangoa 12an eta 13an. Patinaje ikastaroa antolatzeko asmoa ere agertu dute Egokiko kideek. Data zehazteko dago oraindik.

Irteera adin guztiak lagunendako dago zabalik, baina 14 urtetik beherakoek arduadun batekin joan beharko dute.

Uztailera mendi irteera iragarri dute. Perdido mendi-rra egingo dute txangoa 12an eta 13an. Patinaje ikastaroa antolatzeko asmoa ere agertu dute Egokiko kideek. Data zehazteko dago oraindik.

> FUTBOLA

### Elgetakoek Urki hartuko dute bihar, 15:30ean, Unben

Bihar, zapatua, jokatuko du Elgetako futbol taldeak bigarren erre-gional mailako kopa txapelketaren 3. jardunaldia. Josu de Vega hasi da orain dela gutxi taldea entrenatzen. Unben jokatuko dute, 15:30ean hasita.

Norgehiagoka bat irabazi eta beste bat galdu egin dute Elgetakoek, oraingoz, kopan.

> MUSIKA ESKOLA

### Elgetako bost piano jole izango dira asteburuan Andoaingo jaialdian

Ainhoa Monterroso, Maitena Mañarikua, Maria Sarasua, Maialen Zubiaurre eta Ibane Zubiaurre aste bukaeran Andoainen egingo den piano jaialdian izango dira.

Lehenengo biek zapatuan joko dute, goizean eta arratsaldean, hurrenez hurren; gainerako hirurek, domeka goizean.

> PODOLOGO ZERBITZUA

### Hilaren 28an, Eguneko Zentroan egongo da podologoa

Elgetako Erretiratuen batzordeak aditzera eman duenez, hilaren 28an egongo da podologo zerbitzua herrian.

Txanda hartu behar dute interesatu guztiak. Nati Arrietari deitu behar zaio horretarako, 943-76 80 77 telefono zenbakira. Kontsulta 15:00etan hasita eskainiko dute Eguneko Zentroan.

BERTSOLARITZA &gt; ARABAKO BERTSO TXAPELKETA

# Arabako txapelketan, hiru aramaioar lehian

Iker Agirre, Manex Agirre eta Andere Arriolabengoa Arabako Bertso Txapelketan izango dira; bihar hasten da txapelketa

**ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO**  
*Sentitu, Gozatu, Astindu.* Horixe da 2008ko Arabako Bertso Txapelketaren leloa. Biher, zapatua, hasiko da, eta hiru aramaioar izango dira bertan: Iker Agirre, Manex Agirre eta Andere Arriolabengoa.

Baina aramaioar gehiago ere izango da txapelketan. Lierni Altuna eta Idoia Beitia aurkezle lanetan ibiliko dira, eta gaiak jartzen. Gainera, gai-jartzaleen taldean beste aramaioar batzuk ere badira. Bestetik, txapelketako logotipoa ere aramaioar batek egin du, Naia Velezak, hain zuzen ere. Aramaio, beraz, txapelketaren parte handi bat izango da aurten.

**EGITARAU**  
 Biher 23an jokatuko dute lehenengo kanporaketa; Laudion izango da hori. Beste biak Lantziegon eta Agurainen egingo dituzte, otsailaren 29an eta martxoaren 1ean, hurrenez hurren. Finalaurrekoetako bat Gopegin egingo dute, martxoaren 9an, eta bigarrena Aramaion izango da, martxoaren 16an. Final handia, berriz, Gasteizen jokatuko da apirilaren 5ean, Printzipal antzokian, 17:00etan hasita.

Kanporaketetara pasako dira sailkapen faseko lehenene-



ARABAKO TXAPELKETA Andere Arriolabengoa, iaz.

ARTXIBOA

go sei sailkatuak eta iaz finalaurrekoetan izan ziren 12 bertsolariak; beraz, guztira, 18. Finalaurrekoetara, berriz, 12 pasatuko dira: egingo diren hiru kanporaketa faseetako lehenengoak eta beste bederatzi bertsolari, puntuazioaren arabera. Finalean sei izango dira guztira: finalaurreko bakoitzeko irabazlea, eta beste guztiak, puntuazio ordenaz.

**IKER, MANEX ETA ANDERE**

Andere Arriolabengoa Lantziegon jokatuko den bigarren kanporaketan izango da. Iker Agirre eta Manex Agirre, berriz, Agurainen egingo duten hirugarren kanporaketan egongo dira. Azken bi

aramaioar horiei euren lagun Idoia Beitiak ipiniko dizkie gaiak. Lierni Altuna, berriz, Laudion egingo den lehenengo kanporaketa arituko da gaiak jartzen. Epaimahaia, bestetik, Patxi Aizpurua, Xabier Ormaetxea, Ekaitz Elorriaga, Mirari Azula eta Felix Irazustabarrenak osatuko dute.

Saio horiek, aurreko urteko txapelketan bezala, afalostean egingo dira. Afaltzera joan nahi dutenek kanporaketa jokatuko den asteko eguztena baino lehen eman beharko dute izena.

Txapelketaren nondik norako guztiak jarraitzeko aukera izango da aurten ere Interneten, [www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com) webgunearen bitarbez.

## BATAK BESTEARI



Manexek Andereri

"Andererena dugu kasu nabarmena: nahiz ta txapelketan den gauzarik zailena dena guztiz perfektu irtetzearena... dotore emango du ahal duen gehienetan".



Anderek Ikerri

"Iker Agirre dugu gaur trobadorea, Andoni Egaña baino askozaz hobea, ironia ta txispa guztien jabea, berarekin seguru dago umorea".



Ikerrek Manexi

"Manex txapelketako dago gertu-gertu, kalabazak jasoten ezin da aspertu, txapelaren beroa sentitu du gertu, da lortu nahi duena ta ezin duna lortu".

IKASTAROA &gt; LARRIALDIK

# Larrialdien aurrean nola jokatu jakiteko ikastaroa

Aramaioko kirodegian egingo dute ikastaroa eta su-itzalgailuak nola erabili irakatsiko dute

A.B. &gt; ARAMAIO

Larrialdien aurrean jokatzen ikasteko jardunaldiak emango dituzte. Lehenengo partea, teorikoa, bertan behera gelditu zen Eusko Jaurlaritzak ikastaroa euskaraz emango zuen suhiltzailerik ez zeukalako. Ikastaroaren parte praktikoa bihar egingo dute.

Praktikak egiten hasi aurreik, baina, kultura etxeen esko-la teorikoa emango dute suhiltzaileek, pare bat orduko, gutxi gorabehera. Ondoren, ordu erdiko atsedena dnia egingo dute, eta kirodegira joango dira gero.

**TALDE BOLUNTARIOA**

Ikastaro horiekin, Udalak herrian emergentziarako talde de voluntarioa osatzeko lehenengo urratsak eman nahi ditu. Joseba Jauregi zinegotziak azaldu dueñe, seguru aski, xafla batzuk jarriko dituzte lurrean eta sua egingo dute. Su horiek itzaltzeak "Voluntarioak aurkitu behar dituzu, eta horiek asteburuan lan egiteko prest egon behar dute, eta voluntarioak, gainera, prestatu egin behar dira eta ikastaroak jaso", azaldu du Jauregik.



IKASTAROA Gasteizko suhiltzaileek ikastaroa emango dute.

x.u.

&gt; IKASTAROA

## Jesus Arregik ilargiak sagarrondoetan daukan eraginaren inguruko hitzaldia egingo du gaur

Sagarzaleen Elkartea hiru ikastaro antolatu ditu. Lehenengo biak asteburuan egingo dituzte eta hirugarrena ekainaren 7an. Jesus Arregi EHUKO irakasleak ilargiak sagarrondoetan daukan eraginari buruz hitz egingo du gaur. Biher, Sagarlaneko teknikari Aitor Etxandiak sagarrondoen gaixotasunak eta tratamenduak izango ditu hizpide. Hitzaldiok kultura etxeen izango dira, 19:00etan.

&gt; ZINEMA

## 'Kiriku eta basapiztia' filma ikusteko aukera izango dute txikitxoek domeka arratsaldean

Astero moduan, Aramaioko umeek zinemarekin hitzordua dautate domekan, 17:00etan, kultura etxeen. Oraingoan, *'Kiriku eta basapiztia'* filma izango dute ikusgai. Afrikako kondairak dakar-kigu film horrek, betiere, kultura aniztasunaren balioa azpimarratuz. Kiriku lore zaindari bihurtu da, detektibe, zeramika-egile, saltzaile, bidaia eta osagile. Heroien artean, baina, hura da beti txikiena eta baita ausartena ere.

UDALA > OSOKO BILKURA

# Salinaskomendiko lur baten izendapen aldaketa, atzeratuta

Lursail publiko baten izaera juridikoa aldatu behar zuten trukaketa egiteko gero, baina Udalak erabaki zuen gaia hobeto aztertzea eta aurrerago onartzea

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA  
Lursail baten izendapen aldaketa zuen aztergai udalbatzak otsailaren 13an egindako osoko bilkuran. Azkenean, ez zuten onartu, eta aldaketa horren gaineko kontuak hobeto aztertzekotan geratu ziren.

**TRUKAKETA BATEN ESKAERA**  
Lursail hori Sarrikorta gunean dago, Goierri auzotik gora joanda, eta Salinaskomendia izena duen mendi publikoari dagokio. Baserritar batek eskatu zuen orain dela hilabete batzuk Udalaren den lursail bat bere lursail batengatik trukatzeko. "Aurreko agintalditik datorren kontua da, eta, egia esan, gaieren gainean ezer gutxi dakigu orain gaudenok", argitu digu Eusebio Villar alkateak.

Eskatutako trukaketa egiteko, lehenengo, lursailaren izendapena edo izaera juridikoa aldatu behar dute, eta gero egin ahal izango da trukaketa. Osoko bilkuran onartu behar zuten lehen zatia egitea, hau da, izaera juridikoa aldatzea. Baino, halako kontuekin hasi aurretik, gaia ondo aztertzea erabaki zuen udalbatzak. "Aldaketa ez onartzeak ez du esan gura ezetza



BASERRIAK Goierri auzoko baserriak; handik gora joanda Salinaskomendia izeneko basoa dago.

M.A.

eman diogunik, ez horixe. Baino trukaketa egin aurretik, inguru bideak zelan geratuko diren aztertu gura dugu", gaineratu du Villarrek. Argiago dutenean trukaketak zein aldaketa ekarrako dituen Salinaskomendi ingurura, berriz eutsiko diote gaiari.

**URTARRILAREN 1EAN, 263 BIZTANLE**  
Bestalde, hilaren 13ko ohiko osoko bilkuran onartu zuten 2008ko urtarrilaren 1eko biztanleen errolda. 263 biztanle zituen orduan Leintz Gatzagak, erroldako datuei begiratuz gero. Igoera horrek ez du izango eraiginik martxoaren 9ko hauteskundeetan.

oraintsu, eta, datu horien arabera, 250 biztanle zituen herriak 2007an. Hortaz, urtebetean 13 lagun gehiago ditu Gatzagak, erroldako datuei begiratuz gero. Igoera horrek ez du izango eraiginik martxoaren 9ko hauteskundeetan.

> OSPAKIZUNA  
**Sorginak emakume elkarrekin batzordea berriku du**

Sorginak emakume elkarrekin afaria egingo du hilaren 29an, egubakoitza, aldi baterako kanpora doan Mariatxen Arantzabal taldekoide eta lagunari agur esateko. Maulana jatetxeen elkartuko dira Gatzagako emakumeak, eta orduan erabakiko dute zuzendaritza batzordea berriko batzarra noiz eta zelan egingo duten.

Bestalde, Emakumeen Eguna ospatzeko ere elkartuko dira sorginak martxoaren 8an, zapatua. Urtero legez, Gure Ametsa jatetxeen egingo dute bazkaria, eta aurrez izena eman beharko dute Labidea dendant. Otsailaren 25etik aurrera jasoko dituzte izenak.

> INTERNET  
**Ikastaroa egingo dute gaur, 18:00etan, KZgunean**

Gaur, hilak 22, egingo dute otsaileko azken ikastaroa KZgunean. 18:00etatik 20:00etara bitartean izango da Aitor Madrid arduraduna Pilar kalean dagoen KZgunean, eta herritarrek eurek aukeratu ahal izango dute zein ikastaro egin gura duten: sinadura elektronikoa eta osasun txartel elektronikoa zertarako diren ezagutu, kontsumitzaleek dituzten eskubideen berri izan, posta elektronikoaren gaineko kontuak argitu eta beste asko. Gainera, edozein eratako zalantzak argitzeko gertu dago Aitor Madrid arduraduna.

Bestalde, otsailean 17:00etatik 20:00etara dago zabalik KZgunea, Interneten ibili gura duten 16 urtetik gorako herritarrendako.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Markel Irizar eta Iban Velasco &gt; Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulariak

# "Taldean ibili gara bizikletan, eta horren indar handiagoarekin hasi dugu denboraldia"

XABIER URTZELAI > ARRASATE  
Markel Irizarrendako eta Iban Velasco corendako urte erabakigarría izango da hau. Biek ala biek etapa bat irabaztea dute buruan, eta, amets horriblentaka, azorotik hona 10.000 kilometro egin dituzte dagoeneko. Ez dute amets hori gordetzen, bai-kor dira, eta orain arte falta izan zaien konfiantza nabaritzen zaie. Irizarrek Valentzian hasiko du denboraldia, datorren martitzenean; Velasco hasi da lehian.

Iban, dagoeneko Australian eta Mallorcan izan zara. Indartsu -Irizarrek aurreratu digu orain momentuan Velasco dela taldean indartsuen dagoeneta-ko bat-, baina orain ere zorte barik.

Velasco: Hala da, bai. Taldeak urtea indartsu hasteko eskatu zidan, eta, egia esan, Australian nahiko ondo ibili naiz. Hala ere, etapa guztia esprintean amaitzen ziren, eta hor ezin dezaket gauza handirik egin. Baina sailkapenean 19. postuan amaitu nuen, eta taldeka bosgarren; horrenbestez, nahiko ondo.

Eta Mallorcan ere taldeak konfiantza zuen nigan, baina lehenengo egunean erori egin nintzen esprintean, eta hortik aurrera taldeko lana egin behar izan nuen.

Berriro ere lurrera. Dorleta-ko Amarengana joan beharko duzu.

Velasco: Egia esan, azken urteotan erorketekin ez dut zorte handirik izan; ea hori aurten aldatzen den.

Markel, Ibanek egin du debuta. Beste horrenbeste egiteko deseatzen izango zara zu.

Irizar: Hala da, bai. Nik ere prestakuntza nahiko aurreratua daramat, eta niregatik izan balitz, Australiara joango nintzatekeen. Itxarotea tokatu zait, eta gogo handiarekin noa Valentziara. Egia esateko, orain nabil inoiz baino gehiago bizikleta gainean gozatzen.

Orain arte konfiantza falta izan zait, eta akaso, orain larregikoa izango dut, dena kolpean etorrira [Barre]. Ez dakit hori ona izango den, ez dut gura aurrez ezer saldu, baina gauzak ondo egi-teko ilusioarekin noa, ondo ikus-ten dut-eta neure burua.

Horren indartsu hasteko, zertan aldatu duzue denboraldiaurreko lana?

Irizar: Batetik, esango nuke inoiz baino lehenago hasi garela entrenatzten. Horrekin batera, orain arte Iban eta biok elkarrekin entrenatu izan gara, eta aur-



Markel Irizar eta Iban Velasco, eguztak goizean, Aramaioko Azkoaga auzoan.

**"Taldean entrenatuta kilometro gehiago egin ditugu, gutxiago nekatuta"**

**"Aurten etaparen bat irabaztea dugu buruan, askotan egiten dugu horren gainean berba"**

**"Posible da Giroa taldearendako 'marroi' hutsa izatea, baina ilusio handiarekin goaz gu"**

**"Tourrean apustu sengoa egingo dugu aurten, eta horrek badu bere arriskua"**

ten taldeko hainbat ziklista elkarrekin ibili gara. Horri esker, gehiegiz nekatu barik erritmo onean ibili gara, eta, eguraldiak ere lagundu egin duenez, kalitatezko entrenamendu gehiago egin ahal izan ditugu.

**Buruan duzuen ametsa da aurten eta bat lortzea.**

Markel: Ahalegina, behintzat, egingo dugu, hori da helburua eta uste dut badugula horretarako maila. Egia da askotan ez dela gure esku egoten, hor dago Velas-

coren adibidea; oso ondo zegoen Mallorcan, baina taldearendako egin behar izan du lan.

**Zeintzuk dira gorri markatuta dituzuen lasterketak?**

Markel: iaz Flandesko klas-

## Amateur mailako txirrindulariek domekan hasiko dute denboraldia, Soraluzen

Domekan hasiko dute amateur mailako lasterkarieki denboraldia, Soraluzen. Eta, Debagoienak zapti ordezkarri izango ditu aurten lehian. Bergarako lau txirrindulari izango dira: Unai Arantzabalek Bidelan Kirolgintxu jarraituko du, Kepa Varelak Alfus Tedes taldea utzi du eta Cafes Baquen izango da aurten. Asier Penabadek Debabarrenan jarraituko du, eta talde horretara igo da Iban Caballero, Sumofic utzita. Gurutz Larrea antzuolarrak ere Bidelan Kirolgiko maillota defendatuko du, eta Arrasateko bi txirrindulari izango dira aurten, Kepa Otxoa eta Hilario Cordero, biak Bruesa-Policlinican.

Aurreratu moduan, domekan hasiko dute denboraldia Soraluzen -talde batzuek GP Caja Cantabria edota Murtzian egingo duten Espaniako Kopa aukeratuko dute-. Profesional mailan hainbat talde desagertu badira ere, amateurretan tropela handitu egin da, iaz baino bi talde gehiago izango dira-eta aurten (17). Aurten ere, EAEko denboraldia hiru txapelketatan banatuko da: Euskaldun Torneo, 23 urtez azpikoa eta Lehendakari Txapelketa. Eta, torneo horien barruan, ibarrean zortzi proba egingo dituzte, Gipuzkoako Txapelketa barne (Bergara).



23 urtez azpikoa lasterkaria, iaz, Gorlako igoera hasi baino lehenago irteera puntuatua.

GOIENKARIA

# "i esker oraldia"



XABIER URTZELAI

rendako gastu handia dela Giroa joatea, eta handik neka-neka eginda itzultzen garela, baina guri sekulako ilusioa egiten digu hara joateak. Gainera, beste talde batzuek gure moduko egutegia dute, Saunierrek esaterako, eta eurek egiten badute, guk ere beste horrenbeste egiteko kapaz izan behar dugu.

## Taldeak ze asmo du Girorako?

Irizar: Aurten Iñigo Landaluze etorriko da, eta hark etapa baten bila joateko segurtasun handiagoa emango digu. Eta harekin batera Koldo Fernandez de Larrea ere badator, eta hura ere etapa bila joango da. Aurten ere gogoz egin beharko dugu lan.

## Giro gogorra izan zen iazkoa

Irizar: Bai, iaz baino itxura hobea eman gura dugu aurten. Baina iazkoa ere ez zen normala izan, lau ziklistak hezurren bat hautsi zuten-eta: Velascok saihets bat hautsi zuen, Aitor Hernandezek eta Dionik lepauzaia eta Zubeldiak errain-ornoa. Horren kontra ezin da ezer egin.

## Taldeak apustu handia egin du Tourrarekin.

Irizar: Bai, taldeak aldatu egin du planteamendua, eta egia da horrek baduela bere arriskua. Urtean ez ditugu lasterketa asko irabazten, eta erdia baino gehiago Samuel Sanchezek irabazten ditu, hortaz... Arriskutsua bada, baina berak dioen moduan, Tourra da bere kirol ibilbidean eman dezakeen hurrengo jauzia.

Gainera, Samu, Egoi, Zubeldia, Astarloza, Ruben (Perez), Verdugo (Gorka)... Jende hori Tourrean ondo badago Euskaltel aurreneko bost talde onenen artean egon daiteke.

## Iazko urte txukuna hobetzea izango da Euskaltelen helburua.

koetan aurreko taldean ibili nintzen, eta aurten koadrilakoak joango dira hara, lehenengo bizi-kletan ibili eta gero etapak jarraitzen. Lasterketa bereziak dira, eta ilusio handiarekin joango naiz hara.

Velasco: Nik denboraldi hasierako probak nituen gorri, Australia, Mallorca eta Murtzia. Mallorcan ez dut zorterik izan, eta ea Murtzian ondo nabilen. Gero, geldialdia izango dut, eta Giroan ondo egon gura dut berriro ere.

## Giroan mendiak du protagonismo handia; hori da Ibanen lekuoa, ala?

Velasco: Ez pentsa, mendi larregi dago han [Barre]. Ahalegina egingo dugu aurrean egoteko, baina Giroan italiarrak especialistak dira, euren lasterketa da-eta. Gogorra izango da.

## Taldeko arduradun Madariaga kurreratu du Giroa taldearenak "marroi" hutsa izango dela. Han izango zarete zuek.

Irizar: Hori nahiko erlatiboa da. Egia da ekonomikoki taldea-

rendako gastu handia dela Giroa joatea, eta handik neka-neka eginda itzultzen garela, baina guri sekulako ilusioa egiten digu hara joateak. Gainera, beste talde batzuek gure moduko egutegia dute, Saunierrek esaterako, eta eurek egiten badute, guk ere beste horrenbeste egiteko kapaz izan behar dugu.

## Taldeak ze asmo du Girorako?

Irizar: Aurten Iñigo Landaluze etorriko da, eta hark etapa baten bila joateko segurtasun handiagoa emango digu. Eta harekin batera Koldo Fernandez de Larrea ere badator, eta hura ere etapa bila joango da. Aurten ere gogoz egin beharko dugu lan.

## Giro gogorra izan zen iazkoa

Irizar: Bai, iaz baino itxura hobea eman gura dugu aurten. Baina iazkoa ere ez zen normala izan, lau ziklistak hezurren bat hautsi zuten-eta: Velascok saihets bat hautsi zuen, Aitor Hernandezek eta Dionik lepauzaia eta Zubeldiak errain-ornoa. Horren kontra ezin da ezer egin.

## Taldeak apustu handia egin du Tourrarekin.

Irizar: Bai, taldeak aldatu egin du planteamendua, eta egia da horrek baduela bere arriskua. Urtean ez ditugu lasterketa asko irabazten, eta erdia baino gehiago Samuel Sanchezek irabazten ditu, hortaz... Arriskutsua bada, baina berak dioen moduan, Tourra da bere kirol ibilbidean eman dezakeen hurrengo jauzia.

Gainera, Samu, Egoi, Zubeldia, Astarloza, Ruben (Perez), Verdugo (Gorka)... Jende hori Tourrean ondo badago Euskaltel aurreneko bost talde onenen artean egon daiteke.

## Iazko urte txukuna hobetzea izango da Euskaltelen helburua.

Velasco: Bai, iaz denboraldi ona egin genuen, eta badakigu hori hobetzea gaitza izango dela. Baina, txirrindulariok iaztik hona urtebete zaharragoak gara, esperientzia handiagoa dugu eta hori igarri egin behar da. Ilusioarekin lan eginda iazkoa hobeteko tartea du Euskaltelek.

## Aurten ere dopin kontuek emango dute zeresana.

Irizar: Ba ni ezezkoan nago, dopinaren kontra egiteko metodo berri bat ezarri dutelako, Adams izenekoa. Lasterkari bakoitzak datozen hiru hilabetotan izan behar dituen nondik norakoenean berri eman behar du webgune batean; momentu oro dakite non gauden, eta gura dute-nean etor daitezke etxera, kontrolat egitera.

Bide horretatik jarraituta, txirrindularitza kirolik garbienean bilakatuko da, orain ez bada.

## Zuek ados zaudete Adams sistema horrekin?

Velasco: Ez, baina ez dago beserrik. Azken batean, kartzelan egon direnak libre geratzen direnean ez dute horrelako jarraipenik izaten; gu 24 orduz gaude kontrolatuta.



BALOIAREN JABE Aloñako eta Anaitasunako jokalariak baloiaren jabe egin guran.

GOIENKARIA

## FUTBOLA > PREFERENTEA

# Hondarribiaren kontura jaitsiera postuetatik urruntea

Domekan (16:30)  
sailkapenean apur bat  
aurrerago dagoen  
taldea hartuko du  
Aloñak Azkoagainen

X.U. > BERGARA  
Ikusitako ikusita, Aloñaren aurtengo denboraldia ez da gogoangarria izango. Baina, ikusitakoak ikusita, Aloñak ez du sailkapenak erakusten duena merezi. Baina betiko kontuak dira horiek, batutako puntuak era-kusten ditu sailkapenak, ez taldeak zer merezi duen, eta, Aloñak 24 puntu ditu. Hori horre-

la, oso gerto daude jaitsiera posttuak, hiru puntra baino ez. Talde gorritxoak jaso duena baino gehiago merezi izan du. Pena ematen du horrek, baina era berean, berri ona da, irabazteko gauza direla erakusten due-lako: "Aretxabaletaren kontrako partidua alde batera utzita, gainontzeko norgehiagoketan taldeak askoz gehiago merezi izan du.

Joan den astean, esaterako, oso partidu txukuna egin genuen. Baina, detaile txikienatik, edo hanka-sartze puntu-lengatik puntu mordoa galdu ditugu", adierazi du taldeko entrenatzaile Josu Zubiak: "Hala ere, taldea ondo dabil lanean.

Jokalarien jarrera ona dute, irabazteria zelairatzen dira beti, baina intentzioa baino gehiago behar dugu, garaipen bat behar dugu".

## MONDRA ETA UDA KANPOAN

Aretxabaletak eta Mondrak etxetik kanpora jokatuko dute asteburuan, eta, hasiera baten, eurak baino talde makalagoak izango dituzte aurrean.

Igor Gordobilent mutilek, esaterako, preferenteko azken postuan dagoen Zumaiako izango dute aurrean (zapatua, 16:30). Aretxabaletak, berriz, Eibartarrak izango du bihar zain Unben (15:30). Kontuz, sailkapenak ez du talde horren maila islatzen.

## ESKUBALOIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Etxean egin ez dutena kanpoan eskuratzeko ahaleginduko dira Bergara eta Arrasate

Bergarak laugarren  
dagoen Urdulizaren  
kontra jokatuko du  
bihar; Ford Mugarrak  
puntu batera du  
Escolapios

X.U. > BERGARA  
Euskadiko Txapelketan gaitza dena lortzen ahaleginduko dira asteburuan Ford Mugarrak Arrasate eta Bergara: etxetik kanpo irabaztea. Aurrez, Bergarak du

erronka gogorrena, laugarren postuan dagoen Urdulizaren kan-txatik punturen bat eskuratzear, hain zuzen. Izan ere, talde horrek aurtengo ligan birritan baino ez du etxean galdu, Egia-ren (28-29) eta Askartzaren kontra (27-29). Kontrara, bizkaitarrak zazpi norgehiagokoa irabazi dituzte han, etxean talde sendoa dela erakutsita.

Bergarak aldeko dituen gauzen artean dago Agorrosinen jokatu zutenean bergararren eta Urdulizkoen artean indarrak parean egon zirela da, eta are garrantzitsuagoa, mahone-

roek irabazi egin zutela norgehiagoka hura, 32-31. Orduan asmatu zuten Urdulizkoen era-soa geratu eta neurri berean euren defentsa hausten.

## ARRASATEKOEK,ERRAZAGO

Jokalari aldetik Arrasatekoak askoz ere justuago badabiltza ere, printzipioz, maila berean dauden Escolapios eta Ford Mugarrak izango dira zein baino zein gehiago domekan Bilbon (11:00). Joan den astean lau puntuatik bakarra eskuratuta, Arrasatekoek azken esfortzua egitea geratzen zaie.

XAKEA &gt; OHOREZKO MAILA

# Arlutzek Ruta Europa izango du aurrean

Aretxabaletako Arlutz taldea da ibarreko taldeen artean maila gorenean dagoena, Ohorezko Mailan. Ez dute erronka makala, aurten ere kategoriari eustea

**X.U. > BERGARA**  
Ohorezko Liga da Euskadi mailan xakean dagoen maila gorena, eta kategoria horri eustea da urtetik urtera Aretxabaletako Arlutz taldeak izaten duen erronka. Hala, sailkapenari begiratuta aurten ere gogotik egin beharko dute lan aretxabaletarrek, eta azken unera arte estutu. Izan ere, orain momentuan azkeneko postuan dago Arlutz (6,5 puntu), Abadiñorekin berdinduta (6,5 puntu). Aurrerago dauden taldeek tartetxoa eskuratu dute San Viatorek 9,5 puntu dituelako, eta tarte hori ez handitzen ahalegindu beharko dira

Alde horretatik, asteburuan ez dute lan makala izango, laugarren dagoen Ruta Europa izango da-eta bisitari. Hala, talde horrek dagoeneko bikoiztu du Arlutzek orain arte lortu duen puntu kopurua, 13 puntu dituzte-eta.



IKUSLEEKIN Aretxabaletako Fran Miguel, kontzentratuta.

ARTXIBOA

## ARRASATE, PREFERENTEAN

Arrasateko San Andres Xake Taldea preferentean dago, bi kategoria beherako. Kasu horretan, Arrasatekoak (15 puntu) dira kategoriako oilarretako batzuk, aurrean sailkatuta; asteburuan Fortuna izango dute kontrario.

Horrekin batera, Arrasatek beste hiru talde ditu, lehenengo, bigarren eta hirugarren mailan

dauenak. Hala, bigarren mailan daude, baita ere, Bergara eta Atletiko zaleak ere -horiek ere Bergarakoak dira-.

Hori horrela, Bergarak Zarautz hartuko du, San Andres C taldeak Idiazabal eta Atletiko Zaleak Zarautz. San Andres C bigarren da sailkapenean (19,5 puntu), baina Bergarako taldeak atzealdean daude.



JOSETXO ARANTZABAL

## Seniorrek Santanderren amaituko dute liga, domekan

Arrasateko senior mailako errugbi taldeak Santanderren jokatuko du domekan (12:00) ligako azken norgehiagoka -aratusteetan atzeratu zutena-. Berez, tramiteko norgehiagoka izango da, bi taldeetako inork ez duelako ezer jokoan. Hala ere, taldeko entrenatzaile Arkaitz Ibarguenek onartu du partidua irabaziz gero Arrasate laugarren geratuko litzatekeela sailkapenean, eta hori dela taldeak orain duen helburua.

Liga amaituta, Arrasatek Euskal Kopan jarriko ditu indar guztia -atsedenaldia izango dute tartean-. Orduan ahaleginduko dira argazkiko UPV Bilboren kontra egindako moduko partiduak errepikatzen.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

**Bigarren maila**  
Elche-Reala  
Zapatua. 18:30. Elche.

**Kadeteen euskal liga**  
Antiguoko-Aretxabaleta  
Zapatua. 12:00. Berio.

**Preferente maila**  
Aloña Mendi-Hondarribia  
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Eibartarrak-Aretxabaleta  
Zapatua. 15:30. Unbe.

Zumaiako-Mondra  
Zapatua. 16:30. Aita Mari.

**Lehen erregionala**  
Lazkao-Bergara  
Zapatua. 16:00. Lazkao.

Urola-Antzuola  
Zapatua. 16:00. Argizkao.

**Bigarren erregion. Igoera**

Aretxabaleta-Ostdabar

Domeka. 17:30. Ibarra.

BTLS-Mondra

Zapatua. 17:30. Ipintza.

**Bigarren erregion. Kopa**

Elgeta-Urki

Zapatua. 15:30. Eibar.

**Ohorezko mailako gazteak, igoera fasea**

Beasain-Aretxabaleta

Zapatua. 18:30. Igartzza.

Union Txiki-Bergara

Zapatua. 16:30. Errenteria.

**Ohorezko mailako gazteak, kopa eta jaitsiera**

Aloña Mendi-Beti Gazte

Zapatua. 16:00. Azkoagain.

Martutene-Mondra

Domeka. 17:30. Donostia.

**Lehen mailako gazteak**

Aretxaba. B Arizm.-Amara

Zapatua. 16:30. Ibarra.

**Gazteak, Kopa**

Soraluze-Bergara

Zapatua. 16:30. Ezozia.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**

Bergara-Realia

Domeka. 12:00. Ipintza.

Hernani-Aloña Mendi

Zapatua. 13:15. Zubipe.

**Lehen mailako kadeteak, Igoera fasea**

Arrasate-Urnieta

Domeka. 12:00. Mojategi.

La Salle-Aretxabaleta B

Zapatua. 10:30. Martutene.

**Kadeteak, Kopa**

Bergara B-Soraluze

Zapatua. 15:45. Ipintza.

**Kadete Txiki. Kopa**

Arrasate-Behobia

Zapatua. 12:00. Mojategi.

**Ohorezko mailako infantilak, txapeldunak**

Zumaiako-Aretxabaleta Ariz.

Domeka. 11:30. Zumai.

Bergara-Sanse

Domeka. 10:15. Ipintza.

**Gipuzkoako ligako kadete maila, emakumezkoak**

Eskoriatza-Premank

Zapatua. 16:00. Eskoriatza.

**Bigarren erregionalean, Mondrak BTLS hartuko du**

Bigarren erregionaleko igoera fasean dabiltsan BTLSek eta

Mondrak derbia jokatuko dute Ipintzan (zapatua, 17:30).

Aloña Mendi-Bera Bera  
Domeka. 10:00. Zubikoa.  
Arizmendi Eskori.-Lasarte  
Zapatua. 11:00. Intxaurtxuet

**Infantilak, emakumezkoak.**  
Andraitz-LEK A  
Zapatua. 11:00. Legazpia.  
LEK E-CD International  
Zapatua. 12:00. Musakola.

### ESKUBALOIA

**Euskadiko Txapelketa**  
Urduliz-Bergara  
Zapatua. 18:00. Urduliz.

Escalopios-Ford Mugarrir Ar.  
Domekan. 11:00. Bilbo.

**Euskadiko senior mailako emakumezkoen Txap.**  
Les Consta-Verkol Aloña  
Zapatua. 19:15. Gasteiz.

**Euskadiko gazte mailako emakumezkoen Txap.**  
Girabideak-Verkol Aloña  
Domeka. 12:00. Etxebarri.

**Lehen maila territoriala**  
Arrasate-Urola  
Gaur. 20:30. Iturriape.  
Hegialde Auto-Arrasate  
Domeka. 11:15. Legazpi.

**Bigarren maila territoriala**  
Bergara-BKL  
Domeka. 12:30. Labegarria.  
Donibane-Aloña Mendi  
Zapatua. 19:30. Pasai Donib.

**Gazte maila, gizonezkoak**  
Arrasate-Usurbil  
Zapatua. 16:30. Arrasate.

Egia Servi Chap.-Amenabar  
Zapatua. 16:00. Pasai Don.

### SASKIBALOIA

**Lehenengo maila**  
Baskonia-MU  
Zapatua. 19:00. Santutxu.

**Gipuzkoako seniorrak**  
Candy Bergara-Ingenieria  
Zapatua. 18:00. Zumarraga.

Groseko-Citroen Chap.  
Domeka. 12:00. Donostia.

Ainhoa Tab.-MU  
Zapatua. 16:00. Lasarte.

DKS-Aloña Mendi  
Zapatua. 20:00. Donostia.

Bera Bera-Bergara  
Domeka. 10:00. Donostia.

### ERRUGBIA

**Seniorrak**  
Santander-Arrasate  
Domeka. 12:00. Santander.

### PILOTA

**Bergaran**  
Egubakoitza. 20:00. Kadete  
mailan, eskuz binaka:  
Bergara-Zazpi Iturri  
Bergara-Txapagain

**Eskoriatzan**  
Egubakoitza. 21:00.  
seniorrak, eskuz binaka:  
Eskoriatza-Aurrera Saiaz.

**Arrasaten**  
Egubakoitza. 21:15. kadete,  
gazte eta senior mailan,  
eskuz binaka:  
Arrasateko-Behar zana  
Arrasateko-Lagunak  
Arrasateko-Usurbil.

**Antzuolan**  
Zapatua. 18:00. senior  
mailan, eskuz binaka:  
Olalde-Oiarre.




**Bigarren erregionalean, Mondrak BTLS hartuko du**  
Bigarren erregionaleko igoera fasean dabiltsan BTLSek eta

Mondrak derbia jokatuko dute Ipintzan (zapatua, 17:30).



## > BALLETA

Miarritzeko balleta bihar, zapatuan, Amaia antzokian izango da >**45**



## > BLOGAK

'No time for love' kanpaina abiarazi dute hainbat euskal blogarik >**51**

> OIHANE GURRUTXAGA  
Informatika ikasketak egin zituen arren, oraingoz alboratuta dauzka bergarar horrek. Aerobik eta gimnasia irakasle lanetan dihardu Giartzu gimnasioan >**50**



## Etxaguengo Berpizkundeko Biblia Gasteizen ikusgai



Aramaioko 1561eko Biblia Gasteizen ikusgai egunotan

Jabea Etxaguengo Eliza bada ere, Gasteizen gordetzen dute

AITZIBER ARANBURUZABALA > ARAMAIO 1561. urtekoa da Aramaiko Etxaguengo auzoan dagoen San Migel Elizako Biblia. Jean Steelsius-ek imprimatu zuen.

Egunotan Gasteizen ikusgai dago, Garizumaren aitzakian Gasteizko Elizbarriutak antolatutako *La Biblia: Historia de un pueblo que busca libertad* deritzeron erakusketan.



Erakusketa Gasteizko Maria Inmaculada katedralean dago otsailaren 24ra bitartean. Garai askotarikoak batu dituzte, XVI. mendean hasi eta gaur egunera artekoak; eta Etxaguengoa da alerik zaharrena.

Etxaguengo Eliza da haren jabea, baina 90eko hamarkadatik Gasteizko Elizbarriutaren Artxiboa Historikoan gordetzen da. >**44**

## 1561. urteko Etxaguengo Biblia Gasteizen ikusgai

(43. orrialdetik dator)

Sarritan gertatzen da artxibotan dauden dokumentuak, garrantzitsuak edo balio handikoak izan arren, ez dela ikertzeko aukerarik egoten; horien artean dago Etxaguengo 1561.urteko Biblia. 90eko hamarkadaz geroztik Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoan dagoen arren, hango zuzendariak, Lola Lekuonak, azaldu du oraindik ez dagoela katalogatuta, ezta mikrofimatuera.

Hori horrela, erreportajea idazteko orduan, Lola Lekuonak, Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoko zuzendariak, eta Apaiztegiko Anjel Ibisatek eta Jesus Mari Elejaldeko –azken hori Aramaioko semea eta urtetan Aramaioko apaiza izan da – emanako azalpenetan oinarritu gara.

### BIBLIAREN EZAGARRIAK

Anjel Ibisate Apaiztegiko liburutegiaren arduradunaren esanetan, Etxaguengo Biblia 1561.urtean inprimatu zuen Jean Steelsius-ek, Anbereresen (Belgikan). Liburu mardula da, jositako folio tamainako 548 orrialde ditu. Orrialdearen egiturari dagokionez, zera gaineratu du Lola Lekuonak: "Bi zutabetan latinez idatzitako testua du eta testuarekin tartekatuz, irudi xilografikoak, hau da, egurrezko plantxarekin egindako irudiak ditu".

Espaniako Ondare Bibliografikoaren Katalogo Kolektiboaaren arabera, Etxaguengoaz gain, beste bost ale daudela gaineratu du Ibisatek: "Andaluzian, Extremaduran, Katalunian, Aragoin eta Madril".



ETXAGUEN AUZOKO SAN MIGEL ELIZA Joesan Steelsius-ek 1561.urtean argitaratutako Bibliaren jabea Aramaioko Etxaguen auzoko Eliza da.

ARRITXU BARRUSO

### ARAMAIOTIK GASTEIZERA

Biblia Aramaiotik Gasteizera eraman zutenean, Anbrosio Bergaretxe apaizak zuen Etxaguengo San Miguel elizaren ardura. Lekuonaren esanetan, egoera onean eraman zuten Biblia Elizbarrutiaren artxibora: "Aramaion ondo zaindu zuten, elizetan egoten den hezetasun eta tenperatura aldakorra kaltegarria izaten den arren. 70eko hamarkadan hasi ziren Araba eta Trebinoko parrokietako ondare-

ak gurera ekartzen, kontserbazio eta segurtasun baldintzak berma tu nahian".

Lekuonaren esanetan, Elizbarrutiaren artxiboa Etxaguengo dokumentu gehiago daude: "Bibliaz gain, eliza liburuak eta obra liburuak ere badaude. Obra liburu horietan, kontabilitatea, arkitektoen izenak eta horrelako datuak daude jasota; eliza edo eraikinen azterketak egiteko oso erabilgarriak izaten dira".

### DOMEKARA ARTE IKUSGAI

Horrelako dokumentuak giltzapean gordeta izaten direnez, apena s izaten da ikusteko aukerarik. Horregatik, aprobetatzeko da domekara bitartean Gasteizko Maria Inmaculada Katedraleandagoen erakusketa; Etxaguengoaz gain, beste hainbat ale ikusgarri daude; horien artean, Leizarragak idatzitakoaren *facsimil* edo kopia. Grabatuak eta margotak ere badaude.

### KONTSERBATZEKO ARAUAK

Garai bateko dokumentuak, urtetan irauteko, baldintza berezietan gorde behar dira. Hori horrela, artxibo guztietan jarraitzen dituzten arauen arabera dago gordeta Etxaguengo Biblia Gasteizko Elizbarrutiaren Artxibo Historikoan:

#### > 'ALKANDORA'-REKIN, KAXAN

Liburu horren tamainak, beste askok ez moduan, artxiboko kaxa batean sartzeko aukera ematen du. Kaxa ez da liburuaren babes bakarra: aditurek *alkandora* deitzen diot DIN-A3 tamainako orri batekin dago estalita.

Kaxa eta *alkandora*-ren ph-a neutroa izatea komeni izaten da.

#### > HEZETASUNA

Hezetasun egokiak % 50 behar du izan, 5eko gorabeheran. Hezetasun handiagoa izateak onddoak sortzea dakar eta hezetasun txikiagoak, beriz, papera apurtzea eragin dezake.

#### > TEMPERATURA

Temperatura egokia 18 eta 19 gradu bitarteko da, gradu bateko gorabehera.

#### > ARGITIK BABESTUTA


Argitik babestea ere garrantzitsu da; argiak tinta gastatzea eragin dezake eta, era berean, papera hori dezake.

#### > JENDEARENGANDIK BABESTU

Dokumentuak ahalik eta gutxien ukitzea komeni da. Manipulazioa kaltegarria da.

#### > GARBIKETA

Dokumentua garbi izateak hautsari eta hainbat gaitzi aurre egiten laguntzen du: onddoei eta *zilarrezko arrainei*.



BERPIZKUNDE GARAICO BIBLIA Etxaguengo Biblia barruko orrialde bat.

GASTEIZKO APAIZTEGIKO LIBURUTEGIA

ARRASATE > DANTZA IKUSKIZUNA

# Biarritzko Balletaren 'Mozart Ballets' ikuskizuna zapatuan Amaia antzokian

'Mozart á 2' eta 'Les Petits Riens' koreografiek osatzen dute ikuskizuna; Fagor Arrasatek babestu du emanaldia, urrezko ezteiak ospatzeko

EDU MENDIBIL > ARRASATE Biarritzko Balletak *Mozart Ballets* ikuskizuna egingo du bihar, zapatua, Arrasateko Amaia antzokian, 20:00etan. Wolfgang Amadeus Mozart (1756-1791) konpositore ezagunaren musika oinarri hartuta, Biarritzko dantzarieki koreografia eskainiko dituzte: *Mozart á 2* eta *Les Petits Riens*. Hain zuzen ere, konpositore austriarraren jaiotzaren 250. urteurrena bete zenean landu zuen Biarritze Balletak taldeak bihar Arrasaten ikusgai izango den ikuskizuna. Kritika onak jaso dituzte han eta hemen.

Thyerry Malandain-ek landu ditu bi koreografiak: *Mozart á 2* deiturikoan, bost bikote izango



DANTZAN Zapatuko lehenbiziko koreografian bost bikote arituko dira.

GOIENKARIA

dira dantzan, bakardadea eta amodia bezalako sentimenduak plazaratu. Mozartek piano kontzertutarako koposatutako musika erabiliko dute dantzarieki. Hamar dantzariak ordu erdiz

jardungo dute eszenatokian, saloi dantza eskainiz. Sentsualtasuna da laneko ardatz nagusia.

*Les Petit Riens* pastoralean amodiaoren alde gozoa da protagonista. Baserri giroko dekorazioa batean, Cupido, artzainak eta txoriak azaltzen dira eta ez dago argumenturik, Cupidoren jolas eta txantxen gainean egindako hainbat intriga baino. Mozarten musikaz baliatuz, dibertitzea da

koreografiaren aitzakia nagusia. Bigarren honetan, 16 dantzari arituko dira, horien artean Ione Miren Agirre, Mikel Irurzun Del Castillo eta Miguel Pla Boluda. Azken bi hauek *Mozart á 2* koreografian ere harituko dute parte.

## ORDUBETE INGURU

Dantzarieki erabiliko dituzten jantziak Jorge Gallardok diseinatu ditu eta argiztapena eta produkzio zuzendaritza lanak Jean-Claude Asquiték egin ditu. Biarritzko dantza ikuskizunak ordubete inguruko iraupena dauka.

Zapatuko emanaldirako sarrerak Servikutxako kutxazainetan, 943 00 12 00 telefono zenbakian edo [www.kutxa.net](http://www.kutxa.net) helbidean eskura daitezke. Zapatuan bertan Amaia antzokiko leihatilan izango dira sarrerak salgai, 10 euroren truke. Era berean, gaur, egubakoitzta, Eibarko Antzerki Jaialdiaren barnean, Biarritze Balletak emanaldia egingo du Coliseo antzokian.

Arrasateko emanaldia Fagor Arrasatek babestu du, urrezko ezteiak ospatzeko antolatutako ekitaldien artean.

MUSIKA > PIANO JAIALDIA ANDOAINEN

## Debagoineneko 48 piano jolek hartuko dute parte asteburuan Andoaingo jaialdian

Gipuzkoako eta Bizkaiko 824 pianista elkartuko dira Andoainen; saioak 09:30ean hasiko dira, bihar eta etzi

E.M. > BERGARA

Zapatuan eta domekan piano jaialdia ospatuko da Andoainen, Bastero kultura zentroan. Autengoa piano jaialdiaren hirugarren ekitaldia da eta antolatzaileen arabera urtero-urtero partaidetza kopurua handituz joan da. Hain zuzen ere, aurten 824 pianista elkartuko dira Andoaingo jaialdian. Zapatuko eta domeka-

ko saioak 09:30ean hasiko dira eta iluntzera arte arituko dira musikari gaztetxoak. Partaide guztia 6 eta 16 urte bitartekoak dira, guztia gipuzkoarrak eta Bizkaitik joandakoak hain zuzen ere.

## BAKARKA ETA BINAKA

Adinaren arabera, hiru kategoria bereiztu dituzte antolatzaiak eta bi eratara jardungo dute gaztetxoek: bakarka eta binaka, lau eskutara deituriko modalitatean, hain justu. Prestakuntza gisa, Arrasate Musikalek kontzertua antolatu zuen joan den otsailaren 13rako Amaia antzokian. Orduan 54 pianista elkarzuiren Arrasaten.

Andoaingo jaialdian Arrasate Musikaletik 20 piano ikaslek parte hartuko dute, Bergarako 24 ordezkari izango dira eta, azkenik, Eskoriatzatik beste lau gaztetxo.

Asteburuan izango den jaialdi honetan, partaideak Basteroko bi aretotan banatuko dituzte. Epaimahaik gaztetxoena lana baloratuko du eta domekan bertan diplomak banatuko zaizkie pianistarik onenei.



ARRASATE Irudian, Andoainera joango diren piano jole arrasatearrak. GOIENKARIA



BI AKTORE Santiago Molero eta Rulo Pardo dira antzezleak.

GOIENKARIA

ANTZERKIA > SEXPEARE TALDEAREKIN

## 'Qué pelo más guay' antzezlana gaur Elgetan

E.M. > ELGETA

Sexpeare taldearen eskutik, *'Qué pelo más guay'* antzezlana izango da gaur, egubakoitzta, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, 22:30ean. Santiago Molero eta Rulo Pardo dira antzezleak. Beraien beste lanetako batzuk *Yo tengo un amigo que me ama, Escúchame tu a mí* edo *En grilletes* dira. *'Qué pelo más guay'* 2002ko iukuskizuna da, eta gidoi originalaren Telon Chivas saria irabazita dauka.

Hainbat denbora antzezteke izan ondoren, berriro berreskutatu du Sexpeare konpainiak. Umorea, inteligentzia eta absurdoa tartekatuz, drogarekin *trapitxeatzen* ari den bikote baten gorabeherak azaltzen zaizkigu.

## SARRERAK, 14 EUROTAN

Emanaldiak ordu eta erdi inguru iraupena dauka eta sarrearrak 14 eurotan eurotan izango dira salgai. Espaloia bazkideendako, 12 eurotan.



**Iñaki Urionabarrenetxea** eta **Adeli Porcel** bihar, otsailaren 23an, ezkonduko dira Arrasateko udaltxean. Ezkon bidaian AEBetara eta Mexikora joango dira. Zorionak eta ondo pasa, bikote! Familiaren partetik; bereziki Maren eta Markelen partetik.



**Ainhoa Aginagalde** eta **Ander Jausoro** oñatiarrak bihar ezkonduko dira Oñatiako San Lorentzo ermitan eta ospakizuna Zelai Zabal jatetxeen egingo dute. Ondo ibili Zeelandia Berrian. Zorionak, bikote, eta laztan bat koadrila eta familiaren partetik.



**Alberto Sanchez** eta **Mila Jimenez** otsailaren 9an ezkondu ziren Aretxabaletako udaltxean. Bazkaria Baster-Alde jatetxeen egin zuten eta ezkon bidaian Tenerifera joan dira. Lagunen partetik, zoriontsuak izan zaitezela, bikote! Laztan handi bat.



**Bergarako etxaurre batean dagoen erliebe hori benetan aparta eta bakarrenetarikoa da Estatuan. Ze etxetan dago 1500. urte inguruan igeletsuz egindako artelan hori?**

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkorberezibar

#### URTEURRENA

## Maria Aranguren Alberdi

Ignazio Badiolaren alarguna

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 24an, 11:30ean, Antzuolako Errukizko amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

#### IV. URTEURRENA

## Victor Dueñas Cosme

Laugarren urteurrenean, zure emazteak, seme-alabek eta bilobek betiko izango zaituzte gogoan.



Arrasaten, 2008ko otsailaren 22an.

#### IV. URTEURRENA

## Iñaki Irizar Leanizbarrutia

Laugarren urteurreneko meza domekan, otsailaren 24an, 12:30ean, Arrasateko San Frantzisko elizan.



Aretxabaletan, 2008ko otsailaren 22an.

#### URTEURRENA

## Jesus Ibabe Orueta

2007ko otsailaren 22an hil zen 68 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailaren 24an, 12:30ean, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

#### hildakoak

- **Ignacio Oregi Zabaleta.** Bergaran, otsailaren 17an. 72 urte.
- **Benigno Vieira Fernandez.** Oñatin, otsailaren 17an. 80 urte.
- **Pedro Mari Aldasoro Arregi.** Arrasaten, otsailaren 17an. 50 urte.
- **Eduardo Fernandez Mondragon.** Aramaion, otsailaren 17an. 41 urte.
- **Emilia Otadui Arregi.** Arrasaten, otsailaren 19an. 89 urte.
- **Basilia Sedano Mediavilla.** Arrasaten, otsailaren 19an. 83 urte.

#### ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batua, eguztaren eguerdia baino lehen:  
**Arrasate** Goiena: Otarola Izeniazduna 31. 943 25 05 05 / **Goienetxe**: Nafarroa etorbidetza 2. 943 25 05 05.  
**Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. **Oñati** Bilbon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.  
**Aretxabaleta**: Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramio**: Kintelena Janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22. **Elgeta**: Mariasun Janari denda: Salbador 26. 943 76 81 90. **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 100 euro.**

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **120 euro**.

**Goienkaria: astero, 50.000 irakurle (CIES).**



#### bono fotoa



**Super BM**

Super BMk emandako  
**50 euroko erosketa-txartela**  
zozketatuko du GOIENKARIK asmatzaileon artean!



ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONO .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Goienkako edozein egoitzara

**Pantene xanpua**

300 ml

**3,75 €**

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

#### AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA

Aretxabaletako Albina Errasti Zumalderendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

**Aurreko Galderaren erantzun zuzena:**  
**Leintz-Gatzagan (Gatzagan).**

URTEURRENA

## Prudencio Nafarrate Unzueta

Arrasaten hil zen 2007ko otsailaren 22an.

Lehen urteurreneko meza  
domekan, otsailaren 24an,  
12:30ean,  
Arrasateko San Andres elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Benigno Vieira Fernandez

Oñatin hil zen 2008ko otsailaren 18an, 80 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2008ko otsailaren 22an.

ESKER ONA

## Asun Azkargota Errasti

Arrasaten hil zen 2008ko otsailaren 14an, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko otsailaren 22an.

ESKER ONA

## Inazio Oregi Zabaleta

Mari Glori Inzaren alarguna

Bergaran hil zen 2008ko otsailaren 17an, 72 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko otsailaren 22an.

ESKER ONA

## Maria Caballero Benitez

Bergaran hil zen 2008ko otsailaren 11n, 49 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko otsailaren 22an.

ESKER ONA

## Maria Jesus Laskurain Estala

Bergaran hil zen 2008ko otsailaren 13an, 63 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko otsailaren 22an.

ESKELA

## Josefa Arregi Jaio

Legutianon hil zen 2008ko urtarrilaren 18an, 90 urte zituela.

GOIENAK bat egiten du  
senideen saminarekin.



Bergaran, 2008ko otsailaren 22an.

OROIGARRIA

## Raimundo Oihanguren Idigoras

*Eguzki eder joan guztiak  
argia baitu bihotzak  
eta begien mila ernal  
iraganaren oroitzak.*



Kurtzebarri Eskola.  
Aretxabaletan, 2008ko otsailaren 22an.

OROIGARRIA

## Raimundo Oianguren Idigoras

*Tirikitiena beltxa morena  
ontza bat txokolate goizian onena...*

*Hire kantuak entzuten jarraitzen juau.*



Koadrilakoak.  
Aretxabaletan, 2008ko otsailaren 22an.


OROIGARRIA

## Eduardo Fernandez Mondragon

Gure barnean eramango zaitugu beti.



Aramaioko Oilogor ehiza eta arrantza elkartea.  
Aramaion, 2008ko otsailaren 22an.



Aramaixoko lagunak.  
Aramaion, 2008ko otsailaren 22an.

OROIGARRIA

## Eduardo Fernandez Mondragon

Aramaion hil zen 2008ko otsailaren 18an.

*Hegaztiek soilik dakite  
beren joan etorrietako mugak*



Arrasateko Udal Euskaltegia.  
Arrasaten, 2008ko otsailaren 22an.

ESKELA

## Felipa Ezquibel Arriola

Vicente Galdosen alarguna

Bergaran hil zen 2008ko otsailaren 16an, 100 urte zituela.

Hileta-elizkizunak,  
zapatauan, otsailaren 16an,  
19.00etan izan ziren,  
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joan zinetenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Felipa Ezquibel Arriola

Vicente Galdosen alarguna

Bergaran hil zen 2008ko otsailaren 16an, 100 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko otsailaren 22an.

Babeslea:

OROLORE Hileta eta Beilateko zerbitzuak  
Amillaga auzoa 27. 20570 Bergara  
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 - Fax.: 943 76 94 76  
maribi@orolore.com



Bidaia ezin hobea

**OROLORE**  
Funeraria-Tanatorio  
Hileta eta Beilateko zerbitzuak

**KROSIS**  
INMOBILIARIA  
Ibargarai 3 • BERGARA  
Tel. / Fax: 943 76 97 97  
www.inmokoroski.com

**ETXEBOZITZAK SALGAI**  
**Bergara:**  
• Zabaltegi 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsuza.  
• Simon Arieta 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsuza.  
• Martoko 92 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
• Aranerreka 75 m<sup>2</sup>. Eguzkitsuza.  
• Elusu bescat. Berriuta.  
• Bidekurezeta 60 m<sup>2</sup>. Berriuta.  
• Iberiar 74 m<sup>2</sup>. Ondo.  
• San Juan. Bifamiliarrak.  
• Zubiaurre 70 m<sup>2</sup>. Berriuta.  
• Matxiategi 61 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
• Zabaltegi 60 m<sup>2</sup>. Berriuta.  
• Barrenkale 82 m<sup>2</sup>. Berriuta.  
• Lokala 86 m<sup>2</sup>. Erdialdean.

**Antzuola:**  
• Buztinzuri 76 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
• Alherra 123 m<sup>2</sup>. Duplexa.  
• Antiguia 80 m<sup>2</sup>. Eguzkitsuza.

**Eskoriatza:**  
• Baseria. Berriuta.

**DEBA GARAIA**  
INMOBILIARIA  
Telesforo Aranzadi 2  
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**  
• Matxiategi, 61 m<sup>2</sup>, oso ondo  
• Martoko, 87 m<sup>2</sup>, ondo, garajearekin  
• San Pedro, 88 m<sup>2</sup>, ondo  
• Ibargarai, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo  
• Artekale, 70 m<sup>2</sup>, oso ondo  
• Koldo Elizalde, 87 m<sup>2</sup>, oso ondo  
• Mugurta, 60 m<sup>2</sup>, berria, aukera ona  
• Zubieto, 70 m<sup>2</sup>, ondo  
• Urdangarin p., 132 m<sup>2</sup>, berritzeko  
• Arriarri, 97 m<sup>2</sup>, garajearekin  
• Matxiategi, 73 m<sup>2</sup>, berritzeko  
• Bidekurezeta, duplexa, berritzea  
• Aranerreka, 80 m<sup>2</sup>, oso ondo  
• Etxebizitza berrien erakuntza  
Madura, Masterrea eta Zubiaurren.  
• Zurrañero, 81 m<sup>2</sup>, oso ondo

**SORALUZE**  
• Baltegieto, 83 m<sup>2</sup>, berria

**ANTZUOLA**  
• Duplex berria, erdialdean.  
• Eguzki auzoa, 85 m<sup>2</sup>, erdi berriuta.

**ELGETA**  
• San Roke, 75 m<sup>2</sup>, ia berria.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola:** Sagasti auzoan etxe salgai. 90 m<sup>2</sup>. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela han-dia, bi balko eta despentsa. Garajearekin. Erdi jantzia. 617 00 37 30 edo 943 78 71 35.

**Antzuola:** Sagasti kalean 85 m<sup>2</sup> ko etxe berria salgai. Hiru logela, bi komun, sukaldea, egongela eta balko. Eguzkitsuza, garaje eta trastelekuarekin. Erdi jantzia. Deitu ezazu telefono honetara: 629 40 4216 edo 656 75 86 97.

**Antzuola:** Ibarre auzoan 92 metro koadroko etxebizitza salgai. Deitu ezazu telefono honetara: 628 93 31 87.

**Aretxabaleta:** Belorrietan 110 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza salgai. Hiru logela, sukaldea, egongela han-dia, bi komun eta bi balko. Igo-gailua. Garajearekin. Erdi jantzia. Toki lasaia. Deitu ezazu telefono honetara: 649 47 50 75 edo 605 75 14 34.

**Aretxabaleta:** Erdigunean teilatupeko 72 metro koadroko etxebizitza salgai. Jantzia. 16 metro koadroko garajea. Prezio interesgarria. 659 64 67 38.

**Arrasate:** 45 metro koadroko etxebizitza salgai. Agerre kalean. Bi logela, sala, sukaldea eta komuna, berrizko. Dena kan-pora begira. Trasteleku daudu. Dena arratsaldeko seiatik bederatzieta. 645 70 08 27 edo 665 72 92 88.

## LAN ESKAITZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak  
kooperatibak behar du:

## KAZETARIA

### Baldintzak:

- Euskaran jakitea.
- Idazten trebea izatea.

### Baloratuko da:

- Kazetari edo antzeko titulua izatea.
- Hedabideetan edo komunikazio enpresatan esperientzia izatea.
- Informatikako programak erabiltzen jakitea.
- Atzerritako hizkuntzak jakitea.
- Kamera aurrean aritzeko dohainak edukitzeara.

Bidali curriculuma helbide honetara:

Goiena Komunikazio Zerbitzuak  
Nafarroa etorbidea 2.  
20500 ARRASATE  
idazkarita@goiena.com

Curriculuma aurkezteko azken eguna:  
2008ko martxoaren 4an.



# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu.

# 943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIKA DOAN JARRIKO DITU; GAINERAKOAK 22 EURO ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO.  
PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENENKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 30 EURO.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizun.

## ARRASATE

Osasun zentro  
bateko harrerarako  
neska euskalduna  
behar da.  
943 79 97 46

**Bergara.** Ortuibar kalean 90 metro koadroko etxebizitza salgai. 21 metro koadroko terrazaren. Garaje aukeran. 679 24 97 48.

Chevrolet Epicak zoriontsu egingo zaitu.  
Horrela ez bada, dirua bueltatuko dizugu.



**EPICA** Chevrolet markako edozein auto erosita, hilabete edo 3.000 kilometro dauzkazu egindako erosketa ona izan dela baiezatzeko. Chevrolet Epicak honako hauetako ditu: ABS, EBD, ESC, 6 aire-poltsa, antipartikuladun filtro diesela, aire girogailu automatikoa, Cruise kontrola, euriarendako eta atzealdeko aparkaleku sentsoreta eta 16 pulgadako aleaziozko hagunak.

**EPICA VCDI**  
**150 ZP Diesela**  
**5 urteko garantia**  
**20.900 eurogatik**

**GEHIAGO DA.** 

Giauto Eibar • Otaola, 27 • Tel.: 943 202 500 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es  
Giauto Olaberria • Karobi Ind. • Tel.: 943 885 150 • Salmentak: 902 345 225 • Salmenta ondorengoa: 902 345 235 • E-mail: clientes@giauto.es • www.giauto.es

Prezio baliagarria Penintsula eta Balear uharteetarako Epica 2.0 VCDI LT bertsioarentzako (BEZa, matrikulazio zerga, garraioa eta promozioa barne). Eskaintza baliagarria hilabete bukaera arte. Kontsumo mistoa (l/100 km): 6.1-9.3. CO<sub>2</sub> emisioa (g/km): 169-219. Bost urteko garantia: hiru urteko kontratu-garantia (hiru urte edo 100.000 kilometro: kilometroen mugaz da lehen bi urteetan aplikatuko. 23/2003 Garantien Legea), eta horri bi urte gehitu behar zaizkio. Chevrolet 5 Zerbitzuak eskaintzen dizkizun kontratuaren baldintzak.

# Txantxiku Ikastola geurea delako

O urtetik 18 urte arteko eskaintza

Otsailaren 28a, osteguna  
18:30ean, Txantxiku Ikastolako aretoan

Bilera informatiboa gurasoentzat  
Gaia: Txantxiku Ikastolaren hezkuntza proiektua  
eta funtzionamendua

Otsailaren 29a, ostirala  
17:00etatik aurrera

**ATE IREKIAK** 

- 17:00etan: Potxin eta Patxin pailazoak
- Musika eta jolasak ikastolako jolaslekuuan

Haur hezkuntzako gelak ikusgai!



**Txantxiku Ikastola**  
San Juan kalea 1 • 20560 Oñati  
Tel.: 943 78 12 04 • Faxa: 943 78 31 88  
txantxiku@ikastola.net  
[www.txantxikuikastola.net](http://www.txantxikuikastola.net)

  
**TXANTXIKU IKASTOLA**

  
**Euskadi**

  
**Ikastola Elkartea**

Oihane Gurrutxaga > Informatikaria eta aerobik irakaslea

# "Gorputzak eskatu egiten dit egunean gutxienez bi ordu izerdi egitea"

Neska gazte bergarar hau informatikaria da ikasketaz. Baino albo batera utzi zuen ikasita-

koa eta gaur egun aerobikeko irakasle lanetan dihardu Bergarako Giartzu gimnasioan. Izan

ere, txikitatik izan du gustuko aerobika, baita dantza ere. Kirola du lanbide eta zaletasun, bai-

na ez du baztertu egunen batean ordenagailuen mundura berriz bueltatzea.

**IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA**  
Giartzu gimnasioan hitzordua egin eta lanerako tresna dituen makina eta koltxoietan egon gara Oihane Gurrutxagarekin. Aerobik irakasle lanetan jarduten du eta atsedenerako orduetan tartea hartzen du noiz edo noiz dantzarako ere.

#### Nola hasi zinen aerobikean?

Txikitian telebistaren aurrean egiten nuen aerobika. Gero, amak animatuta hasi nintzen gimnasioan 10 urterekin. Aerobikeko irakasle titulua atera nuen ondoren eta orain dela bost urte eskolak ematen hasi nintzen. Urtebete inguru utzita egon nintzen tendinitisa neukalako, baina falta sumatu eta itzuli egin nintzen. Asko betetzen nau.

#### Gimnasioan ordu asko, hortaz.

Hasieran, egunean bi orduz ematen nituen eskolak. Gero zortzi orduz hasi nintzen: bost orduz ematen eta gainontzekoak muskulazio gelan laguntzen. Etxean, gelan ibiltzen naiz koreografiak gertatzen eta bideoak ikusten ideiak hartzeko...

#### Aerobikaz gain, bestelakoak ere irakasten dituzu, hortaz.

Bai, step, batuka eta body balance eta zirkuituak egiten ditut; eta adinekoei gimnasia saioak ematen dizkiet. Horretarako, aurrez nik ikasi behar izan dut ikastaroak eginez: aerobika ikasten urtebetetegon nintzen Gasteizen; body balance ikasteko Bilborra joaten naiz hiru hilabetean behin; Mallorkan eta Zaragozan ikastaro trinkoak egin ditut...

#### Batuka egiten duzula diozu. Dantza ere gustuko duzu?

Bai, asko. Batuka egiten dut, baina hip-hop ere gustatzen zait. Gasteizen ikasten egon nintzen hainbat dantza mota probatu nituen, eta gustura jarduten dut. Parrandetan dantzara joateko ahizpa hartzen dut lagun. Koadrilakoak beste estilo bateko giroan mugitzen dira.

#### Musika nola lortzen duzu?

Gehienetan Internet bidez, baina irakaslek ere uzten didate materiala. Niri house musika gustatzen zait, baina eskoletan salsa estiloak erabiltzen dut, jendeari gehiago gustatzen zaiolako.

#### Zer moduz adinekoekin?

Hasieran kosta zitzaidan, baina segituan hartu nien neurria. Oso esker onekoak dira, edozein gauza eginda pozik jarduten dute.



IRATI AGIRREAZALDEGI

#### PERTSONALA

**Herria:** Bergara. **Adina:** 24 urte. **Ikasketak?** Ingeniaritza Informatikoa eta aerobik, pilates eta body balance ikastaroak. **Musika talde bat?** Rihanna eta Natch Scrach. **Ariketa mota bat?** Body balance egiten nabil gustura. **Dantza erritmo bat?** Hip-hop. **Zaletasu-**

**nak?** Moda, dantza egitea eta animaliak; katua daukat etxeen. **Bizitzeko leku bat?** Bergara. Cadiz penitentiari izan dut, baina norberaren herria bezalakoik ez dago. **Amets bat?** Presenter-a izatea, hau da, gimnasia irakaslei irakasten jardutea.

#### Zer behar du aerobik iraskasle on batiek?

Alaia izan behar du eta jakin behar du jendea motibatzen. Gimnasia oso ona izan arren ikasketak motibatzen jakin ezean, jai du. Bestalde, indar handia behar da; fisikoa eta psikologikoa.

#### Zertan ematen duzu aisiaidlia?

Aste osoko lanak oso nekatuta uzten nau eta aisiaidlia atsedenerako hartzen dut. Erosketak egitera joatea ere gustatzen zait, baita parranda ere, baina gorputzak astelehenean gerto egon behar du. Gainera, jendeak libre duenean gimnasiara joateko aprobatxatzen du eta orduan egin behar dugu lan. Gogorra den arren gorputzak eskatu egiten dit egunean gutxienez bi ordu izerdi egitea.

#### Moda jarraitzen duzu?

Dirua soberan izanez gero, nire galbidea litzateke. Hiriburu-ruetara joaten naiz arropak begiratzen eta, ahal bada, eroastera. Hala ere, aste barruan egunero txandalarekin ibiltzen naiz. Aste bukaeretan aprobatxatzen dut nahi dudan arropa janztek.

#### Bidaiatzea gustuko duzu?

Bai, gustatzen zait. Aste Santuan, esaterako, Parisera noa. Gainontzean, Eivissa (Ibiza), Lanzarote... gogoko ditut. Udan ia beti Cadizera joaten naiz.

#### Zer dela eta aukeratu zenituen Informatika ikasketak?

Unibertsitatera joateko adinean, ez neukan batere argi zer ikasi nahi nuen eta Ingeniaritza Informatikoko karrera egin nuen Oñatin. Ikasketek ez ninduten betetzen, baina ongi ari nintzen eta amaitu arte jarraitu nuen. Ez dut baztertzen etorkizunean noizbait informatikan jardutea.

#### Ordenagailua, hortaz, albo batera utzia duzu?

Gustuko dut ordenagailuarekin ibiltzea, programatzea ere polita da, baina ez nuen nire burua ikusten zortzi orduz bulego batean horretan lanean. Beharbada 50 urterekin ez naiz egingo orain bezala dantzan eta gimnasiaren jarduteko moduan, eta orduan izan daiteke irtenbidea.

#### Etorkizunerako zein asmo?

Oraingoz gimnasioan jarraitu nahi dut, baina muskulatura nahiko ahula dut eta ez dut uste erritmo honetan gorputzak luza-roan iraungo duenik; hortaz, gerora ez dakit zer egingo dudan.

LUNES 11 DE FEBRERO DE 2008

No time for love in the basque country  
The is no time for love in the basque country, please extend the solidarity  
Ez dago maitasunerako aukerarik Euskal Herrian, zabaldu elkartasuna  
No hay tiempo para el amor en el País Vasco, extiende la solidaridad.

NO TIME FOR LOVE  
EXTEND THE SOLIDARITY

NO TIME FOR LOVE ESAN DUTENAK  
Beste batzuk gehiago  
No time for love esaten ari gara  
Beste batzuk ere

NO TIME FOR LOVE  
Hot Babes Ara Mina and Christine Reyes Clear Status of Willie ...  
No time for love Dr. Jones  
aeamek @ 2008-02-19T16:31:00  
Single Serving Sites  
DISTINCIONES ARTE Y PICO

NO TIME FOR LOVE ESAN DUTEN BATZUK!  
Esquema Represivo  
¿Se puede pactar, acaso, con aquellos que vulneran derechos humanos democráticos?

Blog honen helbidea - This blog's URL  
<http://notimeforlove-istimeforpeace.blogspot.com>

BLOGA Kanpainaren gaineko informazioa zabaltzeko blog berezia ipini dute abian.

GOIENKARIA

**BLOGAK** > 'NO TIME FOR LOVE' KANPAINA

# Blogarieiek kanpaina egin dute alderdien legez kanporatzearen aurka

Protesta eta salaketekin bat egin nahi duten blogariei deialdia egin diete Internet bidezko komunikazioetan 'Notimeforlove' etiketa jartzeko

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA Alderdien legez kanporatzearen aurka eta azken atxiloketa eta tortura kasuak salatzeko *No time for love* (Ez dago maitasunerako aukerarik) kanpaina abiatu du hainbat euskal blogari.

Protestarekin bat egiten dute nei euren Internet bidezko komunikazioetan *Notimeforlove* etiketa jartzeko deialdia da eta horre-

tarako blog batean bildu dituzte ekimenari buruzko xehetasunak: <http://notimeforlove-istimeforpeace.blogspot.com>.

Hertzainak musika taldearen izen bereko abestia egin dio erreferentzia kanpainaren leloak. Lelo hori aukeratzeko arrazoiak bat da argumentu hori era-bili dutela tribunalek EAE alderdia legez kanpo uzteko. Hau da, Marian Beitialarrangoitia Hernaniko alkateak ekitaldi publiko batean ustezko ETAko bi kideri "maite zaituztegu" esan izana.

**TECHNORATI-N JARRAIPENA** Mobilizazioa birtualki segi daitzeke Technorati blog bilatzairekin. Hain zuzen ere, *Notimeforlove* izan da tarte batean hitzik bilatuena.

Bestalde, euskal blogosferako hainbat kidek nahi du Espaniako Botere Judzialari kexa helata.

raztea, horretarako erabiliz Espainiako epaitegi eta tribunaleko atari ofizialean dagoen formularioa.

Horretaz gain, sareko protestak azken tortura salaketak ere hartzen ditu gai. Torturaren Aurkako Taldeak bideo bat gertatu du Ez da ezer aldatu lelopean. Beratan jaso dituzte hainbat euskal herritarrek 2007an egindako tortura salaketak.

EAE-ANVik ere bideo bat egin du Ilegalizazio guztien gainetik, herri batua inoiz ez zanpatua leloa erabiliz. Sarean hainbat tokitan zabaldu dute bideoa. Izan ere, baliteke alderdiaren webgunea egun batetik bestera baliogabetzea.

Azken batean, Internet sareak ematen duen askatasuna baliatzen dihardute askatasun mezua zabaltzeko eta askatasuna aldarrikatzeko.

## teknologia berriak

> BOLIGRAFOA

### Idatzitako edo marraztutako SMS bidez bidaltzen duen boligrafoa

Boligrafo bat da D:Scribe, baina ez nolanahiko boligrafoa. Gainontzekoek bezala paperaren gainean idazteko balio duen arren, baditu beste erabilera batzuk ere. Boligrafo horrekin idatzitako edo marraztutako edozer gauza SMS bidez bidal daiteke, bluetooth bitartez konektatzen den sakelako telefonoa erabiliz. Horretaz gain, egindako marrazkiak eta bidalitako mezuak gordetzeko aukera ematen du, baita ordenagailuan ikusteko ere.



Itxura modernoa duen boligrafoa ez dute merkaturatu. Oraingo prototipoa besterik ez da.

> ORDENAGAILUAK

### Sagua eta jokoetarako palanka biak tresna bakarrean bateratu dituzte

Ordenagailuetarako jokozen zaleendako egokia da tresna hori. Joystick-ak eta jokorako palankak albo batera utzi eta bi gauza tresna bakarrean izango dituzte: aplikazioetarako beharrezkoa dena eta jokoak kontrolatzeko balio duena. Evergreen Navigator 365 ordenagailurako sagu arrunta da itxita dagoenean eta lanerako aplikazioak kontrolatzeko balio du. Zabalduz gero, jolasera tresna bihurtzen da.

Salneurria: 23 euro.



Txikia izanik egokia da, besteak beste, ordenagailu eramangarriendako.

> TELEBISTA

### LG etxearen telebista aparailu berriak itxurari eman dio garrantzia, diseinua eta kolorea zainduz

Diseinua da telebista aparailu berri horren ezaugarri nagusia; izan ere, LG etxearen telebista hori abangoardiako eta sofistikatua da oso.

Kolore gorri distiratsuak glamour itxura ematen dio eta oso fina da, gainera.

LCD LG6000 pantaila HD Ready da eta 32, 37, 42 eta 47 hazbeteen eskura daiteke aukeran.

Pantailak berak bozgorailuak ditu ezkutuan, lau HDMI sarrera, ahotsa argitzeko funtzioak eta USB2.0 sarrera ere baditu.



Daukan diseinuaren harira, London Fashion Week moda jaialdi sonatuan aurkeztu dute telebista.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net-eko-blog.komertzialak](http://www.goiena.net-eko-blog.komertzialak)

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

/aebpn  
/aistui  
/arantxa  
/aretxargi  
/argi-plastik  
/arregi  
/atai  
/azkarate  
/bastida  
/briz-  
aseguruak  
/BZ-sistemas  
/bolusukaldeak  
/denetik

/dragon-oriental  
/dukiena  
/ego  
/eguzkigraf  
/ekilore  
/elkin  
/elejalde  
/ezkutuorly  
/galgorri  
/gallastegi  
/ganesh  
/garaia  
/gertu  
/gorkataxi

/gorla  
/gurea  
/gutzizeder  
/hamakataberna  
/itxaseder  
/irudisport  
/ixaun  
/izeder  
/jcracing  
/lamaino-etebeberri  
/lorelan  
/korozabaleta  
/kizkur  
/markiegi

/maulanda  
/mayte  
/merkeopari  
/multiopticas  
/ohiak  
/ogizun  
/okipark  
/optico  
/otzeta  
/pando  
/perfipar  
/puerta-ingles  
/richimaier  
/tabernaberri

/udalatx  
/udalaitz  
/erdeki  
/ugartearotza  
/urbeta  
/urkia  
/vitoria  
/zaindusz  
/ziripot

Eta baita ere:

[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.amgautoak.com](http://www.amgautoak.com)  
[www.baster-aldejateak.com](http://www.baster-aldejateak.com)  
[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)  
[www.gelatzu.com](http://www.gelatzu.com)  
[www.goikobenta.com](http://www.goikobenta.com)  
[www.haurtxoa.com](http://www.haurtxoa.com)  
[www.kizkur.com](http://www.kizkur.com)  
[www.klorofila.com](http://www.klorofila.com)  
[www.landaluze.com](http://www.landaluze.com)  
[www.llura.com](http://www.llura.com)  
[www.toldoslete.com](http://www.toldoslete.com)  
[www.uxarte.net](http://www.uxarte.net)  
[www.blark.net](http://www.blark.net)



**berriak**

> HARMAILATIK  
**Irizar eta Velasco txirrindulariak datorren astean**

Markel Irizar eta Iban Velasco izango dira datorren astehenean *Harmailatik* saioan. Euskaltel-Euskadi taldeko txirrindulariek denboraldia-ren gainean berba egingo dute Xabi Urtzelaik zuzendutako saioan.

Irizarrek datorren astean hasiko du denboraldia Valentzian eta Iban Velascok dagoeneko hasi du. Xabi Urtzelaik entrenamendu batean izan da haietan.

> MUSIKANTOI  
**Elorrioko Lor taldearen gaineke saioa datorren astean**

Musika eskaientza handiaren-kin datorki datorren astean *Musikantoi* saioa. Era guztietako musika estiloak jorratzen dira, baina datorren eguneko Elorrioko Lor talde arrakastatsuaren gaine-koia izango da.

Lor taldekoek 2003an kale-ruatzen zuten lehen diskoa. Rock doinu sarkorrik egiten dituen talde horren gaineke saioa, beraz, datorren eguneko *A las ocho en el Bule* liburua argitaratu duelako.

> ARRASATE IRRATIA  
**Arrasateren gaineke argitalpen berrien informazioa**

Azkenaldian badabiltza argitaratzen Arrasateren gaineko hainbat produktu. Adibidez, Arrasateko kooperativistak protagonista dituen liburua idatzi du Joseba Azkarraga Huheziko irakasleak. Horrez gainera, Arrasateko Emakumeekiko Indarkeriaren Aurkako Plataformaren bitartez bultzatutako *Astelehena* ize-neko komikia aztertuko dute martitzenean. Irratian izango dira xehetasun gehiago.

> ARRASATE IRRATIA  
**Jose Ramon Soroizen antzezlana ikusteko sarrerak, irratian**

Aster moduan, entzuleen artean makinatxo bat opari zozkatuko dituzte irratian. Oraingo honetan, besteak beste, Jose Ramon Soroiz aktore ezagunak eta Txalo Produkzioak enpresak landu duten *Sommer Jaunaren Istorioa* izeneko antzezlanera bidaliko ditu irratia entzuleak. Parte hartzeko bi bide daude, telefonoz dei daiteke honako zenbakira: 943 25 05 05; edo mezua bidal daiteke honako helbidera: *irratia@goienea.com*.

'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

## Xabier Silveira bertsolaria gaur 'Ilunpean' saioan

Lesakan jaiotako bertsolaria da Xabier Silveira; Nafarroako bertsolari txapelketa bost bider irabazi du

GOIENKARIA > ARRASATE

Lesakan jaio zen, baina egun Donostialdean bizi da Xabier Silveira. Bertsolari ezaguna, bost bider irabazi du Nafarroako Bertsolari Txapelketa eta ia asteburro herririk herri ibiltzen da bertsoan. Oso kritikoa da bertsolaritzako hainbat alderdirenkin. Horren erakusle da Fredi Paia eta Jokin Urangarekin batera *Zaharrak berrixou* proiektuan ibili zela bertsolaritzan jende artean zabaltzeko ahaleginean.

Egunotan askoren ahotan dabil, kale borrokaren gaineko *A las ocho en el Bule* liburua argitaratu duelako.



XABIER SILVEIRA Nafarra bertsolari ezaguna da.

IKER BARANDIARAN

'ERREPORTAJEA' > ASTELEHENA, 21:47

## Udal euskaltegietako lan egiteko modua ikusgai asteleheneko erreportajearen

GOIENKARIA > BERGARA

Udal euskaltegien lana gertutik ezagutzeko aukera izango duzue datorren asteleheneko erreportajearen. Hain zuzen ere, Arrasateko Udal Euskaltegia eredu har-tuta, euskarazko eskolak emateko modua, ikasleen profila,

metodologia eta beste hainbat kontu ikusiko dituzue. Horretarako, eta esandako moduan, Julen Iriondo kazetaria Arrasateko Udal Euskaltegia izan da bertako eskolak gertutik jarraitzen. Hala, Goiena Telebista hainbat lagunek euskaraz ikas-

teko egiten duten ahaleginaren lekuko izango da, eta, euren esfortzua ulertzeko asmoz, hainbat argibide emango dira.

Euskaltegian pertsona bakotzaren euskara mailaren arabera-koko gelak egiten dituzte; eta eskolak ere horren arabera-koko izaten dira. Norberaren helburuen arabera ere banatzen dira gelak. Izan ere, pertsona bakoitzak bere arrazoak ditu euskaraz ikasten hasteko. Ikusiko dituzue gurasoei zuzenduta dauden eskolak, dendariei zuzendutakoak, EGA atera nahi dutenei zuzenduak...

**telebegi**

Aitor Arregi

### 'Mihiluze' Iuzerako

**A**stelehen honetan 200. zenbakira iritsi zen *Mihiluze* eta pertsonaia ezagunekin saio berezi bat egin zuten. %9ko share-a lortu zuten, hitz soiletan, audientzia emaitza bikaina ETB1endako.

Telebista publikoak bere dinamika izan beharko luke, pazientzia lagun, telebista pribatuen urgentziaz urrun. Audientziaren norgehiagokan sartu, baina duintasuna erakutsiaz. *Mihiluze* da pazientzia horren zorioneko adibide bat. Hasieran audientzia nahiko apala izan zuen arren, saioak potentziala bazuela ikusi zuten. Aldaketa batzuk egin eta gaur egun ETB1eko izarretako bat da.

*Mihiluze* saio irabazole bat da, adin desberdinak jendeak jarraitzen duen lehiaketa umoretsua. Audientzia espektro nagusia asetzten duen formula magikoa bilatzea ez da batere erraza. Beste datu bat (kateaz zer pentsa ematen duena eta ez, hain zuzen, positiboki): ETB1en 26 urteetan saio guztietatik lehena izan da bere formularren eskubideak kanpoko telebista batera saltzen. Kataluniako telebistan *Bocamoll* izeneko saio bikia arrakasta itzela izaten ari da. *Mihiluze*-egile guztioi, zorionak!

**arrasate irratia**

FM 107.7

### Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.

Eguraldi kontuak Bixente Pagoagaren eskuikitik; hirugarren adinekoen gaineako (dieta, tertulia...) Zaharrak berri-saioan, eta sexología kontuak, besteak beste.

### Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

### Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo autobusera!

Albistegia

Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)

Ilinpean

Teknobierrak

Igo Euriborrera!

Kantaka

Zaharrak Berri

Astearen errepasoa

Zozketak

Zorion agurrrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goienea.com*))

11:55 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

12:00 Euskadi Irratiko albistegia

12:10 Izarran ordua: abesti ezagunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 Igo autobusera! (errept.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

## GOITBKo programazioa

### EGUBAKOITZA, 22

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Animalia. 14:45 Albisteaurrapena. 15:15 Erreportaje. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta lur. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ameriketako erreptajeak. 18:15 Ilunpean. 18:45 Albisteak. 19:15 Izkusira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportaje. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Gertutik. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

### ZAPATUA, 23

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Izkusira. 11:30 Klusten. 12:00 Astekoak. 12:15 Errugbia. 13:45 Ameriketako erreptajeak. 15:00 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Udzaken koloreak. 19:30 Klip. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Eltze beroa. 21:00 Animalia. 21:30 Erreportajea ttipi ttapa. 22:00 Erreportajea. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikan-toi. 23:30 Jazmina. 00:00 Emisio amaiera.

### DOMEKA, 24

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Kantari. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Eltze beroa. 13:00 Izkussten. 13:30 Jazmina. 14:00 Animalia. 14:30 Eltze beroa. 15:00 Musikantoi. 15:30 Erreportajea. 14:00 Ilunpean. 14:30 Errepor ttipi ttapa. 15:00 Ur eta lur. 15:30 Eltze beroa. 16:00 Gertutik. 16:30 Marrazki bizidunak. 19:00 Jazz gauak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Errugbia. 22:00 Astekoak. 22:15 Gertutik. 22:45 Ilunpean. 23:15 Erreportajea. 23:45 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

### ASTELEHENENA, 25

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea ttipi ttapa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Erreportajea. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Izkusira. 18:15 Klusten. 18:45 Berriak. 19:15 Gertutik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15 Hamailla-tik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 22:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Hamailla-tik. 22:45 Gaurkoak. 23:3028 Klip. 00:15 Emisio amaiera.

### MARTITZENA, 26

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Hamailla-tik. 14:45 Berriak. 15:15 Gertutik. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Izkusira. 18:15 Klip. 18:45 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Klusten. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berriak. 22:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berriare. 22:15 Animalia. 22:45 Berriak. 23:15 Izkusira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportajea. 00:15 Emisio amaiera.

### EGUAZTENA, 27

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze beroia. 14:45 Berriak. 15:15 Berriare. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animalia. 16:15 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Hamailla-tik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: 19:45 Berriak. 20:15 Zaharrak berri. 20:45 Berriak. 21:15 Klusten. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Euskal Artzainak Ameriketan. 22:45 Berriak. 23:15 Teknopolis. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

### EGUENA, 28

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Zaharrak berri. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Marrazki bizidunak. 14:15 Euskal artzainak ameriketan. 14:45 Berriak. 15:15 Berriare. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Animalia. 16:17 Teknopolis. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Gertutik. 18:15 Hamailla-tik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berriare. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Klusten. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ilunpean. 00:15 Emisio amaiera.

# INDEPENDENTZIA OIHUKATU!



eusko  
alkartasuna

herriarenahotsa



[euskoalkartasuna.org](http://euskoalkartasuna.org)

# Otsailak 22-28

**LEIRE KORTABARRIA**  
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa  
eguzateneko eguerdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

## Zinema



BERGARA

### > 'Una historia verdadera' eta film laburra, gaztetxeko zinekluba bukatzen

Bergarako Gazte Batzarrak bizitzako aroen gaineko zinekluba egin du azken bi hilabeteotan. David Lynch-en *Una historia verdadera* eta film laburra emango dituzte etzi, domeka, gaztetxean, 18:00etan; horrekin bukatzen da zikloa.

## Bertsolaritza



OÑATI

### > 'Gu ta gutarrak' bertso ikuskizuna egingo dute gaur Oñatiko gaztelekuau

*Gu ta gutarrak* bertsoak eta musika batzen dituen ikuskizuna ikusteko aukera izango da gaur, egubakoitza, gaztelekuau, 22:30ean. Oñatiko Bertso Eskolak antolatu du. Inprobisazioa eta ezuste politak egongo dira.

## Antzerkia



ELGETA

### > ¡Qué pelo más guay! antzezlana egingo dute gaur, egubakoitza, Espaloian

Efekto-Sexpeare Konpainiak *¡Qué pelo más guay!* antzezlana egingo du 22:30ean. Gidoi onenaren Telon Chivas saria irabazi zuen 2002an. Komedia horretako protagonistak bi lapur dira, eta maleta batekin egin dute topo...

## Antzerkia

ESKORIATZA

### > Umeendako ipuinak kontatuko ditu Maite Francok

Maite Franco kontalariak ipuinak kontatuko ditu. 5 urtetik gorako umeendako saioa izango da. Udalak antolatu du.

Eguenean, hilak 28, liburutegian, 18:00etan.

OÑATI

### > Ingurumen Astearen barruan, umeendako ipuin kontaketa

Gorringo antzerki taldearen eskutik, 1.728 animalia kontu delako ipuin kontaketa egongo da. Bi esploratzalek uharte bakarti batera egiten duten bidaian, 1.728 animalia topatuko dituzte.

Gonbidapenak aldez aurretik eskatu behar dira kultura etxeen.

Hilaren 26an eta 28an, ume liburutegian, 18:00etan.

## Erakusketa

ARRASATE

### > 'Hondakinak: amesgaiztorik ez!' delako erakusketa dago

Mankomunitateak antolatuta, hondakinen, beroien kudeaketaren eta gaur egungo egoeraren inguruko erakusketta dago Kulturaren. Helburua da hausnarketa eragitea, gaur egungo ohiturak eta egoera aldatzeko daukagun aukeraz ohartarazteko.

Martzenetik domekara, 17:30-20:30; martxoaren 2ra arte egongo da zabalik.

BERGARA

### > Koldo Eleizalde Lehiaketak deitu ditu Euskara Batzordeak

BERGARA

> Trofeu Montbarbat argazki lehiaketako lanak

Lloret de Mar hiriko Txango Elkartearen Trofeu Montbarbat delako argazki lehiaketara aurkeztutako lanak ikusteko aukera dago; lehiaketa horrek hamargarren urteurrena du aurten.

Pol-Pol Argazki Taldeak antolatu du erakusketa. Mendiaren eta naturaren inguruko argazkiak dira. Aroztegi aretoan dago erakusketak ikusteko modua.

Zabalik dago martxoaren 2ra bitartean.

OÑATI

> Anfibioen eta narrastien gaineko argazki erakusketa

Ingurumen Astearen barruan, *Anfibioak eta narrastiak: aniztasuna eta kolorea* delako argazki erakusketa dago kultura etxean. Aranzadi Zientzia Elkartea prestatuta-ko erakusketa da.

Martxoaren 2ra arte, egunero, 18:30etik 20:30era bitartean.

BERGARA

> Diego Osuna bergararraren erakusketa ikusteko aukera

Diego Osuna Hurtado margolari bergararrak erakusketa ipini ditu hainbat lan. Kultura etxean dago beroiek ikusteko modua.

Martxoaren 8ra arte dago zabalik.

OÑATI

> Ilunpetan argazki taldearen erakusketa dago gaztelekuaren

Gazteleku kuboan, gaztelekuaren lan egiten duen Ilunpetan argazki taldeak bere lanen erakusketa jarri du. Hogeitik gora argazki ikusteko aukera dago astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara bitartean.

Gaur, egubakoitzak da bisitatzen azken eguna, 18:00-20:00.

## Bestelakoak

OÑATI

> Jolasparkea antolatu du Elkar Hezik biharko, zapatua

Elkar Hezi ikastetxeak jolasparkea antolatu du. Hainbat ekintza egongo dira: taurerrak, jokoak, ikasleek egindako serigrafia lanen erakusketa, Ixabel Millet ipuin kontalariaren *Elkar maite* ikuskizuna, Marsel Magoaren magia taurerra, merienda eta magia ikuskizuna.

Bihar, Elkar Heziren Arantzazuko Ama kaleko eraikinean, 16:00-19:00.

ARRASATE

> Iturripe elkartea 'Elias' ikustera joango da Bilbora

Uribe auzoko Iturripe elkartea irteera antolatu du martxoaren 7rako Bilboko Euskalduna Jauregian izango den kontzertura joateko. Bilboko Orkestra Sinfonikoak eta Iruñeko Orfeoiak Mendelssohn-en *Elias* lana aurkeztuko dute. Irteera 18:30ean izango da, Uriben eta, gero, Garibaioko geltokian.

Izenemateko: 620 55 99 79.



### Sweeney Todd

\*\*\*

Zuzendaria: Tim Burton.

Aktoreak: Johnny Depp, Helena Bonham-Carter, Alan Rickman. AEB, 2007. 116 min. 13 urtetik gorakoendako

**S**weeney Todd-en jatorria antzerki musikal-an dago. Stephen Sondheim-en musical zoragarria, Tim Burton zuzendariaren eskuetatik, film bilakatu da. Filmeari, Sondheimeren eta Burtonen pertsonalitateak nabaritzen dira: konposatzialearearen abestia eta musika istorioan oso ondo osatua daude, eta abestiek pisu dramatikoa dute; ez dute istorioa gelditzen; aitzitik, istorioa garatzeko balio dute. Eta Burton-ek antzerkia zinema bihurtzen du: badaki antzerki eta zinemako hizkuntzak desberdinak direla eta horregatik antzerkiko abesti batzuk kendu egiten ditu, istorioari indarra emateko.

Sweeney Todd-en, Burtonen unibertsua eta estetika agertzen dira. Istorioa grisez eta gorriz filmatua dago: kolore grisak Londres ilun baten murgiltzen gaitu; kolore biziak oroitzapen eta ametsendako dira eta, batez ere, odolarentzako; dekoratuek tonu errerealista eta fantastikoa ematen diote istorioari. Burton-ek, mutua eta kamera mugimenduen bitarte, eszena bakoitzari bere ukitu eta erritmo berezia ematen dio: geldoa eta barnekoia da momentu batzuetan, asaldagarria eta bortitzeta beste batzuetan, baina beti intentsitatez beterik dago filma.

Istorio ikaragarri honen pertsonaia nagusiak barnekoia eta patetikoak, ahaluk eta krudelak, mendekua, kodizia eta einezko amodioen esklabu dira. Johnny Depp eta Helena Bonham Carter-ek, begipetsu eta euren aurpegia zuriekin, gorrotoz beteriko Inglaterra viktoriarrean espoxeratuak bizi diren bapirroak dirudite.

Zuzendaria lehenengo iruditik azkeneneko plano hunkigarri arte harrapatzenten gaitu. *Sweeney Todd* denborala luzean espero izan dugun film musikala da.

Antonio Zabala

# Zinema

## ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

La sombra del cazador

Domeka: 19:30

Astelehenak: 20:30.

La búsqueda 2

Domeka: 17:00.

This is England

Eguena: 20:30

## BERGARA AGORROSIK

Perez sagutxoak

Zapatua eta domeka:

16:30, 19:30.

## GAZTETXEA

Una historia verdadera

Film laburrak

Domeka: 18:00.

## ELGETA ESPALOA ANTZOKIA

Asterix eta Zesarren ustekabea

Domeka: 17:30.

## ESKORIATZA IBARRAUNDI MUSEOA

Babe txerrixtxa hirian

Domeka: 17:30.

## ONATI KULTURA ETXEA

Ahora o nunca

Egubakoitzak: 22:30.

Expiación

22:30.

## EIBAR UNZAGA

Caramel

Egubakoitzak: 19:30, 22:15.

Zapatua eta domeka:

17:00, 19:30, 22:15.

Los crímenes de Oxford

18:05, 20:10, 22:15, 00:25.

## POZOS DE AMBICIÓN

Egubakoitzak: 17:00, 22:00.

Zapatua: 19:00, 22:00.

Domeka: 17:00, 20:00.

## YELMO CINEPLEX GORBEIA

No es país para viejos

12:15, 15:30, 17:45, 20:05,

22:25, 00:45.

Los crímenes de Oxford

18:05, 20:10, 22:15, 00:25.

Eskasa: \* Balekoa: \*\* Ona: \*\*\* Oso ona: \*\*\*\* Bikaina: \*\*\*\*\*

## Sweeney Todd \*\*\*\*

AEB, 2007. Zuzendaria: Tim

Burton. Aktoreak: Johnny Depp,

Helena Bonham-Carter.

116 min. 13 urtetik gorakoendako.

Benjamin Barker kartelara eramaten duta modu bidegabean. 15 urte eta gero, bizargin moduan bueltazen da, mendekua hartzeko asmoz.

## No es país para viejos \*\*\*

AEB, 2007. Zuzendaria: Joel

Ethan Coen. Aktoreak: Tommy

Lee Jones, Javier Bardem.

122 min. 18 urtetik gorakoendako.

Llewellyn Moss-ek kamioi txiki bat

aurretzen du. Barruan, heroina kar-

gmentu bat eta bi milioi dolar

dauude.

## Jumper

AEB, 2007. Zuzendaria: Doug

Liman. Aktoreak: Hayden

Christensen, Samuel L. Jackson.

92 min. 7 urtetik gorakoendako.

Gazte bat, anomalia genetiko baten

eraginaz daukan botere baten bidez,

nahi duen lekura joan daitekeela

daude.

## La búsqueda 2 \*

AEB, 2007. Zuzendaria: Jon

Turteltaub. Aktoreak: Ed Harris,

Helen Mirren, Nicolas Cage.

128 min. Guztidiako.

Ben Gates altxor-bilatzailea da,

eta historiako pasarte ezezagunak

eta altxor ezkutuak tartean daudela.

Abraham Lincoln-en hiltzaile John

Booth-en eguneroko da

abenturaren hasiera.

## En un mundo libre...

Erresuma Batua-Italia-Alemania-Espania, 2007. Zuzendaria: Ken Loach. Aktoreak: Kierston Wareing, Juliet Ellis.

98 min. 13 urtetik gorakoendako.

Angie eta Rose langabeek

etorkinendako behin-behineko

enplegu bulego bat zabalten dute.

## La guerra de Charlie Wilson

AEB, 2007. Zuzendaria: Mike

Nichols. Aktoreak: Tom Hanks,

Julia Roberts.

97 min. 13 urtetik gorakoendako.

Charlie Wilson AEBetako

Kongresuko kidea afganier gerlariei

lagunten hasten du Soviatar

Batasunaren ibabio garalan.

## El niño de Marte

AEB, 2007. Zuzendaria: Menno

Meijers. Aktoreak: John Cusack,

Amanda Peet, Sophie Okonedo.

108 min. 13 urtetik gorakoendako.

David Gordon idazle alargunak

Dennis txikia adoptatu nahi du;

Dennis-ek Martetik datorrela dio.

## La búsqueda 2 \*

AEB, 2007. Zuzendaria: Jon

Turteltaub. Aktoreak: Ed Harris,

Helen Mirren, Nicolas Cage.

128 min. Guztidiako.

Ben Gates altxor-bilatzailea da,

eta historiako pasarte ezezagunak

eta altxor ezkutuak tartean daudela.

Abraham Lincoln-en hiltzaile John

# Itsua bere kabuz bozkatzera

**LEHEN ALDIA** Itsuek lehen aldiz bozkatu ahal izango dute hauteskundeetan konfiantzazko inoren laguntzarik gabe

**IRATI AGIRREAZALDEGI > OÑATI**  
 Martxoaren 9ko hauteskundeetan itsuek lehen aldiz eman ahal izango dute bota inoren laguntzarik gabe. Horretarako, braille hizkuntzan idatzitako papertxoak izango dituzte eskura. Gure ibarrean sei edo zapi itsuk emanago dute bota modu horretan.

Rafael Kortabarria oñatiarra itsua da eta aurten emango du estreinakoz bota braille sisteman. Azaldu digu eskaera aspaldikoa dela, baina inork ez zuela bere gain hartzen sistema abiazteko konpromisoa. "Orain dela lau urte Zaragozako itsu bat hasi zen erakundeetara jotzen eta batzarrak egiten, eta, trabak gaindituta, azkenean lortu du. Urtarrilean jakinarazi zidaten niri aukera izango nuela bozkatzeko".

**BEHINGOZ BOTO SEKRETUA**  
 Rafael Kortabarriak Barne Ministeriora deitu du NA eta itsuen elkarteko bazkide zenbakia emanez. Hortaz, hauteskunde egunean eskura izango ditu paperak dagokion hauteskunde

mahaian. "Aurrerapausoa izan den arren, hurrengorako eskaria da bota paperak etxeen jasotzea", esan digu. "Badirudi oraingoan ez dela denborarik izan, Espainian bi inprimategi txiki daude braillean inprimatzentzen dutenak, eta Frantzian egin dituze".

Rafael Kortabarriak azaldu digu nola egin behar duten bota ematea: "Bi bota eman behar ditugu, kongresurako eta senaturako. Gutun-azal batean izango ditugu bi paper, bat braillean eta bestea modu arruntean. Nahi duguna aukeratu eta braillean dagoena atera beharko dugu. Bestean, txantiloi edo plantila bat izango dugu braillean eta gure aukera markatu beharko dugu boligrafoz, gainontzekeo bezala".

Kortabarriaren esanetan, bere bota ez da sekula sekretua izan: "Konfiantzako norbaiti esan behar nion nori bota eman".

Eurendako lorpena izan da, baina beste ezindu batzuek ere izan ditu gogoan: "Nahi nuke gurdilun aulkian daudenak lasai joatea bozkatzera, traba barik".

**BRAILLEA** Dagokien hauteskunde mahaian izango dituzte braille idazkeran gertatutako bota paperak

**ETXEAN** Oraingoan astirik izan ez bada ere, hurrengoan bozkatzeko paperak etxean jaso nahi lituzkete itsuek



LAGUNTZA Rafael Kortabarria txakurraren laguntzaz ibiltzen da kalean; bota lagunza barik eman ahal izango du. ARANTZAZU EZKIBEL

## ahobero

"Herrialdeko praktika homosexualak dira Israelen azkenaldian izandako lurrikaren eragile"

Shas Shlomo Benizri >  
 Israelgo diputatu Hau da hau homofobia muturrera eramana edo fanatismo erlijiosoaren ondorio larria. Munduko hariak Israelgo diputatu hau bezalako agintariekin mugitzen dutela ikus-tea, ez al da lurra bera dan-tzan jartzeko edo ikaratzeko modukoa?

## iturri onetik

**Gorlako auto maiatzean eta Aramaioko rallysprinta irailean**

Euskal Herriko Automobilismo Federazioak jakinari zu aurtengo automobil proben egutegia. Euskal Herriko Rallysprinten Txapelketa martxoaren 2an abiaraziko dute eta gurean ere izango da probarik. Aramaiokoa irailaren 20an jokatuko da. Iaz uztailaren 17an, iaz irailean Gorlako igoera izango da, maiatzaren 17an, iaz irailean izan zena.

## piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

### Obamania

**H**asieran aitortuko dut: neu ere harrapatu nau Barack Obamaren aldeko uhin indartsuak. Duela pare bat urte erreparatu nion, eta gustatu zitzaidan zioena, eta hori bezainbat esateko moldea. Kanpaina sartu zenean ilusioa piztu zidan fedea baino gehiago, hain seguru ageri zen-eta Hillary Clinton. Baino aurkaria harrapatu eta pasatu egin du, eta uste dut aukera serioa duela afro-amerikarra.

Gurean kexatu da bat baino gehiago, larregi begiratzen ari garelako EEBBetara. Egia da urrutiko intxaurrena – edo metropoliaren kolonizazioa, nahiago baba-baina ez da gezurra han nork agindu, aldatu egiten dela gu denon bizimodua. Obamaren kasuan, gainera, iruditzen zait mezu berria dakarrela, oihartzun luzekoa, aro hobe bat abiatu lezakeena.

## ai, eñe!



**Zenbat garagardo edan zenituen atzo?**

Nork ez du edandako tragoen kontua galdu parrandan? Zenbat garagardo botila zabaldu diren jakinarazten du Beer Tracker-ak.

[www.impresionante.net/?s=beer](http://www.impresionante.net/?s=beer)



**ARKAUZ**  
 MUEBLES  
 ARETXABAleta



**ARKAUZ**  
 COCINA INTEGRAL  
 ARETXABAleta  
 FAGOR  
 banatzalea ofiziala

**GRUPO ARKAUZ**  
 ARETXABAleta • ARRASATE  
 1950-2008

Arkauz zure etxea da.

**ETXE MOBEL**  
 ALTZARIK  
 ARRASATE



**ARKAUZ**  
 ELECTRODOMESTICOS  
 ARETXABAleta  
 expert  
 banatzalea ofiziala

